

Goienkaria

2010eko martxoaren 5a > Egubakoitza > X. urtea > 412. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Gehiengoak nahi duen aldaketaren kontrako egiten dihardu Lopezek"

Aintzane Ezenarro
Aralarko legebiltzarkidea > 08



G2a

Danbakako taldeak, diskoak aurkeztar > 31

JENDARTEA

Bagara gizarte prozesua aurkeztuko dute hilaren 11n > 02-03

EKONOMIA

Debagoieneko langabe kopuruak gora egin du otsailen ere > 04

ARRASATE

Joseba Iglesiasen heriotzak dolua eta samina ekarri du herrira > 13

JENDARTEA > MARTXOAK 8

Bi lasterketa asteburuan, Emakumearen Eguna dela eta

ARRASATEN Bihar, zapatua, bigarrenegun egingo dute 'Takarraran' 2.800 metroko lasterketa, Portaloitik abiatuta

ELGETA Lehenengoz antolatu dute 'Bigarren mailako herritar izan nahi ez dugulako' lelopean; etzi izango da, herriko kaleetan

MANIFESTAZIOA Astelehenean, Martxoak 8, manifestazioa ere deitu dute Arrasaten, 19:00etan Seber Altuben hasita > 12, 27

JENDARTEA > OMENALDIA

Omenaldia domekan Carrascori

Domekan beteko dira bi urte ETak Isaias Carrasco hil zuela, eta lore eskaintza egingo diote tirokatu zuten lekuan. Ekitaldian, haren senitartekoa eta alderdi sozialistako ordezkariak batuko dira. > 05

Amateur mailako bailarako hiru ordezkariak, denboraldia hasteko gertu

Ziklismo profesionala pauso batera dute Xabier Arantzetak (Debabarrena), Asier Penabadek (Bidelan-Kirolgi) eta Iban Caballero (Debabarrena), baina, eurek onartu moduan, pauso galanta da hori. Arantzeta iritsi berria da kategoriara. Caballero eta Penabad, berriz, beterranoagoak dira. Caballerorendako hirugarren urtea izango da eta Penabadek aurrerapauso bat egin du aurten, helburu zorrotzak dituen taldeak fitxatu du-eta. Erronken eta, orokorrean, ziklismoaren gainean egin dute berba. > 28-29



HIRU ORDEZKARI Ezkerretik hasita Xabier Arantzeta, Asier Penabad eta Iban Caballero, martitzenean, Bergaran.

XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-30
Kultura > 32-33
Sailkatuak > 34
Gazteak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 11 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MARTXOAK 6 larunbata 10:00-13:00

IRUN MARTXOAK 25 osteguna - 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA MARTXOAK 11 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN

JENDARTEA > HERRIGINTZA

"Herrigintzan mugarri bat jartzeko" jaio da Bagara

AURKEZPENA Bagara prozesua sortu dute hainbat debagoiendarrek, eta hilaren 11n aurkeztuko dute; Amaia antzokia bete nahi dute

AURRERAPAUSSA Bailarako indarrak aprobetxatuta, "beste gizarte eredu bat" nahi dute, herritarrak protagonista direla

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Bagara prozesuko kideek dei egin dute martxoaren 11n, eguena, Arrasateko Amaia Antzokia bete zeko. Hantxe aurkeztuko dute Bagara, gizarte antolakuntzatik sortutako prozesua, euskalduntasunean, iraunkortasunean, autoeraketan eta elkartasunean oinarrituta Debagoienerako beste gizarte eredu bat sortu nahi duena. "Antzokia bete nahi dugu, eta badakigu 800 lagunendako lekua duela", esan dute kideek.

Ekitaldia 18:30ean hasiko da, eta, "protagonistak herritarrak" izango direla ziurtatu dute kideek: "Herrigintzaren festa bat ospatu nahi dugu", esaten dute. Tartean, Bagarako kideek hiru abesbatzatan eta denek batera -120 bat lagunek- kantatuko dute, eta ekitaldirako propio konposatu duten abesti bat abestuko dute. "Adin ezberdinetako, bailarako herrietako, lanbide eta motibazio guztietako pertsonak, eragile ezberdinetako kideak... izango dira protagonista", diote Bagarakoek. Markel Olano ahaldun nagusiak, Arrasateko alkate Ino Galparsorok eta Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok hitz egingo dute, bakoitzak minutu baten; hala, protagonismoa herritarrek izango dute. Dena dela, erakundeen eta, batez ere, Foru Aldundiaren laguntza eta "apustua" eskertu du Bagarak; tartean, Foru Aldundiak finantzetan lagundu die.

Gabonetarako gertu izan nahi dituzte proiektu zehatz batzuk Debagoiena hainbat modutan aldatzeko eta garatzeko: tartean, gazteei prestakuntza sozio-politiko edo "mundua hobeto ulertzeko" tresnak eman nahi dien "eskola" edo gune baten proiektua nahiko aurreratuta dute. Hori adibide bat baino ez da. Funtsean, Bagarako kideak -arlotako norbanakoak, euren interesarengatik batu direnak- Debagoieneko esparru guztiak aintzat hartuta

Gabonetarako hainbat proiektu zehatz aurkeztu nahi ditu Bagarak; adibidez, gazteak sozio-politikan hezteko eskola edo gune berria

"Bailarak ditu kooperatiba dentsitate eta dibertsitate handia, berdintasun sozial eta ekonomikoa... eta orain behar du eragile guztiondako proiektu bateratua"

dabilta lanean, horiek aldatuko edo hobetuko dituzten proiektuak sortzeko.

"JAUZI KUALITATIBOEA BEHAR DA"

Ekitaldirako aukeratu duten leloa da *Gizartetik sortutako herrigintzan mugarri bat jartzera goaz*. Horren lehenengo zatiak labor baina zehatz azaltzen du Bagara zer den. Hori azaltzen ibili dira egunotan kideak; hala, martitzenean hainbat komunikabiderekin topaketa egin zuten Bagarako kide Juan Luis Arexolaleibak (koordinatzailea), Jon Sarasuak (Lanki

ikertegiko zuzendaria), Iraitz Agirrek eta Nagore Iraolak. Gizartetik sortutako herrigintza gisa aurkezten dute Bagara: "Bailararen indarguneak baliatuz eta lankidetzan abiatu" den prozesua, hain zuzen ere.

Berez prozesua da Bagara, etengabeko lana delako, proiektu zehatzak izango dituen ondorio gisa. Eta prozesu hori 2008an hasi zen, hainbat arlotan ziharduten norbanakoen egonezin batekin. Ikusi zuten, alegia, Debagoiena oso garatuta zegoela alderdi batzuetan, baina sortutako gizarte-ereduarekin ez zeudela "pozik". Jon Sarasuak azaltzen duen moduan, "kooperatibetan azken 10 urteotan sortu zen kezka bat: kooperatibak sortu ziren herrigintzarekin oso lotuta, eta bai bailarak, bai kooperatibek eurek, asko irabazi dute lotura horretatik; baina orain, lotura hori jauzi kualitatibo baten beharrean dago".

Gauza bera gizartegintzari dagokionez: "Bailarako gizarte antolatuta dago, eta badihardu euskalgintzan, 3. munduarekin elkartasunean, eta abar. Baina bakoitza bere aldetik doa; antzeko arazoak izanda, ez dute elkar-gunerik", dio Sarasuak. Eta, azkenik, euskalgintzan eta hezkuntzan -"aurreratuagoak izan beharko genuke; bailaran aukerak ditugu berritzaileak izateko"- egoera bera antzeman dute.

GIZARTE ANTOLAKUNTZA, GAKOA

Bada, lau esparru horietako norbanakoak -euren izenean, eta ez erakundeen izenean- batzen hasi ziren 2008. urtean, aipatutako kezkak bultzatuta; horren ondorioa izan da Bagara. Euren oinarria da gizartegintza, gizarte antolakuntza, herriak sortzen dituen ekimenak eta erakundeak, eta zentzu horretan, Debagoienak daukanetik beste pauso bat haratago joan nahi dute, "prozesu sozial zabal" baten.



Bagara prozesuko kide Iraitz Agirre, Jon Sarasua, Juan Luis Arexolaleiba eta Nagore Iraola.

Ez dira hutsetik abiatzen, baizik eta "azken 50 urteotan" Debagoienean egin denetik: euren esanetan, Debagoienak baditu indar batzuk, alegia, "munduko oso leku gutxitan bezalako kooperatiba dentsitate eta dibertsitatea", edo "berdintasun sozial eta ekonomikoa". Egindakoa asko izan arren, Bagarako kideek hauxe diote: "Ez dugu proiektu bateraturik izan denok batera nora joan nahi genuen pentsatzeko". Orain,

baina, "elementuak badaude proiektu integral bat planteatzeko gure bailarako". Izan ere, euren esanetan, "gizarte antolatua indartsua da Euskal Herrian, eta are gehiago, bailaran". Horatik ekin diote bideari.

GABONETARAKO, PROIEKTUAK

Lanean dihardute hiru arlotan, lan taldetan banatuta. Sustapena, hezkuntza eta kooperatibak dira arlo horiek.

GINARRIAK ETA HELBURUAK

Lau 'oinarriparretan' gorpuzten da

> EUSKALDUNTASUNA ETA LANKIDETZA

Oinarriak dira, eta ipar edo helburu bihurtu nahi dituzte. Helburua da "autoeraketa bizi izatea, euskalduntasun irekia garatuz"; lankidetzan, "euskal nortasunaren gune" izatea.

Bagararen esanetan, euskalgintzan -euskara elkarteak, euskarazko tokiko komunikabideak, Goiena... aipatzen dituzte- eta lankidetzan -kooperatibak...- bailara "erreferente" bat da, eta horiek dira bere bi indar. Hala ere, Bagarak dioenez, "estrategia komun bat" falta izan zaie arlo indartsu horiei.

> ELKARTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA

Iparrak edo helburuak dira, oinarri bihurtu nahi dituztenak: "Elkartasuna, besteekiko ardura garatuz; eta iraunkortasuna,

eredu iraunkorrera hurbilduz", diote. Bagarako kideek ez daude "pozik" bailarak gaur egun duen gizarte ereduarekin: kontsumismoa eta larregiko individualismoa aipatzen dituzte aldatu beharreko egoera gisa, adibidez. Horri alternatiba da, eurek proposatzen dutenez, "gizarte antolakuntzatik" abiatuta, elkartasunerantz eta iraunkortasunerantz doan eredu.



Bagararen ikurra, lau adarrekin.



LEIRE KORTABARRIA

Sustapen arloan, bederatzi esparru identifikatu dituzte: euskalgintza, immigrazioa, gazteen konpromisoa, erretiro aktiboa, kulturagintza, nekazaritza, etxebizitza, kontsumoaren humanizazioa eta iraunkortasuna. Lan taldeak osatzen dituzte buru batek, teknikari batek eta hiru partaidek; arlo bakoitzean adituak eta "arituak". Asmoa da aurtengo Gabonetarako lan talde bakoitzak gutxienez proiektu bat

aurkez dezan, eta batzuk dagoeneko nahiko mamituta daude: adibidez, gazteei formazio soziopolitiko bat emateko eskola edo gune bat bururatu zaio lan talde bati. Iraunkortasun esparruan, Ingalaterrako Transition mugimenduari dagokionez, eta haien ordezkari batzuek uztailan bailarara bisita egitea aurreikusten dute. Transition-ek gaur egungo garapen eredutik -petrolioa oinarrituta, batez ere- bes-

te batera zelan pasatu aztertzen du. Munduko beste esperientzia batzuekin ere harremanetan egon nahi du Bagarak.

Proiektu bat izan daiteke enpresa bat sortzea; beste bat, sare bat sortzea; dagoena bateratzea, eta abar.

Hezkuntza arloan ere lana nahiko aurreratuta dago. Hala, Arizmendi ikastolarekin plan pilotu bat lantzen dabilta, hezkuntza berrikuntzarako labora-

DATUAK

80
KIDE

Bagara prozesua 2008an sortu zen, eta momentu honetan 80 bat norbanakok dihardute. Gazteenak 26 urte ditu eta nagusienak, 64.

800
LAGUN

Aurkezpen egunean, hilaren 11n, Amaia antzokia bete gura dute Bagarakoek. 800 lagunendako lekua dauka antzokiak.

120
KANTARI

Hiru abesbatza sortuko dituzte aurkezpenarako, eta bukaeran, denek, 120 bat lagunek, kantatuko dute propio konposatutako abestia.

tegi bat martxan jartzeko, guraso eskola batekin eta, bestetik, hezkuntzara bideratutako arkitectura proiektu batekin; hau da, hezkuntzan eragiten duen eredu arkitektonikoa. Bagarak argitzen du, momentu honetan, Arizmendirekin lanean dabil-tzan arren, "aurrerapenak baila-ra osorako eta ikastetxe guztien-dako" izango direla.

Azkenik, kooperatibak gizarte erantzukizunean indartu nahi dituzte: barrura begira, "kooperatibak biziberritu"; kanpora begira, "kooperatibak saretu".

Bagararen esparru geografikoa Debagoiena osoa da, baina, oraingoz behintzat, proiektu batzuk "eskala txikiagoan, Leintz bailaran" landuko dituzte.

"ILUSIOA PIZTU DU"

Bagarako kideek esan dutenez, euren buruari aitortzen diote "zaila" dela euren buruari ipini dioten erronka. Hala ere, gogotsu dabilta. "Gero eta jende gehiago gabiltza, eta ilusioa piztu du ekimen honek", esaten dute.

Hurrengo urratsa izango dute, asmo duten bezala, Amaia antzokia goraino betetzea, eta Debagoieneko herrigintzan beste mugarri bat jartzea.

Iraitz Agirre >
Bagarako kidea

"Ahalik eta jende gehienari atea zabaltzen diogu Bagaran"

L.K. > ARRASATE

Goiena Telebistan izan da Iraitz Agirre Bagarako kidea. Eneko Azkarateren eta Arrixu Barrusoren galderak erantzun zituen. Haren esanetan, "indar handia" dago bailaran, eta hortik abiatu da Bagara.

Zer da Bagara, labur?

Gure bailarako gizarte garapenean eragiteko prozesua da. Definizio horretako hitz bakoitzak bere zentzua dauka. Hala, Debagoiena da, gune geografiko bat baino gehiago, gertuko harremanak dauden gune bat. Gizarte garapenaz dihardugunean, herrigintza dihardugu: herrigintza egiten herri honetan oso ondo dakigu, baina gurea ikuspegi orokorragotik ekingo duen herrigintza da. Eta prozesua da ez delako proiektu soil bat, eta asmoa da ahalik eta jende gehienari atea zabaltzea; gerturatzen den jendearen arabera izango dira irteerak diren proiektuak.

Zergatik sortu duzue Bagara?

Kezkak lehenagotik datoz, eta gizartearen zabalduko kezkak dira: hazi, hazi da bailara, baina indibidualismoa, kontsumismoa... ikaragarriak dira. Hala ere, indar handia dago hemen eta zerbait bideratu beharra ikusi genuen, hedabide mota desberdinekin.

Zeintzuk dira oraingo helburuak?

Lau ardatz ditugu: euskalduntasuna, elkartasuna, iraunkortasuna eta autoeraketa. Jende asko elkartzeko ardatzak dira. Sustapena, kooperatibak sendotzea eta hezkuntza dira gure eragin-arloak orain, eta bakoitzak esparru desberdinak ditu. Aurten, urte bukaerarako esparru talde bakoitzeko proiektu bideragarri batzuk aurkeztea da gure helburua.

Ze proiektu mota izango dira?

Adibidez, nekazaritza alorrean, sare bat bultzatu daiteke; kulturagintzan, pedagogia artistikoa lantzeko espazio baten beharra ikusten da; jaieguna egin daiteke bailarako kultura elkarteekin...

GALDERAK

Bagara, labur

> ZERGATIK DA PROZESUA?

"Enbor asko dituen prozesu zabala delako, ez proiektu soil bat", dio Bagarak. "Prozesu horretan, arlo ezberdinetan eragiteko proiektuak martxan jartzea da helburua".

> ZER DA GIZARTE GARAPENA?

"Herrigintza berria, ikuspegi orokorragotik ekingo duen jendartea. Gizarte ekimenetik sortzen diren erakunde ekimenean esparrua, pertsonok protagonista izango garena".

> NOLA ERAGIN?

"Bailararen indargune nagusiak erakunde, herri eta taldeetan ekimenean antolatuta eta berriak sortzeko dagoen gaitasuna eta grina dira. Gaitasun hori norabide jakin batean erabiliz gero, gure egunerokotasunean eragiteko indar handiagoa izango dugula uste dugu", esaten du Bagarak.

ESALDI GAKOAK

Ipar bateratuen unea

> "Ikuspegia, ekintza barik, teoria hutsa da. Ekintzak, ikuspegiarik gabe, ez du gauza handirik balio. Ikuspegiak eta ekintzak mundua alda dezake"

"Norabide bat edukitzea beharrezkoa da. Teoriatik praktikara jauzi egitea ezinbestekoa da, baina era berean, praktikak sustraiak izan behar ditu", esaten du Bagarak.

> "Baldintzak, zailak; baliabideak, berdingabeak"

Bagarak hauxe dio: "Kontzientzia gara zailtasunekin, baina baita ditugun aukerekin".

> "Jarraitu eta jauzi"

Orain artekoarekin "apurtu gabe, aurrerapausoa" egitea da asmoa.

> "Ipar ilusionagarrien beharra"

Bagarak dioenez, "harreman defizita" egon da bailaran, eta estrategia bateratuaren ordua da.

LAN ARLOAK

Kaletik eskolara

> SUSTAPENA

Oinarrietatik abiatuta, herrigintza proiektuak sustatu eta elkarrekin lotuko dituzte. Bederatzi esparrutan dihardute: euskalgintza, immigrazioa, gazteen konpromisoa, erretiro aktiboa, kulturagintza, nekazaritza, etxebizitza, kontsumoaren humanizazioa eta iraunkortasuna.


> HEZKUNTZA

"XXI. mendeko erronka sozialei begira, hezkuntza komunitateari dagozkion balore eta kompetentziak landu eta praktikara eramatea" da helburua. Hezkuntza proiektu pilotu bat martxan jartzeko lanean dihardute orain.

> KOOPERATIBAGINTZA

"Kooperatibak gizarte erantzukizunean urratsak egin ditzen, barrura zein kanpora begira", diote Bagarako kideek.

H* arantzazu**
arantzazuko santutegia hotela



KUDEATZAILE BERRIAK
Bazkari eta ospakizun berezietarako zure lekua

943 78 13 13

Arantzazuko auzoa 8 | OÑATI
www.hotelsantuariodearantzazu.com

LANGABEZIA

Langabe kopuruak gora egin du ibarrean

Urtarrilean lan barik zeuden 3.437 lagunei beste 23 lagun gehitu zaizkie

A.E. > BERGARA

Langabeziak gora egin du otsailean Debagoiengan, apal bada ere. Urtarrilean lan barik zeuden 3.437 debagoien-darrei beste 23 lagun gehitu zaizkie urteko bigarren hila-betean.

Herriz herri begiratuta, langabe kopurua Bergaran igo da gehien: urtarrilean baino 26 langabe gehiago zeuden otsailean Bergaran. Egoerak okerrera egin du Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin ere.

HERRI BATZUETAN BEHERA...

Aldiz, Antzuolan, Arrasaten eta Elgetan behera egin du langabezia tasak. Eta Leintz Gatzagan egoerak bere horretan jarraitzen du: hamar langabe zeuden urtarrilean eta baita otsailean ere.



Julia Monge, Lourdes Sagasta eta Inazio Garro, inaugurazio egunean.

ARANTZAZU EZKIBEL

JENDARTEA > ESPAINIAKO GERRA

Biktimen duintasunaren alde erakusketa ireki dute Arkupen

Erakusketa hilaren 24ra arte egongo da zabalik Arkupen; Aretxabaletako biktimen izenak daude

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA
Hilotzak hobitik ateratzen, duintasuna berreskuratzen erakusketa ibiltaria Aretxabaletako Arkupe kultura etxean ikusgai dago. Aranzadi zientzia elkarteak antolatutako erakusketa da, Eusko Jaurlaritzaren Justizia

eta Herri Administrazio Sailaren dirulaguntzarekin. Gainera, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen laguntza izan dute Aretxabaletako erakusketan aretxabaletar biktimen izenak eta aurpegiak jartzeko. Hilaren 24ra arte egongo da ikusgai.

Inazio Garro Aretxabaletako alkateak inauguratu zuen erakusketa; lagun izan zituen Julia Monge eta Jose Ramon Intxauspe Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak; eta Lourdes Sagasti indusketetan aditua. Aurkezpenean parte hartu ez zuen arren, han izan zen baita ere Paco Etxeberria Aranzadiko presidentea.

GERTATUTAKOIA IKERTZEA

Mongek adierazi zuen Debagoiengan errepresio horren seinaleak frankistak sartu ziren lehenengo egunetik izan zirela. "Frankistek fusilatutako 120 pertsona zenbatu ditugu, zibilak. Horien artean sei ume eta lau abade", azaldu zuen Mongek. Azaldu zuen justizia egiteko lehen pausoa gertatutakoa ikertzea izango dela; errudunak epaitu, kaltearen ordaina emateko, eta berriro horrelakorik ez gertatzeko.

ARETXABALETARRAK


Erakusketan agertzen diren aretxabaletarrak dira: Isidoro Gartzia-Etxabe Etxeberria, Agustin Aranburu Zabaleta, Felix Alberdi Cerio, Victoriano Akizu Izurategi, Sabino Etxabe Gurutzeta, Dionisio Uribealago Otadui, Juan Bengoa Agiriano, Raimundo Galdos Azkarretazabal, Saturnino Sauquillo Etxeberria eta Jesus Peña Etxeberria.

Gelaren erdian, lurrean, 10,5x1,60 metroko argazki bat dago: hobi batena. Claudio Albizuk ateratako argazkia da, indusketa lan batzuetan.

Carrefour

GORBEIA

Eraman hiru, ordaindu bi!



SAN ASENSIO
jatorri-izen kalifikatua
duen Errioxako ardoa
Ardo beltza
75 cl

Botila 1 erosita
2,65€
Litroa 3,53€

3x2
Botila
1,77€
Litroa 2,36€



PESCANOVA
Legatz-solomo edo
legatz-medailoiak 400 g (1)
edo legatz-bihotzak
500 g (2)

Unitate 1 erosita
4,95€
(1)Kiloa 12,38€
(2)Kiloa 9,90€

3x2
Unitatea
3,30€
(1)Kiloa 8,25€
(2)Kiloa 6,60€



Kombina itzazu zeuk
nahi duzun moduan

ARIEL
detergente-hautsa
Actiliftarekin
44 ontzi txiki

Unitate 1 erosita
13,50€
Ontzi txiki bakoitza 0,31€

3x2
Unitatea
9€
Ontzi txiki bakoitza 0,20€



Kombina itzazu zeuk
nahi duzun moduan



LA GULA DEL NORTE
Gula freskoak
100g, 2 unitateko pack-a
Pack 1 erosita
5,20€
Kiloa 26€

3x2
Pack-a
3,47€
Kiloa 17,35€



DODOT Etapas Pixoihalak, neurri estrak
T3 4-10 kilo 106 unitate (1),
T4 11-16 kilo 98 unitate (2)
edo T5 15-20 kilo 82 unitate (3)

Pack 1 erosita
19,95€
(1) Unitatea 0,19€
(2) Unitatea 0,20€
(3) Unitatea 0,24€

3x2
Packa
13,30€
(1)Unitatea 0,12€
(2)Unitatea 0,13€
(3)Unitatea 0,16€

Martxoaren 11ra arte

Prezio hauek Carrefour GORBEIA-rako balio dute

Paco Gartzia > Arrasateko sozialisten burua

"Oso pozik eta lasai gaude atxiloketarekin, justizia egin delako"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Domekan atxilotu zuten Isaias Carrascoren ustezko hiltzaile Beñat Aginagalde. Arrasateko sozialistak eta Carrascoren senitartekoak "pozik eta lasai" daude. Arrasateko sozialisten buru Paco Gartziarekin egin dugu berba.

Isaias Carrascoren ustezko hiltzailea atxilotu dute. Nola baloratzen duzue atxiloketa?

Oso pozik gaude, bi urte pasa diren arren, Isaiasen ustezko hiltzailea atxilotu dutelako. Atxiloketan parte hartu duten guztiak zoriondu gura ditugu. Justizia bete egin da, eta zuzenbide estatua gailendu.

Borroka armatuaren parte direnek eta borroka armatua babesten dutenek jakin behar dute geratzen zaien bidea dela Carrascoren ustezko hiltzaileak jarraituko duen berbera; alegia, kartzelan bukatuko dute.

Nola hartu dute albistea Carrascoren senitartekoek?

Oso pozik daude, baina, aldi berean, minduta daude. Domekan beteko dira bi urte hil zutela, eta hilketa eguneko oroitzapenak biziko dituzte berriro ere.

Dena den, ustezko hiltzailea atxilotu izana lasaigarria da. Beste behin, argi geratu da justizia zorrotza dela.

Arrasateko zinegotzi ohia hil zutenetik, zenbat aldatu da egoera?

Nik esango nuke asko aldatu dela, aurrerapauso handiak eman ditugula guztion artean. Terrorismoaren kontrako borroka asko aldatu da. Terrorista



Paco Gartzia, Arrasateko PSE-EEren egoitzan.

GOIENKARIA

bakoitza atxilotzen dutenean, askeago sentitzen gara guztiok. ETAK kolpe asko jasan ditu azkenaldian, eta gaizki dago. Borroka armatua utzi beharko du.

Gure ideiak eta proiektuak askatasun osoz adierazi nahi ditugu, inolako mehatxu barik.

Urkulluk esan du ezker abertzaleak berba egiten duen bakoitzean atxiloketak daudela.

Astakeria galanta da. Atxiloketak ez dira ezker abertzalekoen adierazpenen harira egiten, segurtasun indarrak etengabe daude-eta lanean.

ISAIAS CARRASCOREN HILKETA

Bigarren urteurreneko omenaldia domekan

Domekan beteko dira bi urte ETAK Isaias Carrasco hil zuela. Bigarren urteurrenean omenaldia egingo diote Arrasaten. Lore eskaintza egingo dute 12:00etan, ETAK tirokatu zuen tokian; hain zuzen ere, Navas de Tolosa kalean. Ekitaldian Carrascoren senitartekoek eta alderdi sozialistako kideek parte hartuko dute; besteak beste, PSE-EEko Gipuzkoako idazkari Iñaki Arriolak.

Isaias Carrasco 2008ko martxoaren 7an hil zuten. Hiru tiro egin zizkieten bazkaldu ondoren lanera zihoala. Hauteskundeetako kanpaina eguna zen, eta alderdi guztiek bertan behera utzi zituzten ekitaldi politikoak. Carrasco Arrasateko Udaleko zinegotzia izan zen 2003ko maiatzetik 2007ko maiatzera.

TURISMOA > ARRIKRUTZ

Kobetan dagoen ondarea ezagutarazteko Kobazuloen Eguna egingo dute domekan

Euskal Herriko zortzi kobazulotan sarrerak erdi prezioan salduko dituzte eta zozketak egingo dituzte

M.B. > OÑATI

Mugarik Gabeko Lurpea taldeak antolatuta Kobazuloen Eguna ospatuko dute domekan. Euskal Herriko zortzi kobazulo daude talde horretan: Arrikruz, Ekainberri (Zestoa), Sorgingen Koba (Zugarramurdi), Urdazubiko leizeak (Urdazubi), Mendukilo kobak (Astiz-Lekunberri), Sarako leizeak (Sara), Pozalaguako kobak (Karrantza) eta Kobenkoka (Karrantza).

Domekan, koba guztietan, sarrerak erdi prezioan salduko dituzte eta bisitarien artean zozketak egingo dituzte. Horren harira, Arrikruzeko bisitarien artean, Arantzazu Hotelean bi pertsonarendako aste bukarako egonaldia eta Mugarik Gabeko Lurpea taldeko zortzi

kobazuloak ikusteko sarrera bonua zozketatuko dituzte. Gainera, bihar *Arrikruz zuzenez* delako bisitak egingo dituzte. Gidariarekin egingo dituzte bisitak eta galderak egiteko aukera izango dute bisitariak. Oraingoan ere, sarrerak aurrez gordetzea aholkatzen dute arduradunek, 943 08 20 00 telefonora deituta.

GEOLOGIAREN EGUNA

Kobazuloen Egunaren helburua kobetan dagoen ondarea ezagutaraztea dela esan digu Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako gerente Ikerne Altubek: "Kobak ondare oso garrantzitsua direla uste dugu. Elkar-tutako zortzi kobetatik lau, gainera, oso berriak dira eta zer erakutsi handia daukate. Hori guztia ezagutzeko samurtasunak eman gura ditugu. Gainera, teknologia berrien bitartez gaurkotatunera eta merkatuari egokitu ematen dugu ondarearen berri".

Bestalde, apirilaren 25ean geologiaren gaineko eguna izendatuta dauka Unescok, eta *Arrikruz barne-barnetik* egitasmoa abian jarriko dute.

> EUSKARA

AEK-ko zozketan 00065 zenbakia izan da saritua eta hilaren 25era arte izango du balioa

AEK euskaltegiek egindako zozketan 00065 zenbakia izan da saritua. Hain zuzen ere, ONCEko zozketako zenbaki bera. Txartelaren jabeak hilaren 25era arteko epea izango du saria jasotzeko. Horretarako, 943 32 71 72 telefonora deitu beharko du, eta jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren azalduko diote zozketaren antolatzaileek. Irabazleak urtebetean, hilerio, 1.000 euro jasoko ditu sari moduan.

AEK-k zehaztutako epearen barruan saritutako txartela ez bada agertzen, ONCE elkarteak martxoaren 26an egingo duen zozketako zenbakiarekin bat datorrena sarituko dute.

HEZKUNTZA > EUSKARA

Euskal Herriak Bere Eskola hiru eleko hezkuntza ereduaren kontra agertu da

Hezkuntza sistema propioa aldarrikatzeko ekitaldi kulturala egingo dute gaur Bergaran

M.B. > ARRASATE

Gaztelania, euskara eta ingelesa ardatz izango dituen hezkuntza egitasmoa datorren ikasturteetik aurrera ezarriko du Eusko Jaurlaritzak 40 ikastetxetan. Eredu berriak hiru hizkuntzak maila berean jartzen ditu: hirurei ordu kopuru bera eskainiko zaie.

Erabaki horren kontra agertu ziren eguaztenean Euskal

Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimeneko kideak. Prentsaurrekoa deitu zuten, "Espainiako Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak euskara eta euskal kulturaren kontra bideratu duten erasoaldia salatuz".

Gaineratu zuten eredu berria beste eredu guztiak (A, B, D) ordezkatzeko jaio dela. "Isabel Zelaak proposatzen dituen alda-



Prentsaurrekoan parte hartu zuten kideak.

M.B.

ketekin hezkuntza sistema erreformatu nahi dute eta txarrerako. A ereduaren antz gehiegi duen eredu inposatu nahi digu-

te. Debagoiengan lan asko egin dugu euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko, eta hezkuntza sistema propioaren alde borro-

kan jarraitu behar dugu", esan zuten EHBEko kide Ibai Redondok Kulturaten.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren erabakiz, curriculumareformatu gura dutela "salatu" zuten.

MANIFESTAZIO NAZIONALA

Aldarrikapen horiek bultzatzeko ekitaldi kulturala egingo dute gaur Bergarako Munibe Plazan. 17:30ean hurrendako jolasak egingo dituzte eta 18:30ean bertsolarien eta trikitilarien saioak eta antzerki emanaldia egingo dituzte, besteak beste.

Bestalde, martxoaren 13an Bilbon egingo duten manifestazio nazionalera joateko dei zabaldu egin zuten. Autobusean joan gura dutenek izena eman dezakete euskara elkarteetan, ikastetxeetan eta hainbat tabernatan.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

Jose Luis askatu!

Errudun sentitzen naiz artikulu hau idazterakuan, errudun Jose Luis bisitatzera joan ez naizelako, errudun ez jatelako idatzi. Egixa da azkenaldixan burua oso okupata euki dotela beste gauza batzukin, egixa da azkenengo urtetan gure hartu-emona hoztu egin zala apur bat bide politiko diferentziak hartu giñuzelako, baiña egixagua da ez diela aitzakixa nahikua.

Berandu izan arren, hartu, Jose Luis, besarkada bero bat. Asko gara herri honetan estimatzen zaitugunak, asko gara maite zaitugunak, nahiz eta askok adierazi ez; eta beste jente horren izenian be idazten dotsut pittin bat.

Mutiko txikixa nintzala ezagutu neban Jose Luis. Gu Uberako eskolara oiñez eta bera Vespa baten lanerako bidian Bergara aldera; batzutan anaia aurrian eta bera atzian, beste batzutan bakarrik. Goguan daukat abrigo gris luze batekin joaten zala, izotz galantak be egiten zittuan eta. Orduan ez nekixen Elkoro zanik. Elgetako "Mantunekuak", esaten zoskun nagusiren batek.

Ezagutzen dogu Jose Luisek egindako bidia. Honetan ixa danak bat etorriko ga: gizon ona, argixa, apala eta langillia. Asko eskeiñitakua herri honi eta munduari. Enpresa munduan, alkatemoduan, politikagintzan, Gara aurrera etarazten, eta zertan ez. Haren maila sozio-ekonomikua lortutako zenbat ezagutu ditugu bera bezela konprometitzen eta arriskutzen? Nik behintzat bat bera be ez. Eta karu ordaindu dau bihotz- eta eskuzabalta-sun hori. Doilorkerixa akaberabakoz jokatu dau estatu espainiarrek berakin.

Herrixan Plataforma bat sortu dan honetan, ezin dogu etsi kalia libre ikusi arte. Jose Luis, kalia bihar zaittugu ia!, oindio asko daukazu emotoko eta bizitzeko-eta.

usteak uste

Edu Mendibil

Tranbiaren zain, bus ilarak

Arriola garraio sailburuak berriki esan duenez, Debagoieneko tranbiaren proiekturako ez dago dirurik. Bitartean, Lurraldebus da Debagoiena lotzen saiatzen dena: Oñatikoak, esaterako, kexu dira beste herri batzuen aldean eskaintza txarragoa delako San Prudentziotik hara, nolabait *baztertuta* dau delako. Zenbait lineatan, berriz, badirudi autobusak bata bestearen atzean doazela (66! egunero Bergaratik Arrasatera, adibidez). Autobus gehiegi ez ote dabil gora eta behera? Kontsumo arduratsua ez da behin eta berriz gomendatzen zaiguna?

marrazkiz

Unai Busturia



GAZTE ENPLEGUA DINAMIZATZEKO PATRONALAREN AZKEN PROPOSAMENAK

blog-top

Gizonezkoen erakargarritasuna eta adimena

Juan Ignacio Perez
berria.info/blogak/txinpantzebiluzia/

Evolution and Human Behavior aldizkariko ikerketa-lan baten emaitzek zer pentsatu eman didate. Zeregin desberdinetan aritzen ziren 15 gizonezko filmatu zituen ikerketa-talde batek eta, gero, adimen testa egin zioten gizonezko horietako bakoitzari. Ondoren, 200 andrazkoek ikusi zituzten hartutako irudiak eta irudi horietatik abiatuz, adimen maila egotzi zioten bakoitzari eta adimen mailarekin batera, gizonezko bakoitzaren erakargarritasun-neurria ere.

Gizon adimentsuenak suertatu ziren erakargarrien (...); emakumeek gizonezkoek egotziriko adimen mailak bat etorri ziren adimen-testetatik lorturiko emaitzekin.

Irakurle: jarri orain emakumezkoak gizonezkoen zeregintan eta alderantziz. Emaitza berdinak lortuko ote lirerate? Ezetz esango nuke nik.

Ordainetan

Anjel Lertxundi
berria.info/blogak/lertxundi/

Txileko lurrikarak egunaren iraupena laburtu omen du. 1,26 mikrosegundo eguneko. Ez dirudi asko, baina nork daki. Beharbada, uste dugun baino indartsuagoa izango du eragina. Tximeleta batek Tokyoko egindako hegalditxoak lurrikara bat eragin baldin badezake Haitin edo Txilen, hemendik aurrera egunak izango omen duen hegalditxo laburragoak zergatik ez du baldintzatuko munduaren bizitza, gizakion, gutariko bakoitzaren ametsena?

Tragediekin ikasten ez dugunez, ea parablek ilustratzen gaituzten: bizitzari hogeita bost orduko etekina atera nahi genion, baina Natura txit Zuzenak leziotxo bat eman nahi izan digu gure eguneroko bizitza 1,26 mikrosegundo gutxiagorekin zigortuz.

Egunak 24 ordu izaten segituko du, baina 1,26 mikrosegundo gutxiago iraun. Hala ere, eskarmentu apalegia begitazten zait, Naturarekin zein baldar portatzen garen ikusita.

koplak

Eñaut Uriarte

Ziklogenesia haundixa ezia

Aurreko astetik esaten zeben zetorrela oso bizia, baina etzan horrela gertatu oingo ziklogenesia.

Euskal Herriko kirol guztixak bertan behera utziak, baita be kotxe ta autobusentzat bide askotxo itxiak.

Badaezpada eskatu zeben lasaitasuna edo kalma, eta planakin lortu zebena zan piztutzia alarma.

Bizkaixan zerbait gertatu ei zan suterren bat edo beste, nere ustetan iazko urtian okerragua ez uzte.

Iazko urtarrilaren erdixan txarragua izan zan ziur, haiziarekin ez det pasatu sekula hainbeste bildur.

Eskiatzetik bueltan orduan haizeak nahiko endredo, lagunak neri eskutik heldu ta esan zidan goian bego.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABAETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Siletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
UdalaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Aramaiotik Arrasaterako arriskuak...

Iñaki Mondragon
Aramaio

Gertatu zaidan gauza bat salatzeke idazten dut. Aramaiotik Arrasatera doan bidea itxia dago, bai, baina nik pentsatzen nuen autoendako itxita zegoela eta ez oinezkoendako. Ez du ezer jartzen.

Gauza da korrika joan naizela Aramaiotik Santa Agedara, eta inork ez dit ezer esan, baina bueltatzerakoan, bidearen alboan dagoen ibilgailu lur orotariko batetik gizon bat atera da eta ezin nintzela pasatu esan dit: "¡A dónde cojones vas!", esan dit. Esan diot etorri naizen bidetik etxera nindoala. Ez zuela jartzen *Prohibido el paso* ez ezer. Gizonak, berriz, ezin nintzela pasatu eta buelta osoa emateko. Nik ea bera nor ote zen hori esateko galdetu diot, eta "que llamo a la Guardia Civil, a la Ertzaintza" hasi da. Deitzeke esan diot... Kontua da, azkenean, korrika egiteko keinua egin diodala eta lepora bota zaidala: "¡Que te voy a dar dos ostias!", esanez...

Bikotekide barik eta pentsioak erdira

Iztziar Usandizaga eta Izaskun Jimeno
(Bergarako LAB Helduak)
Bergara

Ubane Madera estimatuak otsailaren 15eko GOIENKARIA-RIAN dioenari jarraituz, esan behar dugu egia handia dela alargunen pentsioa %52ra jaisten dela. Gainera, ez dago behartuta Errenta Aitorpena egitera. Baina norberaren erretiroa kobratzen hasten zarenean eta bi pentsio dituzunean, Errenta Aitorpena egitera behartuta zaude. Orduan bai ematen dizutela benetako egurra eta makila. Bi pentsioak batu egiten dituzte IRPF erretentzioa egiteko. Orduan gelditzen da alarguntasun pentsioa hutsaren hurrengoan.

Gainetik, 2010. urterako Gizarte Segurantzak pentsioei %1eko igoera aplikatu die, baina kopuru batetik aurrera (18.060 euro) jasotzen dutenei erretentzioak %2 igo dizkiete; hortaz, pentsiodun askok iaz baino %1 gutxiago kobratuko dute.

Bihotzetik eta esker onez

Juanjo Iglesias eta Pili Gonzalez
> Arrasate

Leerro hauen bitartez, Joseba Iglesias Gonzalezen senideek eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu haren bilaketa lanetan parte hartu eta lagundu zenuten guztiei. Adiskide eta mendizaleei... Gaztetxeko eta Basatiko lagunei... den-denei... eta, bereziki, lanak bertatik bertara jarraitu zituen Arrasateko alkate Ino Galparsorori eta Uxarte jatetxeko familiari, bilaketak iraun zuen gau osoan ostatua zabalik eduki baitzuen Udalara hurbildutako koei berotasuna eta harrera emateko.

Herri aurrerakoi eta solidarioago baten sinisten zuen Josebak eta domekan zuek emandako erantzunak erakusten du oraindik posible dela. Udalatxek piztu zion Josebari naturarekiko lilura, mutiko koskorra zela. Haren abarotik emango digu berak orain aurrera egiteko kementa eta indarra.

Emakumearen egoera, orokorrean, eta, bereziki, heldua eta alarguna baldin bada, larria izan daiteke. Hemendik aurrera askoz okerragoa izango da egungo krisiaren ondorioz. Emakumeen artean maizago agertzen dira pobrezia, bakardadea eta prekarietatea.

Alargunen pentsio gehienak oso ziztrinak dira, emakume pentsiodunek gizonen baino soldata txikiagoa jasotzen dute eta, ondorioz, emakumeen pentsioak %30 baxuagoak dira.

Hortaz, garrantzitsua da martxoaren 8an, Emakume Langileen Egunean, pentsioen murrizketaren aurka eta berdintasunaren aldeko aldarrikapenarekin bat egitea.

Burujabetasuna poltsiko bero zaleentzat

Gurutz Garmendia
Azkoitia

Badira zenbait urte Ingalaterrako aldizkarietan Espainiako ekonomiaren egoera larriaz berri ematen hasi zirenetik. Gutxi gorabehera esaten hasi zirena hauxe zen: igotzen den guztia behera erortzen dela eta zenbat eta altuera handiagora igo, orduan eta danbateko handiagoa hartzen dela erortzerakoan. Hiru ziren gure auzokide txit maitagarrien oinarri ekonomiko garaiezinak. Barne kontsumoa, eraikuntzako negozioa eta turismoa. Eta hiru zutabe hauetan oinarritu dute euren hazkunde bikaina, Espainia beraien ustetan, sasoi batean Aznarrek behintzat horrela zioen Europako beste herrialdeen jarraibide gisa gauzatuz. Gure Aznar

azenarioak, potro handiekin, Alemaniak Espainiako eredu jarraitu behar zuela ere esan zuen eta mundu mailako potentzia izatea zen euren helburu.

Baina aberastasunak aberastasun eta handikeriak handikeria, bukatu da behi lodien sasoi eta Espainia bertan behera erortzen ari da. Eraikuntzako negozioak porrot egin du eta turismoa ere oso-oso ukituta daukate. Ondorioz, barne kontsumoa ere izugarri jaitsi da eta gaur egun, zorrak zor, Espainia kiebra jotzeko zorian dago. Hala diote ekonomiaz hitz egiten diharduten mundu mailako aldizkariak eta egia esan egia hori antzemateko ez da inongo aditua izan behar. Jesukristoren afaria egin dute espainolek eta euskaldun batzuk ere bai, denetik jan da, bakoitzetik onena eta gainera lepo jan eta edan da, baina orain norbaitek ordaindu behar du zorra eta dirurik ez dago.

Hamar urte edo gehiagoko krisi-kiebra egoera iragartzen dute zenbait adituk Espainiarentzako eta ikusiaz zernolako politiko zuzendari lotsagarri, ustel eta nazkagarriak dauzkaten, hamar urte baino seguruago hamabost izango dira. Eta zer egin horren aurrean? Euskal Herriko lurraldeak dira jasaten ari garen eta enpresa erraldoietako andre-gizonak eragindako krisi hau nolabait gainditzeko aukera bakarrak dauzkagunak eta hori gero eta nabarmenago ikusten ari da. Beraz, bi aukera dauzkagu: bata da, Gasteiz eta Iruñeko politiko morroi eta txorimaloen menpean jarraitu eta Espainiarekin batera amildegirako bidea hartzea euskaldunok ere. Eta bigarrena altzatzea da. Iraultza ekonomiko eta sozialari bide ema-

tea. Ebroko muga zaharrak berreskuratzea eta geure herriaren jabe eta arduradun egitea, milaka eta milaka urteetan izan garen gisa.

Euskal Hezkuntzaren alde, kalera!

Aiora Filarmendi eta Ibai Redondo

(Debagoieneko Euskal Herriak Bere Eskola)
Debagoiena

Debagoienean lan asko egin dugu euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko. Gaur egun, azken matrikulazio datuek erakusten duten bezala, ikasle guztiak euskarazko eredu, D eredu, matrikulatuta daude. Gainera, eskualde euskaldunean bizi izanik, eredu honen emaitzak onak direla baieztatu daiteke, salbuespenak salbuespen.

Bada, argiki esan nahi dugu aste honetan Isabel Celaak aurkeztu duen eredu hirueledunak arrisku larrian jartzen duela azken hamarkadetan egindako lan guztia. Zergatik? Eredu berriak euskara, gaztelera eta ingelesa maila berean jartzen dituelako: hirurei ordu kopuru bera eskaintzen zaie; eta hirurak dira irakats hizkuntzak; hau da, irakasgai bat baino gehiago eman behar da hiru hizkuntzetan. Honek esan nahi du eskola orduen %25 egingo dela hizkuntza bakoitzean eta soberan dagoen %25 ikastetxeak aukeratuko duela.

Eredu berri hau beste eredu guztiak (A, B, D) ordezkatzeko jaio da eta Isabel Celaaren arabera ez du atzera bueltarik. Gure aburuz, Frankismo garaitik euskarari egin zaion eraso larrienaren aurrean gaude, hezkuntza komunitatearen gehiengoaren kontra, A ereduaren antz gehiegi duen eredu inosatu nahi digute, ingelesaren mozorroa erabiliz.

Hau gutxi balitz, curriculumarekin ere erreformatu nahi dute. Curriculumean hizkuntzaz gain, zer ikasi eta nola ikasi zehazten da, edukiak eta baloreak. Azken asteotan, EAeko Tribunal Nagusiak *Euskal Herria* hitza balioz hustu du. Hau da, Euskal Herria ezin daiteke ikastetxetan 7 herrialdeei erreferentzia egiteko erabili, erabiltzekotan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa soilik izendatzeko erabili daiteke. Honek zer esan nahi du? Ofizialki ezingo dela Euskal Herriaren historia, geografia, gizarte edo erliebea ikasi.

Honegatik guztiagatik esaten dugu azken hamarkadako erasoaldi larrienaren aurrean gaudela eta erasoaldi honi indar osoz eta elkananean erantzun behar zaiola. Hori baino gehiago, guk geure hezkuntza sistema eraikitzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu euskara, euskal kultura eta balore aurrera-koiak transmititzeko. Ez dugu atzera pausu bat bera ere onartuko, alderantziz, Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema burujabea lortzeko pausuak ematen jarraituko dugu.

Daukagun panoramari erantzun eta hezkuntza sistema propioaren alde ikasle, irakasle, guraso eta herritar guztiak, ikastetxean eta kalean gure hizkuntza eta kulturaren alde konpromisoak berritza deitzen ditugu. Era berean, martxoaren 13an Bilbon egingo den manifestaldira joateko deia luzatzen dizuegu. Segi ba autobusean apuntatzera!

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko parkinga

Jesus Markaide
Arrasate

Azkenean, badirudi Arrasateko Udalak onartu duela arazo bat daukagula aparkalekuekin Debagoieneko Eskualde Ospitalean. Era berean, enteratu gara errudunak direla EAjko zinegotziren bat eta Osakidetza, eta plazan ardurak dituzten gainerako teknikari eta politikoak bere lana egiten dabilzala ondo baino hobeto.

Ospitaleak, anbulatorioak, etxebizitza babestuen bi blokeek eta errepideak osatzen duten lerroaren artean, lehengo tren geltokiak eta espaloiak hartzen duten espazioa kenduta, Arrasateko Udaleko planoen arabera, kalkulatu dut daudela 5.059 metro koadro okupatuta plazekin eta lorategiekin.

Ernets Neufert joan zen mendeko arkitekto eta paisajista alemaniar espetsuaren arabera, aparkaleku ireki batek hartzen du 19 eta 26,3 metro koadroko azalera gordina. Horrek ahalbidetuko luke gordetzea 192 eta 265 toki autoendako.

Kontuan hartuta gaur egun daudela 26 toki, egia izango balitz Neufert-ek dioena, eduki genezake espazio horretan beste 166 eta 199 arteko toki.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Gaurkotasun politikoaz eta Lopezen gobernuaz dihardu Aintzane Ezenarro Aralarko legebiltzarkideak. Legez kanporatutako ezker abertzalearen hausnarketa prozesuaren gainean esan du "aurrerapauso handia" dela Mitchellen printzipioak onartzea. Orain ETari "armak utz ditzala eskatzea" falta zaiela. Lopezen jardunaz dio "etengabeko inprobisazioan" diharduela.

Aintzane Ezenarro > Aralarko legebiltzarkidea

"Gehiengoak nahi duen aldaketaren kontrakoa egiten dihardu Lopezek"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Bergaran egon da martitzenean berbaldia egiten, Mikel Basabe alderdikide eta legebiltzarkidearekin batera. Aintzane Ezenarro (Getaria, 1971) dio gustatzen zaiola ibiltzea herririk herri, jendearekin bertatik bertara egoteko. Gaurkotasun politikoaz jardun dugu harekin.

Zelan hartu duzu Arnaldo Otegi Auzitegi Nazionalak jarritako zigorra?

Terrorismoaren gorazarre egitea ez da delitu herrialde demokratiko aurreratuetan. Baina hemen, ezohiko legeak dauzkagu... Estatuaren aldetik, bada asmo bat Batasunaren inguruko eztabaida prozesuan beste oztopo bat jartzeko. Hori horrela baldin bada ere, justu kontrakoa egin behar da: oztopo bat baldin bada, ez daitezela joko horretan erori eta aurrera egin dezatela.

Ze balorazio egiten duzu legez kanporatutako ezker abertzaleak egin duen hausnarketa prozesuaren ondorioen gainean?

Prozesuaren abiapuntua asmo zintzoez egindakoa dela iruditzen zait. Indarkeria estrategia onartzetik edo, gutxienez, modu kritikoa ikustetik, bide politiko soilen aldeko apustua egitera pasatzea. Eta eztabaida prozesuaren ondorioak ikusita, Mitchellen printzipioak onartzea aurrerapauso handia da. Mitchell dio, besteak beste, indarkeriari eta indarkeriaren mehatxua erabiltzeari uko egin behar zaiola eta hori Batasunak bere egitea positiboa da. Orain, iruditzen zait horrek beste ondorio batzuk ekarri behar dituela: ETari eskatzea bide bera har dezala eta Mitchellen printzipioak bere egin ditzala. Ez zait iruditzen uesteko edo balizko atentatu baten zain egon behar denik atentatu horren aurrean ze posizio hartu behar duten ikusteko. Edo ETak armak uzte ditu edo Batasunak eskatzen dio ETari bide hori har dezala. Hori oraindik ez da eman eta espero dut lehenbailehen gertatzea.

Ze iritzi daukazu joan zen astean aurkeztu zen Independentistak plataformaren gainean?

Formetan huts egin eta edukietan atzera egin dute. Plataforma hau bultzatu dute EA eta Batasuneko pertsona ezagunek.

Testu bat adostu eta, ondoren, Alternatibari eta geuri aurkeztu digute. Aralar eta Alternatiba ere gonbidatu dituzte bat egitera guretako nahikoa ez den testu itxi batekin. Aralarrekin harremanak nahi dituenak, elkar errespetutik eta errekonozimendutik abiatu behar da eta ez da hori gertatu kasu honetan. Bestetik, edukiari dagokionez, zapatuan irakurri zuten testuarekin, Batasunaren Zutik Euskal Herria testua baino atzerago joan dira. Kezkagarria iruditzen zait. Testu horretan ETari egiten zaion aipamen bakarra da: "Ez gaude ETaren aginduetara eta ETA ez dadila izan aitzakia independentisten elkarlanerako". Baina, ETA bada oztopo independentisten elkarlanerako, ez aitzakia. Esan beharrean ETari Mitchell printzipioekin bat egin ezazu, esaten zaigu besteoi ETA ez dadila izan aitzakia. Ez dut ulertzen zertara datorren zapatuko Independentistak taldearen testu hori. Harriduraz hartu dut. Ateak irekita dauzkagu elkarlanerako, baina printzipio argiekin. Esaterako, hauteskundeetara baldin bagaude, ezker abertzale eta bakezalea, indarkeriaren kontrakoa. Bestetik, abertzale guztion elkarlana beharrezkoa da, inor baztertu barik.

Uste duzu legez kanporatutako ezker abertzalea ordezkatu egongo dela hurrengo hauteskundeetan?

Nahiko nuke. Hala behar duelako. Ez orain, barne prozesua egin dutelako, baizik eta herriarrok garelako ipini behar dugunok aukera bat edo bestea, bere tokian, ez Alderdien Legeak.

Patxi Lopezek 10 hilabete egin ditu Jaurlaritzan. Zelan baloratzten duzu sozialistek egindako lana?

Ezaugarri nagusia da inprobisazioa. Sortu zen kanpaina esandakoaren kontra, hau da, berba janez; joko arauak trukatu, sektore bat kanpoan utziz; eta, gizartearen gehiengoak eskatzen zuen aldaketaren kontrakoa eginez. Gobernu hau da, trantsizioaz geroztik, kontrakotasun gehien sortzen duen euskal gobernu. Nahiz eta PSE-EEK eta PPK esan, behin eta berriz, aldaketa egon dela gizarteak aldaketa eskatzen zuelako. Programarik ez duen gobernu batean aurrean gaude. Inprobisazio permanente batean. Hedabideei begira dago



Aintzane Ezenarro, Bergaran, martitzenean.

JULEN IRIONDO

INDEPENDENTISTAK

"Ez dut ulertzen zertara datorren zapatuko Independentistak taldearen testu hori"

DONOSTIAKO METROA

"Jendeak ez du sekula eskatu metrorik Donostiarako; ez da eskari sozialik egon"

governatzen eta ez legebiltzarrean programa eztabaidatuz. Kriari aurre egiteko, esaterako, ez du neuririk planteatu.

Aholku batzordearen gainean zer iritzi?

Hori da inprobisazioaren beste adibide bat; Aholku batzordea osatu du, kideen izenak filtratu ditu hedabideen bidez. Eta ez dago ia emakumezko eta enpresari eta bankako gizonak daude batik bat. Ustez, ezkerreko alderdia den gobernuak langileen ordezkari bi bakarrik dauz

ka ahokulari moduan, UGTko eta CCOOko bana. Lotsagarria.

ETB berria gustuko duzu?

Egia esan, ez naiz oso telebistazalea, edo, hobeto esanda, ez daukat astirik telebista ikusteko. Baina, ikusi dudana, oraingo ETB ez dut batere gustuko. Nafarroan ETB ikustea arriskuan dago, tertuliakide guztiak arrotzak egiten zaizkit, Erregearen diskurtsoa... Ikurren Euskal Herria egitea leporatzen zigiten abertzaleoi eta gureak ez diren ikurrak sartzeko ahalegintan dabilta etengabe. Ondorioa da audientzien beherakada. Albistegiei dagokionez, eduki politikoak kendu nahi dituztenez, hasierako informazio guztia da eguraldia, Afganistan... eta hemengo politika kontuak zazpigarren albiste dira. Ez dute eztabaida politikorik nahi eta espainolen ikurrak sartzeko dituzte. Normalizazioaren izenean. Aldaketa egin dute ikurren bidez.

Debagoieneko tranbia atzera egingo da, edo, okerrean, behin betiko agur esan behar duogu. Zer deritzozu?

Beti egon gara Debagoieneko tranbiaren alde eta hainbat galdere egin ditugu Legebiltzarrean, baina ikusi dugu Arriola Garraio sailburua gaia luzatzen dabilela, harendako ez dela lehenasunezkoa. Proiektuak alegazio asko jaso dituela eta horiei erantzuteko astia behar duela esan du. Aitzakia hutsa.

Donostiarako metroa, ostera, lehenasunezkoa...

Hauteskundeetara begira dago, Arriolak bere burua aurkeztuko duelako, seguruen, diputatu nagusi izateko. Alderdi sozialistak irudikatu nahi du haiek gobernuan daudenean bakarrik bultzatzen direla inbertsioak Gipuzkoan. Diote orain arte Bizkaita joan direla inbertsiorik nagusiak eta nahi dute irudikatu Gipuzkoaren alde daudela, haiei esker egingo direla azpiegitura handiak. Bultzatu nahi duten lurraldeen arteko borroka horren aurka nago. Donostiako metroak ez dauka ez bururik ez hankarik planteatzen dabilzan moduan. Oraingo tren sarea egokitu eta hobetu beharko litzateke. Jendeak ez du sekula eskatu metrorik Donostiarako. Ez da eskari sozialik egon. Zerutik bezala erorita jarri zigiten proiektua. Harrigarria da.

Kutxa Inbertsio Irtenbideak



6 Up Gordailu Berria. Inbertsio ezin tentagarriagoa.

6 Up Gordailu berria errentagarritasunik gozoena lortzeko osagai-konbinazio ezin hobeaz prestatua baitago. Zatoz **kutxara** eta dasta ezazu aho-zapore ezin gozoagoa utziko dizun inbertsio hau.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

LABORATEGI HOMEOPATIKOA

(JABIER BARRENETXEA FARMAZIA)

Oñati / Kale zaharra 1 / 943 78 32 14

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe ezk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Joseba Iglesias gogoratzeko hainbat ekitaldi izan dira > **13**



> **OÑATI**
Piboteak igo eta jaisteko proiektu aitzindaria dago martxan > **20**



> **ARETXABALETA**
Udalak 11 milioiko aurrekontua onartu du; %37 jaitzi da iaztik > **22**



> **ARAMAIO**
Kiroldedia berritzeko aurreproiektua gertu dago > **26**

BERGARA > KOMUNIKAZIOA

Kultura etxeko wi-fi zerbitzuak oso harrera ona izan du ipini zutenetik

HIRU HILABETE

Abenduan ipini zuten wi-fia; oraingoz, denondako zabalik dago, egun osoan

OHIKOA

Bergarako zenbait tabernak ere ematen dute zerbitzu hori; gero eta ohikoagoa da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Wi-fi sareak hedatzen jarraitzen du Debagoienean, udalen eta era-kunde pribatuen eskutik. Sare horrekin bat egiten azkena, orain arte, Bergarako Udala izan da, kultura etxean wi-fi zerbitzua ipinita. Abenduan ipini zuen, eta, oraingoz, Bergarako udal zerbitzu bakarra da wi-fia doan ematen duena. Bada, oso harre-ra ona izaten dabil, udal ardura-dunen esanetan. Estaldura du kultura etxearen eraikin osoak, eta kanpoko inguruak ere bai; hala, eguraldia lagun denean, kultura etxea dagoen parketik ere konekta daitezke herritarrak Internetera, doan, eskuko ordenagailua erabilita. Oraingoz, erabilera askea da eta egun osoan dago aktibatuta sarea. Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker jarri da zerbitzua, eta 9.000 euroko kostua izan du.

Debagoieneko kultura etxe gehienetan badago wi-fia, eta orain, Bergarakoan ere bai. Kultura zerbitzuburu Mikel Elkoroberezibarrek hauxe dio: "Orain arte bazegoen zerbitzua, baina oso mugatua zen, banda oso estua zelako. Hortaz, bazegoen premia bat. Harrera oso ona izan du, neurri positiboa izan da".

Liburutegiko arduradunek ere balorazio ona egiten dute. Mila Agirrezabal arduradunak honela dio: "Eramateko ordenagailua, poltsikoko telefonoa... gero eta tresna garrantzitsuagoak dira, eta toki publikoetan wi-fia izatea ere ohiko bihurtu da.



DBHko 4. mailako ikasle batzuk Bergarako liburutegian Interneten nabigatzen.

LEIRE KORTABARRIA

Liburutegira ere, gero eta jende gehiago etortzen da bere ordenagailuarekin. Abendu inguruan, batez ere unibertsitate ikasleak etortzen ziren; gerora, DBHkoak, lanera datorren jendea..."

ESANAK

"Premia bat zegoen, eta oso ondo hartu du jendeak; neurri positiboa izan da"

Mikel Elkoroberezibar
> Udaleko Kultura zerbitzuburua

"Liburutegira gero eta jende gehiago dator eramateko ordenagailuarekin"

Mila Agirrezabal
> Liburutegiko arduraduna

TABERNA ETA KAFETEGIETAN

Bergaran, oraingoz, kultura etxea da zerbitzu hori eskaintzen duen udal eraikin bakarra; baina wi-fia oso hedatua dago herrian, eta zerbitzu pribatu batzuek ere ematen diete euren bezeroei doan nabigatzeko aukera. Hala, beste herrialde batzuetan oso ohikoa den fenomeno bat hemen ere hedatzen dabil: taberna, kafetegi eta halakoetan jendea bere esku ordenagailuarekin nabigatzen ikustea. Hala, Cafe Bergara kafetegiko -lehen Lasa zena- arduradunek ematen dute zerbitzu hori uztaila ezker. Doakoa da, eta bezeroek pasahitza eskatu behar dute. "Bezeroendako beste zerbitzu bat da", arduradunek esaten digutenez. Bergarako wi-fi mapa egiten ibili ziren joan den maiatzean Uni Eibar-Ermua institutuko irakasle eta ikasle batzuk, eta honako helbidean ikus daiteke non dagoen wi-fia Bergaran: www.tagzania.com/tag/bergara-wifi.

Bestalde, bailaran, Arrasaten dago oso zabaldua wi-fia. Kulturaten, adibidez, kultura etxe berria egin zenetik dago wi-fia, eta herriko sei tabernak ematen dute zerbitzu hori. Norberak era-

bakitzen du zelan eman zerbitzua: hala, leku batzuetan, pasahitza eskatu behar da, eta ordu kopuru mugatu baten konekta daiteke; beste batzuetan, erabilgarri dago egun osoan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Huzezi da aitzindarietako bat, eta udaberri partean zerbitzua handitu egingo dute

Ikastetxeetan ere gero eta normalagoa da wi-fia izatea, hainbat erabilpen aukera edo modalitatekin; sarritan, irakasle eta ikasleendako ez ezik, kanpoko edozeinendako ere zabalik dago. Horrela gertatzen da Mondragon Unibertsitateko Huzezi fakultatean. Hango wi-fia hainbeste erabiltzen denez, udaberri partean zerbitzua handitzea aurreikusten dute, jende gehiago konekta ahal izan dadin. Ikastetxeendako zerbitzua, pribatua, eta kanpokoendakoa, publikoa, dituzte.

Bost bat urte doroate wi-fiarekin, eta ikasleen %20ek erabiltzen dute. "Parekatuta daude eramateko ordenagailua duten ikasleen kopurua eta wi-fia erabiltzen dutenen kopurua", dio Edu Gonzalez arduradunak.

BAILARAKO KULTURA ETXEAK

Kultura etxeei dagokienez ere, erabilpen mota desberdinak daude. Hala, Arrasaten, adibidez, egun osoan dago zabalik sarea; Aretxabaletan, berriz, pasahitza eskatu behar da eta bi orduan konekta daiteke norbera.

JENDARTEA > EMAKUMEAREN EGUNA

Azoka, lasterketa, murala eta musika, denetarik dago bihar

Emakumeen Eguneko ekitaldi gehienak bihar egingo dira

Berritasun nagusia: 'Takarraran'-en ostean egingo den murala

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Astelehenean ospatuko da Emakumeen Nazioarteko Eguna, Martxoaren 8a. Arrasaten badira urte batzuk aldarrikapen egun berezi horren inguruan hainbat ekitaldi antolatzen direna, eta aurtengoa ez da salbuespena. Ekitaldi gehienak bihar izango dira, eta Udaleko Berdintasun Sailak kirol eta kultura arloekin batera antolatu ditu. Hala, *Takarraran* lasterketak bigarren edizioa izango du eta kontzertu, antzerki eta erakusketarik ez da faltako.

Ekitaldi bat egin da dagoeneko: *Emakumeak eta bertsolaritza* izenburu, mahai-inguru interesgarria gidatu zuten Maialen



Takarraran egingo dute emakumeek, 12:30ean, Seber Altuben.

GOIENKARIA

Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariek. Oihana Aranburu Udaleko Berdintasun Saileko arduradunak jakinarazi duenez, 80 pertsona inguru bildu ziren Kulturaten.

"PREST GAUDE ALDAKETARAKO"

Berdintasun Sailak *Prest gaude* leloa aukeratu du aurten: "Prest gaude etorkizunerako, prest gaude aldaketakarako; lelo hori aukeratu dugu, jendea motibatuzeko".

Aurreko urteetan irekia zen leloa; hala ere, aurten 52 kartel jaso dira eta Udala pozik dago horregatik.

Berdintasun Sailak Martxoak 8ko ekitaldiak beste sail batzuekin komunean antolatze-ko apustua berretsi du; kirol eta kultura arloak, kasu.

'TAKARRARAN'-EK, 2.800 METRO

Kirol ekitaldi aipagarriena *Takarraran II*. emakumeen lasterketa izango da, 12:30ean. Aranburuk honakoa aurreratu du: "Ez da oso gogorra izango, ezta simbolikoa bakarrik ere, parte-hartzaileei esfortzu bat ekarriko die". Izan ere, 2.800 metro izango ditu ibilbideak eta Portaloian hasi eta bukatuko da. Egunean bertan eman ahalko da izena. Gainera, SUDC elkarteok salda banatuko dute lasterketa amaitu ondoren, Biteri plazan. Iragarpenen arabera, lasterkariak ez dute eguraldia lagun izango, baina ziur gaude merezi izango duela. Bestalde, aurtengo berritasun nagusia da 13:00etan Biteri plazan egingo den hasiko diren murala, Mundu Martxaren aldekoa.

Martxoaren 8ko egitaraua

6, zapatua

10:00etan hasita: Emakumeen Azoka, Seber Altuben.

12:30: *Takarraran II*. emakumeen lasterketa.

13:00: Emakumeen Mundu Martxaren aldeko murala, Biterin.

20:00: Anariren kontzertua Amaia antzokian.

8, astelehena

18:00 *Ellas bailan solas* kale antzerkia Seber Altuben.

19:00 Manifestazioa, Seber Altuben hasita.

14, domeka

19:30 *El club de las mujeres invisibles* antzezlan, Amaia antzokian.

17, eguaztena

19:00 Fatma Galia idazle eta kazetari sahararraren liburuaren aurkezpena eta Saharako emakumeen egoeraren gaineko berbetaldia: *Nada es eterno*, Kulturateko areto nagusian.

9tik 26ra bitartean

Martxoaren 8ko kartelen erakusketa, Emakume Txokoa.

Bestalde, ohitura bihurtu den emakumeen azokak ere ez du hutsik egingo. 45 saltoki inguru izango dira Seber Altuben eta denetarik egingo da salgai. 10:00etan hasita.

INGURUMENA > ARRASATEKO BIDE PUBLIKOAK

Bideen inbentarioa egiteko herritarren parte-hartzea behar du Arrasateko Udalak

Asteartean erakusketa zabalduko dute, azalpenak eman eta ekarpenak hartzeko teknikari eta guzti

UBANE MADERA > ARRASATE

Erakusketa baino gehiago da martxoaren 9an Kulturaten zabalduko dutena. Arrasateko bide publikoen inbentarioa egin du Udalak. Planoetan txertatu eta Kulturaten ipini dute martxoaren 28ra arte (17:30-20:30, zapatu, domeka eta jai egunak barne).

INFORMAZIOA GALDU AURRETIK

Helburua, baina, ez da bakarrik herritarrei erakustea zeintzuk diren Arrasateko bide publikoak; ekarpenak batu gura dituzte: "Parte-hartzea eskatzen da. Joan deneko 50 urteotan Arrasatek izan du aldaketa oso handia. Eraikin berriak egin dira, azpiegitu-

rak, bideak... eta lehengo bideak gutxiago erabiltzen direnez, asko galtzen joan dira. Eta lehengo egoera bizi izan duten base-ritar eta herritar askok informazio hori gorde egiten dute; beraz, haien ekarpena inportantea da. Datozen 10-20 urtetan, seguru asko, informazio hori guztia galdu egingo da. Horregatik egin dugu hiru asteko erakusketa, teknikari talde eta guzti; gero osoko bilkuratik pasako da gaia, eta onartzen bada, Arrasateko bide publikoen sarea izango dugu. Gai sakona da", adierazi du Pello Garai udal teknikariak.

Hain justu, azalpenak eman eta ekarpenak hartzen egongo den teknikari taldea honako egunotan izango da Kulturaten: martxoaren 9, 10, 11, 12, 13, 16, 17, 23, 24, 25, 26 eta 27an.

BI MOTAKO BIDEAK

Bide inbentarioak egiten aditua den Sento Taldeak (Lekeitio) egin du Arrasatekoa: "Bi urteotan informazioa batzen ibili dira: orain ia 100 urte egindako beste inbentario batetik, udal artxiboko hainbat dokumentutik...

DATUA

132

BIDE

Porlandutako eta lurrezko bideak jaso dituzte bideen inbentarioan: 132 bide, guztira. Pasorako bideak hartu dituzte kontuan: "Sorbidetako, gurutze-bideak eta gurdibideak".

Horren ostean egin dugu planoan, kontatu du Garaik.

Planoan bi bide mota daude: "Porlandutakoak: baserrietara doazenak, edo mendian garrantzi apur bat daukatenak... horiek dira 43. Eta porlanik ez daukatenak, lurrezkoak, 89 dira, gutxi gorabehera. Kasu horretan jo dugu entitate apur bat duten bide-etara, lehen esaten zitzaizen sorbidetako, gurutze-bideak, gurdibideak... Horrez gain, sartu ditugu ezagunak diren beste batzuk, adibidez, Udalatxera doazenak".

MENDIZALE ETA BESTELAKOENAK

Azken horren harira, mendizaleen ekarpenak ere baliagarriak izan daitezkeela uste dute, eta haiei ere egin diete parte hartzeko gonbita, "eta jakina, ekarpen edo zeresanen bat duen edozeini".

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Elkano 3 (Zigarrola) • Arrasate



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:

Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ISTRIPUA > GAZTE BAT HIL DA

Joseba Iglesiasengatik dolua eta samina

Murala, lore eskaintza, ikasleen batzar publikoa eta beste egin dituzte asteon Arrasaten

UBANE MADERA > ARRASATE

Joseba Iglesias Gonzalez gaztearen heriotzak gurean utzi duen dolumina bizi-bizi islatu da oraingo asteon Arrasaten.

Esanguratsua da, adibidez, AGAKOren izenean gaztetxearen azpiko aldean egindako murala; hura egiten Josebaren lagun askok askatu zituzten barrenak. Martitzen iluntzean, berriz, herriko hainbat taldek lore eskaintza egin zuten muralean, herrigintzan egindako lanagatik esker ona adieraziz, eta kandelak ere ipini dizkiote.

Esanguratsua da, baita ere, Basati taberna (Josebaren lan lekua) itxita egon izana hainbat egunez.

Esanguratsua da, baita ere, Mondragon Unibertsitateko ikas-kideak Eskola Politeknikoaren atarian elkartu izana, isiltasunean, Joseba Iglesiasen argazkia aurrean, eta hark utzitako oroitzenak buruan.

Eta esanguratsua dira, baita ere, hainbat komunikabideren bitartez plazaratzen dabilen samin mezuak; adibidez, *Goiena.net* atarian.

OROITZAPEN EKITALDIAK

Eta datozen egunotan ere dolumin keinu eta ekimen gehiago ikusiko ditugu. Adibidez, Besaide (Arrasate) eta Aloña Mendi (Oñati) espeleologia elkarteek adierazi dute aurrerago ekitaldi espeleologiko bereziren bat antolatzeko asmoa dutela Joseba Iglesias gogoratzeko. Herrigintzan diharduten beste talde askok ere asmo bera dute buruan.


Izan ere, kolpe gogorra izan da domeka goizaldean Arrasatek hartu zuena. "Sinistu ezinda" dabilta oraindik 19 urteko gaztearen lagun eta ezagun asko; "burua jaso ezinda" beste asko.

Domeka goizaldean (02:30ean) aurkitu zuten Joseba Iglesiasen gorpua, Udalatzen jausi eta hilda.



Uarkapeko paretan murala eta lore eskaintza egin dute talde askok. IMANOL SORIANO

MEZUAK 'GOIENA.NET' ATARIAN



Joseba Iglesias.

GOIENKARIA

Gogoratzen dut bere berotasuna irrifarrea eta algara erraz irtetzen zitzaizkion barreak altxortzat ditut nik gordeak.

Iluntz

*Ze mina sentitu dudan zu zinela jakitean...
Estela luze bat uzten dozu atzean,
19 urtetan bide luzea egin dozu ta.
Zure txoko kuttunean zaude betirako...
Baita gure bihotzetan ere. .*

Blanca

*Zure argixe ez da sekula itxungiko,
ixutuizu zeruan izar bat, laister izango gara danok hor-ta, aspaldi bota bariko juergatzarra botaku, zeruko izar danak ixutuz!*

Txplzk

Olatu artean agurtuko zaitut, hori baita nire lekuri miragarriena, baina badakit zaila izango dela zu ahaztea, gurean utzitako kresala goitik behera busti baigaitu.

Lur

oharrak

UDALA

> Inaugurazioa Musakolan

Musakolako Haurreskola gaur inauguratuko dute; 16:00etan da hitzordua.

ELKARTASUNA

> Bihar da pintxo-potea

Joan den zapatuko haize-aldiarengatik bertan behera utzitako pintxo-potea bihar egingo dute, Biterin, 18:00etan. Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta gobernuz kanpoko Harreman erakundeak antolatuta, batutako dirua Haitira bidaliko dute, Mesedeetako mojen bitartez erabil dezaten.

ELKARTEAK

> Batzar orokorra Ziar-Olan

Domekan, martxoaren 7an, egingo dute urteko batzarrak Ziar-Ola elkarte gastronomikoan. 12:00etan da lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena. Besteak beste, elkartearen kontu ekonomikoak landuko dituzte eta 2010-2012rako lehendakari berria aukeratu dute.

GAZTEAK

> Ludoteka ibiltaria

Bedoñaben izango da ludoteka ibiltaria bihar, 11:00etatik 13:00etara 3-12 urtekoendako eta 13:00etatik 14:00etara 1-8 urtekoendako.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

XAKEA

Arrasate San Andres Euskal ligara begira

Geratzen diren hiru jardunaldietan eutsiz gero Euskal Ligara itzuliko dira

X.U. > ARRASATE

Dagoeneko hiru urte igaro dira Arrasate San Andres xake taldea Euskal Ligatik jaitsi zenetik, eta Arrasateko mutilek eskura dute berriro ere gora egitea. Taldeko ordezkariak aurreikusten dute geratzen diren hiru norgehiagokak ez direla bereziki zailak izango, baina etxekoek aurreikusten dute zailtasunak izango dituztela taldea osatzerako orduan.

Arrasate San Andres taldea osatzen dute Luis Angel Ortegak, Josu Tornayk, Fernando Ortegak, Txema Hernandok, Asier Etxagibelek eta Roberto Villarrekin. Hernandok eta Etxagibelek jardunaldi guztietan jokatu dute, eta Ortega anaia, Tornay eta Villar txandakatzen ibili dira.

Hala, oraingo asteburuan Easo izango dute kontrario, kategorian behealdeko postuetan dagoen taldea.

HASIERA MAKALA

Arrasatekoek txarto hasi zuten denboraldia, eta hala ere garaiz erreazionatu eta lehenengo posturaino salto egiteko gauza izan da. Lehenengo hiru kontrarioen aurrean -Urnieta, Beraun Bera eta Baiona- galdu egin zuten baina laugarren jardunaldian etorri zen erreakzioa, Hondarribian. Orain, hiru final geratzen dira.

> ATLETISMOA

Urtzelaik marka ona Espainiako txapelketara begira

Joan den asteburuan parte hartze libreko saioak egin zituzten Anoetan, eta Oihane Urtzelaik salto ona egin zuen Espainiako txapelketara begira (11,14 metro), salto hirukoitze modalitatean.

Gainontzeko atletei dago kienez, Jian Chenek 7.68 marka egin zuen 60 metroko lasterketan, eta Eukene Dorronsorok 8.27 segundoko marka. Maialen Axpek 3,51 metroko saltoa egin zuen -gazte mailako Euskadiko errekorra-, eta Lore Marrek 3,40 metroko saltoa. Oraingo asteburuan Maria Jose Gil Espainiako txapelketan izango da.



Kepa Isasmendi, Askartzaren kontrako lehia.

GOIENKARIA

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Egiaren kontrako lehia noiz jokatu erabaki artean, bihar Gasteizera

Edu Orgazen mutilek Sucesores de Agirreren kontra jokatu dute bihar Gasteizen; ez dute erabaki atzeratutako partidua noiz jokatu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Ziklogenesi famatua tarteko, joan den asteburuan bertan behera utzi zuten Iturripen jokatu beharreko Euskadiko txapelketako norgehiagoka. Eta ez zen nolana partidua, Ford Mugarrindako (32) -eta Egiarendako (34)- urteko lehia garrantzitsua zen, bi talde horiek kontrario zuzenak dira-eta igoera faserako txartela ematen duen bigarren postuaren lehia.

Edu Orgazek garbi dauka partidua atzeratzeak ez diola Arrasateko taldeari inongo mesederik egin: "Horrelako partidua bat prestatzeko aste barruko entrenamendu saioak bereziak egiten

ditugulako, saio suabeagoak. Ez dut uste jokariengan eraginik izango duenik, baina egia da partidua oso ondo prestatuta geneukala, eta atzera berriro ere lan hori egin beharko dugula. Gainera, jakin bagenekien zale asko joan behar zirela Iturripera taldea animatzera".

ASTEBURUAN NAHIAGO

Orgazek nahiago du atzeratutako partidua hori asteburuan jartzeari, nahiz eta asteburu horretan *dobletea* egin beharko duten: "Zaleek ere partidua hori ikusi nahi dutelako. Izan ere, aurreko egiten ari garen denboraldi txukunaren aurrean, Egiaren kon-

tra asko izango dugu jokoan, eta badakigu jendeak partidu hori ikusi egin nahi duela. Eta ez hori bakarrik, gureta ere erosoagoa da, aste barruan jokalariek lan egin behar izaten dutelako".

Egia mendeen hartuta ere, garaipen horrek gutxirako balio du geratzen diren gainontzeko lau partiduetan hanka-sartzerik balego: "Puntu horiek ere berdin balio dute, eta badakigu zapatuan Gasteizen asko kostako zaigula kontrarioa menderatzea. Baliteke azken asteotan behera egin duen taldea izatea, ligan ezer gutxi egin daitekeela ikusterakoan jokalariek ilusioa galtzen dutelako, baina argi, etxean oso indartsu daudelako".

Kontrario zuen Egiak ere lau jardunaldi horietan ez du izango akatsik egiteko tarterik: "Eta oraindik liderraren kantuan jokatu behar dute Egiakoek".

Zaldibar

EMAITZAK

AT Celaya-Iriztu	7-3
Aldapa-Abokajarro	4-1
Dublin-Steaua del Grifo	15-1
Dribling-Katenaxio	15-3
Lasagabaster-Fidel & Disc	5-4
Cipris-Ekaintz	2-2
Betrayer-Komando Alpagat	1-0
McAwenDauen-Iluntz	5-3

PARTIDUAK

Martxoak 6, zapatua	EPAILEAK
09:30 Lasagabaster-Cipris	Iluntz
10:30 Betrayer-Iluntz	Komando Alpagat
11:30 Komando Alpagat-Iriztu	Betrayer
12:30 McAwenDauen-Abokajarro	Iriztu
13:30 AT Celaya-Steaua del Grifo	Abokaja.

Martxoak 7, domeka	EPAILEAK
10:30 Aldapa-Katenaxio	Fidel & Disc.
11:30 Dublin-Fidel&Disc.	Adapa
12:30 Dribling-Ekaintz	Dublin

SAILKAPENA

	P	J
1. Dublin	30	11
2. Dribling	28	11
3. Iriztu	25	11
4. Betrayer	23	11
5. Abokajarro	20	11
6. AT Celaya	20	11
7. Lasagabaster	20	11
8. Cipris	19	11
9. Fidel & Disc.	15	11
10. McAwenDauen	15	11
11. Ekaintz	13	11
12. Aldapa	8	11
13. Iluntz	5	11
14. Katenaxio	3	11
15. Komando Alpagat	0	11
16. Steaua del grifo	0	11

Zigorra jasoko du Komandok

Joan den astean Komando Alpagat taldeko mutilik ez ziren jokatu beharreko partidura azaldu, eta horrexegatik zigor gogorra jasoko dute: sei puntu gutxiago, eta fidantza bariak. Sailkapenari begira, baina, talde horrek ez du alde handirik igarriko, sailkapenaren atzealdean zeuden-eta.

Asteburuko partidua, goizez

Oraingo asteburuko partidua guztiak goizez jokatu dituzte, zapatuan eta domekan.

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA

943 711768

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MUSIKA > AURKEZPENA

Never Surrenderren disko berriko kantuak zuzenean entzuteko aukera, bihar

Aurrez data jarrita egon arren, kontzertuarekin Joseba Iglesias gaztea omendu gura dute

A.E. > ARRASATE

Never Surrender taldeak *11 istorio, broncka ta gau ero* disko berria aurkeztuko du bihar Gaztetxean, 22:30ean. Joseba Iglesias gaztearen heriotzaren ondoren zalantza izan dute kontzertuarekin aurrera egin edo ez; erabaki dute aurrera egitea.

GARAGARDOA, DOAN

Hala ere, aldaketa txiki batzuk izango du aurreikusitakoak. Ez da sarrerarik ordaindu behar; eta, hasiera batean taldeak jarri behar zuen garagardoa Gaztetxeak jarriko du.

LABETIK ATERA BERRIA


Diskoa labetik atera berria da; hain zuen, astelehenean jaso

zuten taldekideek diskoa. Disko landua da arrasatearrek aurkeztuko dutena. Arrasateko Shot! estudioan grabatu dute eta ahotsak, berriz, Aretxabaletako Lazkano estudioan sartu dituzte. Kantu borobilduak dira, taldearen bilakaeraren adierazle garbiak, duda barik.

Zortzi urteko ibilbidea du Never Surrender taldeak, eta diskoan hori islatzen da.

8 EUROTAN SALGAI

11 istorio, broncka ta gau ero taldearen hirugarren lana da. 1.000 kopia atera dituzte, digipack formatuan. Jarriko dute salgai Iluntz, Irati eta Basati tabernetan. Zortzi eurotan salduko dute disko berria.



Never Surrender taldeko kideak.

JULEN ELORTZA

> MUSIKA

'S Patilla' bakarlariak kontzertua eskainiko du Iluntz tabernan datorren egunean

Ez da lehenengo aldia *S Patilla* bakarlariak Arrasaten kontzertua emango duena. Aurretik ere egin ditu kontzertuak, bere abestiak ezagutzera emateko. Oraingoan, Iluntz tabernan izango da kontzertua. Gitarraren laguntzarekin igoko da Iluntz tabernako oholtzara bakarlarria; han, berak sortutako kantuak eskainiko ditu. Esan bezala, datorren egunean, hilaren 11n izango da kontzertua, 20:30ean.

"Nik neuk sortutako abestiak joko ditut, guztira ordubete inguruko emankizuna izango da", adierazi du S Patillak datorren eguneko kontzertuaren berri ematerakoan.

> KONTZERTUA

Musika surrealista eta umorea bihar, zapatua, Mama Ladillak 3 aretoan eskainiko duena

Mama Ladillak kontzertua eskainiko du, bihar, zapatua 3 aretoan. 23:00etan hasiko da kontzertua; sarrerak aurrez salgai daude 10 eurotan *kulturalive.com* atarian, edo kontzertuaren aurretik leihatilan 12 eurotan.

Mama Ladilla Juan Abarca, gitarra eta ahotsa; Javi Rojas, baxua; eta, Ferrok, bateria, osatzen dute. Hainbat pop eta rock taldetan ibili ondoren, 1.994an sortu zuten Mama Ladilla taldea. *Directamente a la basura* izan zen euren lehen lana; orduetik ez dira geratu. Azkeneko lana 2005ean atera zuten: *Autorretrete*.

Izaskun Alvarez > Artista

"Arrasateko emakumeak langileak dira, indar handiko emakumeak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Emakume txokoak antolatuta Izaskun Alvarez artista eta barne diseinatzaile donostiarrak *Grafikoki esparru publikoa aktibatzen* ikastaroa emango du. Martxoaren 12an hasiko da ikastaroa; emakume txokoa izango da.

Emakumea eta artea izango da ikastaroa. Harreman berezia dute emakumeek artearekin?


Artea berez tresna oso botereatsua da emakumearendako. Hortaz, beharbada, harreman oso indartsua sortu daiteke emakumearen eta artearen artean.

Zer da ikastaro horretan landuko duzuen?

Ikastaroan hiriko interbentzioak landuko ditugu. Aurkezpen bat egingo dugu arteari buruz, testuinguruan sartzeko. Gero, hirian sartuko gara eta interbentzio espazialak landuko ditugu. Ezagutuko ditugu gure espazioan egin daitezkeen interbentzioak; bai, espazio sozialean eta baita espazio fisikoan ere.

Hiriko interbentzioak diozuenan zer esan gura duzu?

Adibidez, lehenengo ezagutu behar dugu testuingurua, Arrasate kasu honetan. Hala, ikusiko dugu artearekin zela landu daitezkeen, ez bakarrik fisikoki baita ere kontzeptualki.



Izaskun Alvarez.

GOIENKARIA

"Emakumeei erakutsiko diegu nola kokatu behar duten arte sormenean"

Nolako aukerak ikusten dizkiozu Arrasateri?

Aukera handiak. Arrasateko emakumeak borrokalaria eta langileak dira, indar handikoak. Oso interesgarriak dira. Arrasate ere, hiri bezala oso interesgarria da; hainbat interes sozial dauzka.

Nori zuzenduta dago?

Edozein emakumeri zuzenduta dago; emakumeak ez du zer-

tan gaitasun berezirik izan behar. Sarrera bat egingo dugu eta erakutsiko dugu nola kokatu behar duten arte sormenean eta testuinguru horretan. Gogoia izatea nahiko da ikastaroan parte hartzeko.

Nolako presentzia du emakumeak gaur egungo artearen munduan?

Artearen munduan beti izan dute presentzia garrantzitsua emakumeak, baina beti gizonok okupatu dute testuingurua. Orain, ikusten dugu emakume mordoak dabilela galerietan euren lanak jartzen.

ANTZERKIA ETA ZINEMA > MARTXOKO KULTURA GIDA

Vaiven taldearen 'El club de las mujeres invisibles' lana, hilaren 14an Amaian

A.E. > ARRASATE

Martxoko kultura gida ekitaldiz josita dator; batez ere, emakumearen egunaren harira antolatu dira ekitaldiak, baina badaude bestelako hitzorduak ere.

Aipatzekoa da, hilaren 14an Amaia Antzokian egongo den antzerkia: Vaiven taldearen *El club de las mujeres invisibles*. 19:30ean hasiko den emanaldian kontatuko dute emakume talde baten gorabeherak, botilak esku artean dituztela biziko dituzten esperientziak.

HAUR ANTZERKIA

Martxoaren 20an La Maquiné taldeak *Artea* haur antzerkia eskainiko du. Amaia Antzokian izango da 17:00etan. Urtaroen bidez sortzen diren elementuez jardungo dute.

ASTE BUKAERAKO ZINEA

Domekan eta astelehenean John Hillcoat zuzendariaren *La Carretera* filma eskainiko dute;

19:30ean domekan eta 20:30ean astelehenean. Bestalde, domekan, 17:00etan *Percy Jackson y el ladron del rayo* eskainiko dute.



Angelito, El Largo

Gaur Martxoak 5
00:00etatik aurrera

IAMAIA ANTZOKIA
ARRASATE



GI-627 errepidearen eta zubiaren artean egingo dute bidegurutzea, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. MONIKA BELASTEGI

AZPIEGITURAK > LANAK

Akordioa adostu dute Udalak eta Aldundiak Mekolaldeko zubi berriari irteera egokia emateko

Industria-gunea errepidearekin modu seguruan lotzeko bidegurutzea egingo dute zubi muturrean

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Lankidetzaren hitzarmena adostu du Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuarekin. Lankidetzaren hitzarmen horren helburua da Mekolalde auzoan, Deba errekararen beste aldean garatzen ari den eremu industrialari behar bezalako sarrera-irteera ematea, eraiki berria den zubiaz

baliatuz. Horretarako, zubiak eta GI-627 errepideak bat egiten duten gunean, T itxurako bidegurutzea eraikiko dute –azelerazio eta dezelerazio errailez baliatuz–, zubira sartu edo zubitik irten nahi duten erabiltzaileen segurtasuna bermatuz. Hain justu ere, zubia eraikita dagoen arren –araztegiarekin batera eraiki zuen Eusko Jaurlaritzak harendako sarrera-irteera moduan– gaur egun ez da ia erabiltzen, GI-627 errepiderako irteera egokirik ez duelako.

LANKIDETZA HITZARMENA
Aldundiarekin sinatuko den lankidetzaren hitzarmen hori udalbatzak aho batez onartu zuen otsai-

leko ohiko osoko bilkuran eta jasotzen duenez, Foru Aldundia arduratuko da bidegurutzea egiteko egin beharreko lur desjabetzeaz. Udalarik dagokionez, proiektua eta obra kudeatuko ditu, baina eremu hartako lur-jabeek finantzatu dute lana, hau da, han dauden enpresek eta hainbat partikularrek, bakoitzak duen aprobetxamenduaren arabera.

Gaur egun Danobat eta Tornilleria Deba enpresak daude eremu hartan eta baita araztegia ere. Baina horiez gain, oso gertu dagoen Lazpiur enpresak ere zubi hori erabil lezakeela ere aurreratu dute udal iturriek. Bestalde, gehitu dute Antzuolako Balzers-Elay lantegia ere gune hartara joatekoa dela eta uda aurretik hasi nahi dutela lekualdatzea.

Udalak, bere aldetik, bidegurutzea egokitzeko lanak udazkenean hasi nahi ditu, eta bukatuta izan nahiko litzuke urte amaierarako.

UDALA > ZERBITZUAK

Sei eta 24 hilabete arteko haurrendako ur estimulazio ikastaroa antolatu dute

Izenematea zabalik dago martxoaren 17ra arte eta ikastaroa izango da zapatu eta domeketan

M.B. > BERGARA

Seitik 24 hilabete arteko haurrendako ur estimulazio ikastaroa antolatu du Kirol zerbitzuak. Zapatu eta domeketan dira eskolak, 10:30-11:00 eta 11:00-11:30 orduetan, apirilaren 10ean hasi eta ekainaren 27ra arte. Ikastaroaren helburua hirukoitza da: umeari garrapen psikomotorea ematea, gurasoen eta umearen arteko harremanak garatzea, eta haurrak bizipenak eta estimuluak jasotzea.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Izenematea zabalik dago martxoaren 17ra arte. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 77 70 95 zenbakira; idatzi, agorrosin@bergara.net helbidera edo jo www.agorrosin.net helbidera.

Zozketa bidez erabakiko dira parte-hartzaileak. Izena eman dutenen behin-behineko zerrendak martxoaren 17an kaleratuko dituzte eta zozketa, berriz, martxoaren 24an egingo dute.

JAIK

Santu Martiri jaiak bihar, Osintxun

M.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, Santu Martiri jaiak ospatuko dute osintxuarrek.

Horretarako hiru ekitaldi antolatu dituzte. Batetik, 10:00etan, jubentzen Osintxu-Osintxu bizikleta proba egongo da. Lokatza txirrindulari elkartearekin batera antolatu dute ekitaldi hori, lehenengoz.

16:30ean, umeendako txokolata eta jolasak egongo dira. Umeendako antolatu dituzten jolasak, gainera, tradizionalak dira: ahoarekin eutsitako koilararekin arrautza eramatea, urez betetako baldean dagoen sagarra ahoarekin harrapatzea...

Eta Santu Martiri eguneko ospakizunei amaiera emateko, 21:00etan, bertso afaria egongo da Jon Maia eta Aitor Sarriegi bertsoariekin.

oharrak

ZOKKETA

> Gabero Abesbatzaren zenbaki sarituak atera dira

Lehen saria, Lasan bi lagunendako afaria, egokitu zaio 7.507 zenbakia, eta bigarrena, saski bat, 5.474 zenbakia. Sariak eskuratzeko deitu 627 36 83 70 zenbakira edo idatzi bergarakoorfeoia@gmail.com helbidera.

BATZARRA

> Pazkoetan askotariko ekitaldiak antolatzeko batzarra

Gaur izango da, 17:30ean gaztetxean, eta txosna batzordeak deitu du. Bestalde, astelehenean, martxoak 8, Pazkoetan txosna jarri nahi dutenendako batzarra izango da, 19:00etan, kultura etxean.

ZOKKETA

> Ipintza institutuko zozketa hiru otarre emateko daude

Aratusteetan egindako zozketako hiru otarre dituzte oraindik emateko: 83, 496 eta 614 zenbakie dagozkie, hain justu. Saria jasotzeko, jo Ipintza institutura edo deitu 943 76 31 42 telefono zenbakira, martxoaren 12a baino lehen.

- Eguneko menua.
- Afariak aste bukaeretan.
- Pizzak.
- Terraza.
- Domeketan ere zabalik eta pizzak enkarguz eroateko.

ZUHAIZTI

Izarra eta konpainia,
zuen zerbitzura!

Espaloia 6 Bergara 943 76 59 22



ANDUZU
GARRAIOAK

Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa | Era guztietako kargak

BERGARA
607 34 90 43

Zumelaga
JATETXEA

Domeka eguerditan
zabalik eta
astelehenetan itxita

San Antonio 5. BERGARA.
943 76 20 21

UDALA > PARTE-HARTZE PROZESUA

Herriak antzokia behar duela garbi geratu zen

Formatu handietarako aretoa eta entsegu gelak izan beharko lituzke, besteak beste, antzokiak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Martizenean 65 lagun batu ziren askotariko kultura ekintzetarako antzokiaren espazio eta funtzioak herritarrekin batera diseinatzeko Udalak deitutako prozesu parte-hartzaileko lehen batzarrean.

Orfeoia, Aritzeta, Musika Eskola, banda, orkestra, Jardun, Taun-Taun... askotariko kultura eragiletako ordezkariak batu ziren gazte gutxi, eta baita herritarrek ere. Agurne Barruso alkatea eta Gobernu taldeko hainbat zinegotzi ere han izan ziren.

Aztiker enpresako bi aholkularik gidatu zuten batzarra, eta, azaldu zuten, lehen batzarren helburua izan da, oro har, "kultura sortzaile, ekoizle eta kontsumitzaileek dituzten beharrak jasotzea". Horien berri eman zuten bertaratutakoek; taldetan lehenik, elkarrekin gero.

HERRITARREN BEHARRAK

Herrian kultura talde asko eta lan handia egiten duten ustea orokorra izan zen batzarrean, eta baita antzoki "fundamentuzko" baten beharra dagoela ere, bai herriko taldeek euren ikuskizunak eskaintzeko, zein kanpoko ikuskizunak ekarri ahal izateko.

Batzarrean batutako askoren iritziz, herrian tradizio handiko taldeak daude -orfeoia, Aritzeta, musika banda...- "elkarrekin 400 urte ere batzen dutenak", esan zuen herritar batek, baina ez entseatzeko ezta kontzertutarako leku aproposik ere ez dutela azpimarratu zuten, eta emanaldiak Udal Pilotalekuan egin behar izaten dituztela. Era berean, ikuskizun ertain-handi guztiak pilotalekuan egiten direla ekarri zuten gogora.

Bestalde, antzoki faltak eragin du, askoren iritziz, herriko



65 lagun batu ziren martizenean osoko bilkuren aretoan egindako lehen batzarrean.

MONIKA BELASTEGI

taldeen dispersioa eta harremanik eza, eta uste dute antzoki berriak taldeen arteko batasuna ekar dezakeela. Era berean, uste dute aretoak gune bizia izan behar duela, astegunetan etekina aterako zaiona, ez bakarrik ikuskizun egunetan.

Horrekin guztiarekin, beharren zerrenda luzea egin zen batzarrean eta horiek asetzeko antzokiak bete beharreko ezaugarriak ere aipatu ziren; besteak beste, hauek: ikuskizun handietarako aretoa eduki behar du, behar bezalako agertokiarekin eta aulkiak

kentzeko sistemarekin; formatu txikiko ikuskizunetarako zein filmak ikusteko beste areto bat ere izan behar du, aforoa handitzeko zein txikitzeko sistemarekin; mota askotako emanaldietarako baliagarri izan behar du eta soinu, argi... kalitate egokiduna; herriko taldeek entseatzeko aretoak izan behar ditu; tailerretarako gelak; kafetegia; eta aparkalekuak.

BIGARRENA ARKITEKTOAREKIN

Aztikerko aholkulariek esan zuten moduan, martizenean "Olentzerori gutuna idatzi" zioten herritarrek. Hurrengo batzarra martxoaren 23an izango da eta hartara udal arkitektoa ere joango da, herritarrek adierazitako beharrak asetzeko egon daitezkeen muga arkitektonikoen berri emateko. Prozesua jarraitzeko: <http://83.246.72.154/bergara/>.



Hasteko, taldetan egin zuten lan bertaratutakoek.

M.B.

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2010

60 urte

> PILOTA

Berria pilota txapelketatik kanpo geratu dira

Bergarako pilotariak Berria txapelketatik kanpo geratu dira Aurrera Saiaz Tolosako taldearen kontra jokatu ondoren. Bestalde, Euskal ligako finala jokatu du Beñat Rezustak, gaur, Munitibarrren. Bergarakoak Aurrera Saiazeko Arratibel izango du aurrean.

> PIRAGUISMOA

Eskola arteko Gipuzkoako txapelketa Bergaran

Bihar, zapatua, 15:00etan hasiko dute Labegarietan Gipuzkoako eskola arteko piraguisismo txapelketako hirugarren jardunaldia.

Txapelketa horretan izango dira Beti Busti taldeko piraguista gazteenak, guztira sei piraguista, infantil eta alebin kategorian.

> KARATEA

Eskola arteko karate txapelketa egingo dute domekan

Domeka goizean eskola arteko karate txapelketa egingo dute Labegarietako kiroldegian. Txapelketa hori Bergarako Udalak, Gipuzkoako Karate Federazioak eta Bergarako Shotokan klubak antolatzen du, eta hain zuzen ere, klub horretako 25 karateka gazte izango dira lehian.

SASKIBALOIA > SENIOR GIZONEZKOAK

Soraluce BKE ligako laugarren garaipenaren bila, Astigarragara

Joan den asteburuan Teklan Laser taldearen kontrako garaipenak esperantza piztu du bergararren artean, nahiz eta sailkapenean azken postuan jarraitu

XABIER URTZELAI > BERGARA

Sailkapenaren azken lekuan, baina bizirik. Hori bai, joan den astean Teklanen kontra irabaztea ezinbestekoa zen Unai Iñarraren mutilendako, eta egoera larri horren aurrean mahoneroek ez zuten kale egin. Hasierako minutuetan parean egon ziren bi taldeen indarrak, baina 7. minutuan Bergarakoek lortutako hiruko lau saskiratzek hautsi zuten markagailuko pareotasun hori (25-14).

Bigarren laurdenean, baina, etxekoek minutu txarrak izan zituzten, eta kontrarioak aldea txikitzeke aprobetxatu zuen (31-25). Lehian, baina, hirugarren laurdena izan zen erabakigarria. Taulapean defentsan egindako lan onari esker, eta erasoan asmatuta Iñarraren mutilek erabakita utzi zuten norgehiagoka, neu-



Zarautzen kontrako partiduan, jokalariek taulapean lehian.

BERGARA KE

rri handian (48-32). Alde horrekin, azken laurdenean oso txarto egin behar zituzten gauzak, eta ez zen holakorik gertatu; ondo asmatu zuten abantaila hori kudeatzen (54-40).

AURRERA BEGIRA

Hala, joan den astean Bergarakoek argi erakutsi zuten geratzen

diren zazpi jardunaldietan borrokarako gertu daudela, eta aurrealdean dabilzane ezusteak emateko gauza direla. Hain zuzen ere, horixe da zapatuan (16:00) sailkapenean bosgarren dagoen Astigarragaren kantuan egin nahi dutena, beste ezuste bat eman. Informazio gehiago www.bergarake.com webgunean.

labegarieta

EMAITZAK

CM Errota-Gain-Los Latinos	9-0
Monte Taberna-Zigalikitis	8-1
LSJ-Alytis	4-6
Internacional-Diego Valor	3-10
Komando Piperrak-Irish Pub	6-2

PARTIDUAK

Martxoak 6, zapatua	Epaileak
19:30 Monte Tab.-Diego Valor	Niu Tim
20:30 Los Latinos-Niu Tim	Diego Valor
Martxoak 7, domeka	Epaileak
18:00 Koman.Piperrak-Alytis	Internac.
19:00 Intern.-Irish Pub	Alytis
20:00 CM Errota-Gain-UD Akabaoak	Irish
21:00 LSJ-Zigalikitis	UD Akabaoak

SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errota-gain	52	19
2. UD Akabaoak	48	18
3. Niu Tim	45	18
4. Diego Valor Ilea	45	19
5. Los Latinos	39	19
6. Alytis FK	31	19
7. Komando Piperrak	16	19
8. Zigalikitis	13	19
9. Internacional	13	19
10. Irish Pub	10	19
11. Monte Taberna	9	19
12. LSJ	3	19

Urte osoko lana dago jokoan

Oraingo asteburuan lider dagoen CM Errota-Gain taldeak bigarren dagoen UD Akabaoak taldearen kontra jokatu du (domeka, 20:00). Bi taldeen artean lau puntuko aldea du, baina Akabaoak partida bat gutxiago jokatu du. Hala, ligako azken jardunaldiak gertu dauden honetan, bi talde horiek urte osoko lana izan dezakete jokoan.

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92


**Ion Murgizu Pinturak**

Margoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrial
- Eskaiola eta pladurra

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

MIZPILDI**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

GOIERRI**Autogidarien Eskola**

Gidabaimena euskaraz zein gaztelaraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MUSIKA > KONTZERTUA

Mursegoren eskutik, musika esperimentalak dago bihar Zabalotegin

Mursego musikari eibartarrak 'Bat' izeneko bakarkako lehen lana aurkeztuko du, 20:00etan; 5 eurotan jarri dituzte salgai sarrerak

MIRIAN BITERI > BERGARA

Mursegoren izenarekin, Maite Arroitauregi musikari eibartarrak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrerek 5 euro balioko dute.

Joan den urteko udaberriaren kaleratutako bakarkako lehen lana aurkeztuko du txelo joleak; *Bat* izena du horrek. Minimalismoan eta bat-batekotasunean oinarritutako musika aurkituko dute bihar iluntzean Zabalotegira joaten direnek. Proposamen arriskutsua da hori; txeloarekin musika

esperimentalak egitera ausartu da eta eibartarra. Horretarako, beste hainbat musika tresna erabiltzen ditu; hala nola, perkusioa, organoa, ukelele, platertxo txinatarra eta loop station pedala. Ahotsak ere garrantzi handia du.

ANARI ETA MORAU

Bere lehenengo lana aurkeztera badator ere, Maite Arroitauregik esperientzia dauka agertokietan; aurretik, Morau, Anari edo Ibon Rodriguez abeslariarekin kolaboratzaile lanak egin ditu eta. Bakarkako lanarena Bilbon



Mursegok bihar iluntzean joko du Zabalotegi aretoan.

ASIER GOGORTZA

ANTZERKIA

'Cruzadas cotidianas' antzezlanak dago gaur

Musika bihar eta antzerkia gaur. Hala, Cristina Castillok antzeztuta, *Cruzadas cotidianas* izeneko antzezlanak ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitzean, Zabalotegi aretoan, 22:00etan. Horretarako, sarrerak 5 euro balioko du. Esandako emanaldian, ikus-entzuleek gaur egun dugun bizimodu "kaotikoaz" hausnarketa egin dezatela nahi du Cristina Castillo aktoreak; aldatzeko kapazak ez garen bizimoduaz, hain justu ere. Horretarako, bizimodu normala duten lau emakumeen bitzita kontatzen du, bakarrizketen bidez. Emakume horiek gaur egun pil-pilean dauden gaiak ukitzen dituzte, hala nola, nagusien mendekotasuna, immigrazioa, lana eta familia bateratzeko zailtasunak eta lesbianen bikoteen ikusezintasuna. Baina, horren gainean berba egiteaz gain, aldarrikapen komuna ere badute laurak: bizimodu hobea izatea, hain zuzen ere.

MUSIKA > ORFEOIA

Bergarako Orfeoia Kataluniara joango da martxoaren 19an

Taldeak presidente berria aukeratu zuen martitzenean egindako urteko batzarrean; Karlos Etxanizek ordezkatu du Haritz Gallastegi

M.B. > BERGARA

Bergarako Orfeoia Kataluniara irteera egingo du hilaren 19an. Bere garaian Santa Coloma de Queraltoko abesbatza batek Bergaran eskainitako emanaldia itzuliko diete orain orfeoioek. Baina, irteeran bigarren emanaldi bat emateko asmoa dute, Bartzel-

lonan. Taldeko orain arteko presidente Aritz Gallastegiren esanetan, "taldean neska katalana dugu eta bere neba Bartzelonan bizi da eta abesbatza batean kantatzen du. Trukea egingo dugu". Bestalde, orfeoia oraindik guztiz finkatzeko dagoen proiektu "berezia" ere hartuko du parte.

Gallastegik ekimen horien berri eman zuen martitzenean orfeoia egindako batzarrean. Iazko gastuak, aurtengo ekimenak eta zuzendaritza batzordea aldatzea onartu zuten han, besteak beste. Azken horren harira, azpimarratzekoa da orfeoia presidente berria duela: Karlos Etxaniz.

MUSIKA > METAL JAIALDIA

Denial eta Dark Code debagoiendarrak eta Instinct bizkaitarra, bihar, gaztetxean

M.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, metal jaialdia dago gaztetxean. Hiru taldek joko dute han: Denial aretxabalek, Dark Code bergararrak eta Instinct bermeotarrak. Zaleek 3 euro ordaindu beharko dituzte 22:00etan hasiko den musika emanaldira sartzeko.

Denial boskoteak death metala egiten du. Danbakan parte hartu duen taldea Arratsen jaio zen 2000n. Gaur egun,

bolada txar baten ondoren, lapurrerak, lokal aldaketak eta taldekide aldaketak, taldea Aretxabalean dago finkatuta.

Bestalde, Dark Codeko Rodrik, Aitorrek, Mikelek eta Elortzak ahal duten guztia emango dute bihar. Metal, thrash, death metal estiloak uztatzen ditu laukoteak. Azkenik, 2001ean sortutako Instinct taldekoak ere gaztetxean ikusteko aukera egongo da.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Argazkia: Kiñu

UDALA > ZERBITZUAK

Kaleko piboteak giltza bakarrarekin jaisteko proiektua martxan da

Suhiltzaileek eta larrialdietarako zerbitzuek erabiliko dute Giltzagune egitasmoko giltza

Oñati aitzindari da, eta Gipuzkoako beste herri batzuetara zabalduko dute emaitzen arabera

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Giltzagune egitasmoa gertu du Udalak. Piboteak dituzten kaleetan sartzeko giltza bakarra gertu dute suhiltzaileek eta larrialdietako zerbitzuek. Horrekin pibote mugikorra jaitsi eta etxe guztietara heltzeko bidea izango dute. Horixe da, izan ere, Giltzagune proiektuaren helburua: larrialdi zerbitzua herriko kale guztietara helaraztea.

ALTZAIKUZKO ONTZIA

Giltzaguneak herriko 12 lekutan ipini dituzte; guztiak, Kale Barrian, Kale Zaharran, herriko plazan eta inguruko kaleetan. Paretan ipini dituzte eta giltzagune guztiak larrialdi zerbitzuetako kideek edukiko duten giltza bakarrarekin zabalduko dituzte. Hodi formako altzairuzko ontzi batzuk sartu dituzte paretan. 15 zentimetro dituzte luzeran eta zortzi zentimetroko diametroa. Ontzi horien barruan daude pibotea jaisteko eta igotzeko giltzak.

Giltzaguneak jarrita daude aspalditik, baina martxan ipintzea atzeratu egin dute, suhiltzaileek eta larrialdi zerbitzuetakoek euren GPSetan guneen koordinadak sartu behar izan dituztelako.

"SISTEMA APROPOSENA"

Giltza bakarra erabiliko duen lehen herria Oñati izango da; aitzindaria, hortaz. Foru Aldundiak toki guztietan larrialdi zerbitzua emateko modu "aproposena" dela dio. Horren harira, Gipuzkoako gainontzeko herrietara zabalduko da Giltzagune proiektuarekin bat egiteko aukera. Gero, herri bakoitzak dituen beharren arabera erabakiko du zer egin behar duen; alegia, giltza edo urruneko agintea erabili erabakiko dute. Hori horrela, larrialdietako zerbitzuen giltza bakarra beharko dute Gipuzkoako herri guztietarako.

LANKIDETZA HITZARMENA

2009ko maiatzaren 4an sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena Oñatiko Udalak, Osakidetzak eta Foru Aldundiak. Elkarrekin koordinatuko dute egitasmoa, zirkulazio mugatua dagoen erdiko kaleetan larrialdi zerbitzuek erantzun azkarra eman dezaten. Horretarako, Aldundiak eta Osakidetzak eginkizun zehatzak izango dituzte; hain zuzen ere, Aldundiak giltzak gordetzeko ontziak konponduko ditu; eta Osakidetzak zerbitzuak koordinatuko ditu. Udalak, bere aldetik, 12 giltzaguneak jarri ditu.



Kale Zaharrako piboteak jaisteko giltza ONCEko kioskoaren ondoko paretan dago.

MIREIA BIKUÑA

Jose Mari Igartua > Udal Zerbitzu zinegotzia

"Giltzagune, Zubillagako suhiltzaileen proiektua izan da"

M.B. > OÑATI

Jose Mari Igartua Zerbitzu, Azpiegitura eta Ingurumen batzordeko zinegotzia da. Giltzagune egitasmoren sorreraz berba egin digu. Proiektua azaldu digu.

Dena prest duzue. Erabiltzeko moduan dago?

Bai, hala da. Piboteak dituzten kaleetan larrialdi abisurik badago, zerbitzuek giltza erabiliko dute.

Oñati aitzindaria da. Nola sortu zen proiektua?

Zubillagako suhiltzaileek proposatu ziguten. Euren zirriborroa ikusi genuen eta posible zela pentsatu genuen, eta suhiltzaileen proiektua martxan jartzea erabaki genuen.



Igartua zinegotzia, giltzaguneetako bat erakusten.

M.B.

Oñatin beharrezko zen erdiguneko kaleetara larrialdi zerbitzua garaiz heltzeko?

Bai. Larrialdietan denbora oso inportantea da. Askotan segundoak besterik ez dira izaten. Bestalde,

Oñatin ez dugu udaltzain zerbitzurik gabe, eta horrek asko mugatzen gaitu. Orain babestuago egongo gara. Larrialdi zerbitzuetakoek euren kontura mugitu ahalko dira piboteak dauden kaleetan.

DATUA

12

GILTZAGUNE

Udalak 12 giltzagune jarri ditu herriko kaleetan; hain zuzen ere, Kale Barria, Kale Zaharra eta plaza inguruko kaleetan. Hodi formako altzairuzko ontzien barruan dago pibotea jaisteko giltza.

Eskerrak Zubiari egindako lanarengatik

Jose Mari Zubiak oroigarria jaso zuen Etxaluze Etxeko bizilagunen aldetik, azken 25 urteotan sukaldari lanak egin dituelako, urtero egiten duten atariko kideen afarian. Bizilagunen izenean Lourdes Iñurrategik plaka eta "eskerrak" eman zizkion musu truk egindako lanarengatik. Afaria otsailaren 26an egin zuten.



ARANTZAZU EZKIBEL

oharrak

DEIALDIA

> **Arrantzako federatu txartelak eskatzeko epea**

Interesatuak bi aukera dituzte: eguaztenetan Pago-Uso elkartearen 20:00etatik 21:00etara edo Ugarte ile-apaindegian egunero. Nagusiek 26 euro ordainduko dute, eta 14 urte arteko bderatzi. Ordainketa aurrez egin behar da.

DEIALDIA

> **Odol-ateratzea hilaren 12an egingo dute ohiko ordutegian**

Otsaileko odol-ateratzearen ordutegia aldatu bazuten ere,

martxoaren 12koa ohiko ordutegian egingo dute; hain zuzen ere, 18:00etatik 20:00etara, Txantxiku Ikastolan. Hurrengo ateratzeak egingo dituzte apirilaren 6an, maiatzaren 7an, ekainaren 11n, irailaren 10ean, urriaren 8an, azaroaren 12an eta abenduaren 10ean.

DEIALDIA

> **Asis sarearen otoitzaldia**

Asis sareko kideek otoitzaldi-bilkura egiten dute hil bakoitzeko azken egunean. Hain zuzen ere, Bidaurretako elizan elkartzen dira, 19:30ean.

> KIROLA

Txirrindulari taldeak aurkeztuko dituzte etzi, domekan

Aloña Mendi txirrindularitza sailak etzi egingo du taldeen aurkezpena. Etxe Aundi jate-txean elkartuko dira 11:00etan argazkiak egiteko, eta talde bakoitzak dituen helburuak ezagutarazteko. Kadete, gazte, alebin eta infantil maila-tako ziklistek jantziko dute Aloñaren maillota.

> KULTURA

Andoni Salamerok olerki erreztaldia egingo du gaur

Elkar Hezi ikastetxeko irakasle Andoni Salamerok olerki erreztaldia egingo du gaur Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Hitz bidea ttakunka delako erreztaldirako Jean Claude Enrique eta Txomin Dhers de Lopeteguy txalapartarien laguntza izango du.

> MUSIKA

Ganbara Txikitxok eta Udaberria Eskolaniak kontzertua, bihar

Ganbara Txikitxok eta Gasteizko Udaberria Eskolaniak kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

Bi taldeen arteko elkartrukaren lehen emanaldia izango da biharkoa. Itzulerako kontzertua Gasteizen egingo dute maiatzean.

> KULTURA

'Argizaiola' argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Ilunpetan argazki taldearen eskutik, *Argizaiola* erakusketa zabalduko dute gaur, hilaren 28ra arte, egunero 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketan Euskal Herriko hainbat argazki lehiaketetako irabazleen argazkiak ikus daitezke. Guz-tira, 34 erretratu.



Suhiltzailea teilak kentzen Errekalde auzoko 19. zenbakiko teilatuan.

MIREIA BIKUÑA

HAIZEALDIA > ONDORIOAK

Suhiltzaileak teilak kentzen ibili dira asteon Errekalden, Santa Marinan eta San Lorentzon

Bestalde, Azkoagaineiko kalteak konpontzen hasi dira, eta aste bukaeran jokatu dituzte partidua

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Haizealdiak herrian egindako kalteak konpontzen dihardute oraindik ere. Teilatuetan solte zeuden teilak kentzen lan ikaragarria egin dute suhiltzaileek asteon. Astelehenean Errekalde auzoko atari gehienetan egon ziren teilak batzen. Era berean,

Santa Marina plazako eta San Lorentzo auzoko hainbat ataritan ibili ziren.

Auzo horietako bizilagunek SOS Deietan emandako abisuak oinarri hartuta aukeratu zituzten kaleak eta atariak. "Guk jasotako deiekin eta udaltzainek egindako ikuskapenarekin erabaki genuen ze ataritarra joan. Auzo horietako teilatu batzuk nahiko egoera txarrean daude", esan digute suhiltzaileek.

Apurtuta zeuden teilak bota egin dituzte, eta osorik zeudenak atari bakoitzaren sarreran pilatu dituzte berriro erabil daitezkeen erabakitzeko.

AZKOAGAIEN KALTEAK

Bestalde, haizealdiak Azkoagainen egindako kalte gehienak konpondu dituzte. Apurtutako eserlekua kendu egin dute, eta eroritako bi zutabeetako bat moztu egin dute. Gainera, argiak orientatu egin dituzte.

Martitzenetik entrenamenduak normal egin dituzte Azkoagainen. Gaur konponduko dute zatitutako berdegunea, eta hormigoizko txingorak eta bridak kenduko dituzte. Kirol teknikari Oscar Carrascalek esan digu aste bukaerako partiduetarako apurtutako eserlekuaren ordezkoa faltako dela.

JENDARTEA > ALDARRIKAPENA

Emakumearen Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea bihar

M.B. > OÑATI

Astelehenean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen delata, hainbat ekitaldi egingo dituzte herrian; hain zuzen ere, elka-

rretaratzea, antzerki emanaldia eta hitzaldia egingo dituzte datuzen egunetan.

Oñati Ezkerretik koalizioak deituta elkarretaratzea egingo

dute bihar 13:00etan plazan, *Martxoak 8. 2010 arrazoi martxan jarraitzeko* lelopean. Era berean, hitzaldia antolatu dute hilaren 16rako. Mertxe Larrañaga ekonomialariak *Krisialdi ekonomikoa eta emakumeak* delako hitzaldia egingo du.

Azkenik, kultura sailaren eskutik, domekan, 19:30ean, *Rosas rojas* antzezlan egingo du La Papa taldeak Santa Anan.

beteranuak

EMAITZAK

B TALDEA

Albok-Indar 85 bertan behera
Bundeswehr-Gaur Bai b.b.
Lozorromo-Sasquatch b.b.
Gibel Boys-Zorro Bero b.b.

B TALDEA

Kalañatasaray-Ankarterko b.b.

PARTIDUAK

B TALDEA, MARTXOAK 6

13:00:
Ankarterko-Txarrixak/ Azpiazu
14:30:
Nandrolona-Kalañatasaray/ Arrilla
18:30:
Jari Ari-Txuskos/ Dollygans
20:00:
Etxaibat-Xaguxar/ Dollygans

A TALDEA, MARTXOAK 7

09:00:
Sasquatch-Bundeswehr/ Nandrolona
15:00:
Gaur Bai-Albok/ Lazkano

> Atsedena: Joxely
> Arduraduna A taldea: Dollygans
> Arduraduna B taldea: Txarrixak

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Zorro Bero	21	7
2. Dollygans	16	7
3. The Gibel Boys	12	6
4. Indar 85	7	6
5. Gaur Bai	6	5
6. Sasquatch	4	5
7. Bundeswehr	4	5
8. Lozorromo	2	5
9. Albok	1	5

B TALDEA

B TALDEA	P	J
1. Txarrixak	15	7
2. Joxely	14	8
3. Nandrolona	13	6
4. Kalañatasaray	12	6
5. Xaguxar	11	7
6. Txuskos	8	6
7. Etxaibat	5	7
8. Ankarterko	4	6
9. Jari Ari	3	7

Haizealdiagatik, ez zuten partidurik jokatu

Negua gogorra izaten ari da betereuen xapeltaketa-ko antolatzaileendako. Elurragatik atzeratutako partidua berreskuratu guran dabilta, baina behin eta berriz, jardunaldiak jokatu barik geratzen dira. Azkena, aurreko aste bukaeran. Haizealdiagatik Foru Aldundiak jarritako debekua bertan behera utzi zituen partidu asko, tartean betereuenak. Azkoagain futbol zelaia 14:00etan itxi zuten. Antolatzaileen asmoa da, aurreko aste bukaerako jardunaldia, martxoaren 19an, 20an eta 21ean berreskuratzea.



40
urte
elkarrekin
1970-2010

2010eko EROSKETA DOAN!

2010ean GURE DENDETAN EGINDAKO EROSKETAK DOAN IZAN DAITEZKE ZURETZAT!

Erosketa egiterakoan emango dizugun txartelaren zenbakiak Loteria Nazionalaren azkeneko hiru zenbakiakin bat egiten badu, egindako erosketaren zenbateko osoa bueltatuko dizugu.

Anima zaitetz eta ospatu urteurrena gurekin!

UDALA > AURREKONTUA

11 milioi euro, aurten herria kudeatzeko

Udal gobernuak EAJrekin adostu duen aurrekontuak %37ko jaitsiera izan du, eta Ingurumen Plana eta Enplegu plana jarriko dituzte abian

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Astelehenean, martxoak 1, egin dako ezohiko osoko bilkuran aurrekontuak 2010eko diru kontuak. 10.959.195 euroko Udal aurrekontua Aralarren eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten.

Egoera ekonomikoak eskatzen duen moduko aurrekontua egin dutela iragarri zuen Inaxio Garro alkateak, "austeritatea edo herztura kontuan hartuta eta zentuz jokaturik", eta hortik "murrizketa" etorri dela. Hala, %37ko jaitsiera izan du iazkoarekin alderatuta.

EAJ-K AURREKONTUAKO BI SAIL

Eusko Alderdi Jeltzalearekin adostu du aurrekontua udal gobernuak; hala jakinarazi zuen Arritxu Oliden zinegotziak eta bi sailetan ailegatu direla akordioa iragarri: Ingurumen eta Enplegu Planen. Ingurumen

Planaren barruan Urkulu izango da ardatza eta 1.092.431 euro bideratu dituzte bertara -800.000 euro inguru berreskuratzea pentsatzen dute dirulaguntzen bitartez-. Inbertsiorik aipagarriena izango da kirol etxe berriarekin batera: 1.897.104 euro. Enplegu Planera, ostera, 360.000 euro bideratu dituzte.

ABSTENITU EGIN ZEN PSE-EE

Alderdi sozialistako zinegotziak abstenitu egin ziren, eta hiru arrazoi eman zituzten horretarako: alkatearen "zorrotasunik eza", abenduan, aurrekontua onartu behar zenean deitu zuelako lehen bileran; alkatearen "gardentasunik eza", EAJrekin adostuta zuela "ezkutatu" zuelako; eta "konpromiso eza" aurrekontuen kudeaketan, iaz PSE-EErekin adostutako partidariak -enplegu plana...- ez duelako aurrera eroan.

AZKEN ORDUKO EKARPENAK

Ezker Batua-Berdeak alderdiko zinegotziak, ostera, hiru partida berri sartzeko eskatu zuten: kuartel zahararen etxe sozialak egitea ikertzeko (18.000 euro); lehenengo zaharren egoitzako hirugarren solairuan familiak elkartzeko lekua edo babestutako etxeak egiteko (18.000 euro); eta udaletxean igogailua jartzeko (60.000 euro). Alkateak erantzun zion momentuan aurkeztuta ez zihozela bozkatzera, ekarpenak egiteko denbora egon zelako aurretik.

EUSKO ALKARTASUNAK EZETZA

Eusko Alkartasunak, ostera, ez zuen ikusi herzturarik aurrekontuan eta "inbertsioak jaitsi direlako, 900.000 euro inguru, dator murrizketa", esan zuen Edorta Mendietak: "Gastua %8 jaitsi da, baina inbertsioak %22 jaitsi direlako; eta ohiko gastu ez-finantzarioa %4,5 igo da". Ohiko gastu hori jaisteko partida guztiak zehatz aztertu beharra aipatu zuen. "Beste teknika batzuk erabiltzea aurrekontua egiteko" eskatu zuen: "Helburuetan oinarrituak, baina gobernuak 2010erako ez duenez helburu eta proiekturik, kontuak lotzera mugatu da". Eta errekursoak sortuko dituen teknikak behar direla esan zuen, "gero inbertsioak egiteko".

Hori horrela, EAJk bi zinegotziek eta Ezker Batua-Berdeetakoak ezetza eman zioten 2010eko aurrekontuari.



Langabeei lana eman gura die Enplegu Planak; argazkian, Lanbide Eskolakoak. m.a.

HITZARMENA

Urkulu ardatz duen Ingurumen Plana eta Enplegu Plana lotu dituzte Aralarrek eta EAJk

Elkarlanaren beharra azpimarratuta egin dute bat udal gobernuak eta oposizioan dagoen EAJk 2010eko udal gestioa aurrera eramateko, "aretxabalarrei erantzun egokia emateko". Hala, Aralarrek onartu egin ditu EAJk egindako bi ekarpenak: Ingurumen Plana eta Enplegu Plana.

Ingurumen Planari dagokionez, Urkulu eremua zaindu, babestu eta suspertzea izango du helburu: ur ingurua berreskuratzea, aisialdirako egokitu... eta Iraeban eta Irurikoak baserrietako proiektuak garatu.

ENPLEGUA SORTZEKO PLANA

Langabeziaren tasa %10 da Aretxabaletan. Arritxu Oliden zinegotziak esan zuen iazko urtarrilean 184 langabe zeudela herrian, eta aurten, 363. Horri aurre egiteko hiru ardatz dituen Enplegu Plana jarriko dute abian: kontratazio zuzena, langabeen %10 kontratatzea aldi baterako -36 herritar-; formazioa, institutuarekin eta Mankomunitatearekin elkarlanen formazio saioak egitea; eta ekintzaile izaera, Mankomunitatearekin batera enpresa berriak martxan jartzeko saioak egitea.

Hori guztia koordinatuko duen lagun bat hartuko dute eta asmoa da aurten garatzea plana. Dirulaguntzak eskatuta dituzte horretarako.

2010eko udal aurrekontua (eurotan)

Aurrekontua, programen arabera

Administrazio orokorra	1.298.764
Errepideak eta bide publikoak	278.094
Kultura, zerbitzu orokorrak	210.294
Kultura etxea	478.600
Jaiak	186.650
Kirolak-aisialdia	146.545
Gazteria	156.722
Familia eta elkarbizitza programa	425.350
Informazio eta orientazio egitasmoa	341.634
Ur hornikuntza eta banaketa	442.644
Hondakinen kudeaketa	423.054
Kale garbiketa	338.850

Inbertsio aipagarrienak

Kirol etxe berria	1.897.104
Urkulu inguruko egitasmoa	1.092.431
Nekazaritza arloko inbertsioak	70.000
Hiritartze lanak	50.000
Planeamendua	50.000
Hainbat proiektu	25.000
Kultura ekipamenduak	10.000

Aurrekontu osoa

Udal aurrekontua	10.959.195
Urats Gain zaharren egoitza	454.056
GUZTIRA	11.231.382

BERDINTASUNA > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Ikastaroa, elkarretaratzea eta antzerkia Martxoaren 8a dela eta

Lehenengoz egingo dute elkarretaratzea gurean; Herriko Plazan da (18:00)

19:30- emakumea izango dute gai. Hona: *Leonera*, *En tierra de hombres* eta *La teta asustada*.

AUTODEFENTSA IKASTAROA

Berdintasun Sailak bi ekitaldi berezi antolatu ditu: autodefentsa ikastaroa eta elkarretaratzea.

Defentsa pertsonala landuko duten ikastaroa 14 urtetik gorako emakumeendako da eta martxo-ko zapatuetan izango dira eskolak (11:00-13:00), Arkupen, debalde. Aurrez izena ematea komeni da Berdintasun Sailera mezua bidalita -berdintasuna@aretxabaleta.net- edo Gizarte Zerbitzuetara deituta -943 71 18 62-. Erasoan aurrean zelan erantzun jakiteko teknikak ikasiko dituzte ikasleek.

Bestalde, elkarretaratzea egingo dute astelehenean (18:00), Herriko plazan. Lehenengoz egingo da gurean eta emakume taldearekin batera antolatu du.

M.A. > ARETXABALETAKO

Emakumeen Nazioarteko Eguna da astelehenean eta Udaleko Berdintasun eta Kultura sailek hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Umeek -6 urtetik gorakoak- ipuin kontaketa izango dute bihar (11:30). Kontu Kantoi taldeak *Baziren behin... neska abenturazaleak eta mutil abeslariak* eskainiko die udal liburutegian, debalde.

Helduek, ostera, astelehenean (19:30) izango dute antzerkia: *Rosas Rojas*. La Papa taldeak etxeko biolentziaren eta tratu txarren gaineko antzezlanarekin hausnarketara bultzatuko ditu ikusleak. Arkupen izango da, debalde.

Martxo guztian zineklubean emango dituzten filmek -eguna,

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

ERRETIRATUAK > BATZAR OROKORRA

Zuzendaritza batzordea berrituko du Basotxok eguazteneko batzarrean

Apirilean Andaluziara joateko txartelak astelehen, martitzen eta eguaztenean salgai

M.A. > ARETXABALETA

Batzar orokorra egingo du Basotxo Erretiratuen Elkarteak eguaztenean, hilak 10, egoitzan (17:00).

Iazko diru kontuak eta egitarau txostena onartuko dituzte lehenengo eta aurtengo gestio plana aurkeztu gero. Bukatu aurretik zuzendaritza batzordea berrituko dute. Ia 1.000 bazkide ditu Basotxok eta zuzendaritzako kideek gura dute batzarrean parte hartzea.

APIRILEAN BIDAIA

Bestalde, bidaia antolatu du Basotxok Andaluziara -Granada eta Kordoba- apirilerako. Pazko astean joango dira, 5etik 12ra, Granadara lehenengo eta gero Kordobara, eta txartelak aurrez hartu behar dituzte interesatuek: astelehen, martitzen edo eguaztenean (11:00-12:00), Basotxoko bulegoan.

Elkarteko bazkide ez direnak ere joan ahal izango dira, lekua egonez gero.



Sutea astelehen ilunkaran, Basabe industrialdean Coprecik duen estanzazio eraikinean.

IKER BARANDIARAN

GERTAKARIA > SUTEA

Copreciko estanzazio jarduerako makina batek su hartu eta tailerra erre zen astelehenean

Kalteen balorazioa egiten dabilta baina langileek lanean jarraitu dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Basabe industrialdean kokatuta dagoen Copreci enpresaren eraikin batean, estanzazio jarduer

duen tailerrean, sua izan zen astelehenean (18:30). Suhiltzaileak, ertzainak eta anbulantzia etorri ziren bertara eta inguru guztia itxi zuten jakin-minez joandako herritarrak gehiegi ez hurreratzeko. Zorionez, ez zen zauriturik izan eta langileek euren kabuz irten zuten eraikinetik. 21:00ak ingururako sua mendean hartuta zuten suhiltzaileak.

NORMALTASUNEZ LANEAN

Makina batek hartu zuen su tailerrean, eta handik zabaldu zen. Copreci lantegiko arduradunek esan dute oraindik kalteen balorazioa egiten dabilzala eta ez dutela kopururik emateko. Hala ere, langileek normaltasunez egin dutela lan aste guztian jakinarazi dute, baita istripua izan eta hurrengo egunean ere.

> MENDIA

Barazar, Gorbeia eta Murgia inguruan mendi ibilaldia egingo du Murruxok hilaren 14an

Mendi irteera antolatu du Murruxok Mendizale Elkarteak martxoaren 14rako, domeka. Araba aldera joango dira: Barazar mendetik (605 m) Gorbeia mendira igo (1.482 m) eta handik Murgia-ra jaitsi (618 m). Autobusa Azbe lantegi pareko geltokitik irten go da, 08:00etan.

Izena aurrez eman behar dute interesatuek Murruxokiko egoitzan; martitzena, hilak 9, da azken eguna (19:00-20:00). 15 euro ordaindu beharko da autobusa izena ematerakoan.

ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera
(ordutegi jarraitua)
9:00etatik 20:30era
Larunbatetan
10:30etik 13:30era
16:30etik 20:30era

Sukalde alemanak
3.290 eurotik aurrera

 **beitia**
living & home
>> Etxerako guztia

Emakumearen
adiskidetzet funtzioa
aztertuko dute

Hildako bat dagoen
bakoitzean lila puntua
jarriko da udaletxean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Astelehenean izango da Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Hori dela-eta, Udalak eta Bizikasik elkarlanean *Funcion conciliadora de la mujer* izeneko kafe-tertulia gertatu dute. Nagore Iturriotz arduratuko da horren gaineko azalpenak emateaz eta eztabaida bideratzeaz. Martitzenean egingo dute hori, 18:00etan, Ibarraundi museon.

PUNTU LILA BALKOIAN

Bestalde, Emakumearen egunaren harira otsailaren 24an egingadako ohiko osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen EB-Berdeak taldeak horren harira aurkeztutako mozioa. Horretan, besteak beste, udal ordezkariak

JENDARTEA > MARTXOAK 8

Emakumearen eguna dela-eta, kafe-tertulia izango da Ibarraundin martitzenean

adostu zuten Espainian zein Euskal Herrian genero indarkeriak hildakoren bat eragiten duen bakoitzean, udaletzeko balkoian tratu txarren kontrako pankarta jartzea; hain justu ere, puntu lila duen posterra. Modu horretan, hilketa hori salatzeaz gain, jendarte honetako "gaitzaren" kontra Eskoriatzako Udalak duen konpromisoa azaleratu nahi dute.

Azken horren harira, eskura dituen baliabideak erabiliz, berdintasunaren alde lan egitea onartu zuen udalbatzak. Esaterako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren irudikapena eta sentsibilizazioa bultzatzen duten programak eta ekimenak garatuko direla eta feminismoa nahiz emakumeen elkartze-mugimendua sustatuko dutela adostu zuen.

PUNTU LILA BALKOIAN

Gainera, eguaztenean, martxoak 10, egingo den 2010 Euskal Herriko Emakume Martxan parte hartzeko gonbita egin zuten osoko bilkuran. Gogorarazi zuten 2008an Vigon elkartutako mundu osoko emakumeak ostera martxan jarriko direla lau jardueraren eremutan ekiteko: Ongizatea, Emakumeon aurkako Indarkeria, Lana, eta Bakea eta desmilitarizazioa.

ERRETIRATUAK

Izena eman daiteke zuzendaritza batzordean

M.B. > ESKORIATZA

Martxoaren 18an, eguna, urteko batzar nagusia egingo du Olazar erretiratuen elkar-teak, kultura etxeko areto nagusian. Bi deialdi daude: 17:30ean eta 17:45ean.

Gai zerrendan aurreikusita dauden puntuen artean, iazko kudeaketaren onarpena eta urteko kontuak eta aurrekontuaren azterketa daude. Gainera, estatutuaren 16. artikulua aldatuko dute eta zuzendaritza batzordeko kide berrien aukeraketa egingo dute.

Azken puntu horren harira, zuzendaritzakoek jakinarazi dute boluntarioek astelehenera arte, martxoak 8, dutela izena emateko aukera.

KULTURA > EGITARAUUA

Hitzaldiak, kontzertua, margo lehiaketa eta antzerkia daude, besteak beste, martxoan

Bihar, herriko gazteak sagardotegira joango dira; domekan, etxeko txikienek uretako puzgarriak izango dituzte kiroldegian

M.B. > ESKORIATZA

Martxoko kultura egitarauak askotariko ekimenak ditu. Hasieran dagoen aste bukaera honetan, esaterako, sagardotegira irteera eta umeendako uretako parkea egongo dira. Azken hori etzi, domeka, jarriko dute osteraren ere kiroldegiko igerilekuan, 16:00etatik 20:00etara. Bazkideek 2 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 3 euro. Bestalde, Eingeinketik sagardotegira irteera antolatu da biharko. Hernaniko Elorrabi sagardotegira joango dira bazkaltzera. Autobusa 11:00etan irtengo da estanko pareko geltokitik.

Hori asteburuari dagokionez. Bestalde, astelehenean egubakoitzera bitartean, banka etikari buruzko erakusketa ikusi ahalko da Ibarraundi museon. Banka etikoa zer den eta bere balore eta oinarriak zeintzuk diren azaltzea bilatzen da erakusketa horren bidez. Horren harira, egunean, martxoak 11, horren gaineko hitzaldia egongo da erakusketa jarriko den toki berean, 19:00etan. Haritz Azkue eta Alberto Minguez, Setem eta Fiareko



Bide Ertzean talde gipuzkoarrak *Leidor Sessions* izeneko lana aurkeztuko du martxoaren 19an, unibertsitatean.

GOIENKARIA

ordezkariak, eskainiko dituzte horren gaineko azalpenak.

HAURREN ELIKADURA

Hori, baina, ez da hilabeteko hitzaldi bakarra izango. Martxoaren 16an, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak haurren elikaduraren gaineko zalantzak argituko dizkie Luis Ezeiza herri eskolako aretoan biltzen direnei. Hitzordua 18:00etan dago jarrita.

Hilaren 19an, berriz, musika izango da nagusi. Bide Ertzean taldeak *Leidor sessions* lan berria aurkeztuko du unibertsitateko areto nagusian, 22:30ean. Jakina

denez, kontzerturako sarrerak dagoeneko salgai daude Inkernu tabernan, 5 eurotan.

MARGO LEHIAKETA

Martxoaren 25ean, liburutegian hilero egiten duten ipuin kontaketa egongo da; Vanessa Gonzalez izango da oraingoan han. Hurrengo egunean, hilak 26, *El principe de las mentiras* antzez-lana eskainiko du Eburne Arribabalaga aktoreak, unibertsitatean. Hilabetea amaitu baino lehen, gainera, IV. margo lehiaketa egingo dute herrian; martxoaren 28an izango da hori.

oharrak

UMEAK ETA GAZTEAK

> **Film emanaldiak egunotan**
Gaur, 18:00etan, film emanaldia egongo da Tortolis ludo-tekan; Gaztelekukoa, berriz, domekan da, ordu berean.

KIROLA

> **Kirol hitzorduak asteburuan**
Bihar, zapatua, Ohorezko ligako areto-futbola dago, Eskoriatza eta Calasanz artean, 16:00etan. Jarraian, senior mailako saskibaloia dago; etxekoek Zurt taberna izango dute aurrean. Domekan, berriz, Euskal ligako areto-futbola izango da, Eskoriatza eta Irish Pub Shepherds taldeen artean. 17:00etan izango da hori.

IKUSKIZUNA

> **Strip-tease emanaldia bihar**
O'Dogherty garagardotegian strip-tease emanaldia izango dute bihar gauean. Gauerdian hasiko da eta neska eta mutilek hartuko dute parte horretan.



UDALA > OSOKO BILKURA

Minimoetan oinarrituta, aurrekontuak onartuta

2010eko Antzuolako udal aurrekontua 3.613.504 euro izango da

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Udal Gobernuaren aldeko botoekin onartu zuten eguaztenean 2010eko udal aurrekontua. Abstenitu egin ziren EAJko zinegotziak, Ezke Batua-Zutik-Aralar-koak eta zinegotzi sozialista. Udalaren aurrekontua izango da 3.613.504 euro. Aurrekontu bateratua, Antzuolako Udal Etxegin-tzarena barne, 4.125.848 euro da.

ESKOLAKO ATERPEA

Gastuei dagokienez, eskolako aterpearen inbertsioak hartuko du aurrekontuaren zati handiena; hain zuzen, 819.000 euro. Gastu arruntek ere pisu handia dute aurrekontuan: 2.159.664 euro.

Kultura Sailean, langileen soldataz gain, herriko jaiek hartuko dute aurrekontuaren zati handiena: 44.100 euro (erretira-

tuen bazkaria eta txirrindulari lasterketa barne). Mundumira jaialdirako, ostera, 6.000 euroko diru partida gorde dute.

Aipatu behar da gaztetxe berria eraikitzeko diru partida 120.000 euro dela, orain dela urte batzuk adostutakoa errespetatuz. Pedro Iturbe alkateak adierazi zuen datozen urteei begira Udalaren funtzionamendu eta

inbertsio aukerak oso mugatuak direla. Hori kontuan hartuta, bi irizpide nagusi izan dituzte aurrekontua egiterakoan: "Herritarrei eskaini beharreko zerbitzu duina, alde batetik, eta eskolako aterpearen inbertsioa, bestetik".

BESTE ALDERDIEN IRITZIA

Pilar Etxanizek Ezker Batu-Zutik-Aralar koalizioaren izenean esan zuen eurek egin dituzten proposamenak "erdizka" jaso direla aurrekontuan. EAJk, berriz, prozesua kritikatu zuen, batzordeetan batu eta iritziak emateko aukera gutxi egon dela esanda. Paco Morcillo sozialistak politika sozialetan egin den murrizketa salatzen zuen; baina bizi dugun egoera kontuan hartuta kontra ez zuela bozkaturiko esan zuen. Hala, PSE-EEko zinegotzia ere abstenitu egin zen.

bere ustez



Kontxi Laskurain

Txalo eta txistu

Askotan gogoratzen naiz gure lagun Juan Antonio Lizarralderekin eta gaur aipatu nahi dut berarekin Brasilen egon direnak berari buruz idatzi zuten poemaren zati bat:

Punta de lanza, Miura de pura raza. Nobleza y constancia, Sencillez y entrega. Un hombre amigo. Un hombre santo.

Berak herria maite zuen eta... Orain bertan ere, Antzuolan, zenbat jende dagoen, isilean, gauza on asko egiten eta

"Antzuolan jende asko dago, isilean, gauza on asko egiten euren esfortzuaz"

bere inguruko batzuk bakarrik jakingo dute euren esfortzu eta eskuzabaltasunaz.

Hemen bizpahiru kasu azalduko ditut: hiritar batek baso lur batzuk herriari emango dizkio, hau bai herrikoia izatea! Beste gazte batek, botikarien kolegioak euskara bultzatzeko antolatutako lehiaketa irabazi du proiektu hau aurkeztuta; *Atentzio defizita eta hiperaktivitatearen asaldura*, ordu asko sartuta, jakina!

Azkenik, datorren igandean, etzi, Torresoroan kontzertua emango duen txistulari taldea, urte osoan gu alaitzen ahalegintzen direlako!

Guztiei eta hemen aipatu ez ditudanei ere, nire mirespena, eta zorionak!

KULTURA > MUSIKA

Txistu kontzertua izango da domekan Torresoroan

Abesbatzak eta metal boskoteak lagunduta egingo dute kontzertua, 12:00etan

A.E. > ANTZUOLA

Antzuolako txistulari taldeak urteroko kontzertua emango du domekan Torresoroan. Eguerdiko hamabietan hasiko da kontzertua, eta txistulariek Antzuolako abesbatzaren eta Bergarako bandako metal boskotearen laguntza izango dute.

Kontzertua hasiko dute Alfonso Ugarteren *Ordoiztik Etxartera* eta Ugarteren *Zortzikoa*-rekin; gero, *Ikusten duzu goizean* herrikoia eta Zubizarretaren *Ama begira zazu* joko dute; bukatzeko, *Neskaxarena*, *Oi euskara-Behin betiko*, *Tolosa* eta *Donostiarren abestiak* eskainiko dituzte.

AURTENGO BERRIKUNTZA

Ordoiztik Etxartera lana aurten go berrikuntza da, txistulariek dultzainarekin lagunduta joko dutena. Alfonso Ugarteren pieza da aipatutakoa.



Txistulari kontzertua.

I.A.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta (zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelheenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

> JENDARTEA

Armarriaren gaineko hitzaldiak martitzenean hasiko dira

Martitzenean, hilaren 9an, egingo dute armariaren inguruko lehenengo hitzaldia. *Contexto histórico de la supuesta batalla de Belate* izango da gaia; eta hizlariak Pello Esarte eta Angel Rekalde izango dira. Gaztelaniaz eta euskaraz izango da hitzaldia, 18:30ean, Torresoroan.

> KULTURA

Jone Larrañagaren akuarela eta olio pinturak Olanan etxean

Jone Larrañaga Gorritxok akuarela eta olio pinturak erakutsiko ditu Olanan etxean zapatuan eta domekan. 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara egongo dira Olanan etxeko ateak zabalik erakusketa ikusteko. Gaztea izan arren, pinturak zalea sun bizia du Larrañagak.

> KULTURA

Martxoaren 13ko bertso jaialdiko sarrerak salgai daude Udaletxean

Martxoaren 13an izango da jaialdia, 19:30ean, Torresoroan. Sarrerak, baina, dagoeneko salgai daude udaletxean: 16 urtetik gorakoek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 16 urtetik beherakoek, 3 euro. Arzallus, Gurrutxaga, Elozegi, Agirreazaldegia, Iriart eta Alberdi izango dira bertsoetan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Euskal Herriko sokatira txapelketa izan da Aramaioko kiroldegia jaso duen azken ikuskizuna, joan den urtarrilaren 30ean.

GOIENKARIA

UDALA > ZERBITZUAK

Udalak kiroldegia berritzeko aurreproiektua landu du

Kirol jarduera gehiago eskaintzea da helburuetako bat; aurrekontua, 614.000 eurokoa da

Teilatu azpiko solairuan jatetxea jartzeko aukera aztertu dute

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Kiroldegia berritzeko aurreproiektua landu du Udalak. Hiru dira kiroldegia berritzeko arrazoi nagusiak: irisgarritasuna legea betetzea, batetik; kirol jarduera gehiago eskaini ahal izatea, bestetik; eta, azkenik, herritarrei zein Aramaioko elkarteek bestelako zerbitzuak eskaini ahal izatea, bilera gelak eta tabernajatetxea, esate baterako.

Aramaioko kiroldegia 1986. urtean egin zuten eta egur laminatuarekin egin zen lehen eraikuntzetako bat izan arren, zaharkitua geratu da gaur. Beñat Men-

diburu udal arkitektoak egindako aurreproiektuan, igogailu bat eta eskailera berriak aurreikusuten dira irisgarritasun legea betetzeko. Era berean, gimnasioa, aerobik eta yogarako beste gela bat, biltegi handi bat eta herriko elkarteendako lau bat gela jasotzen ditu aipatutako aurreproiektuak.

KIROLDEGIA ETA KANTXA BEREIZI

Lau altuera izango lituzke kiroldegia, beheko solairua eta teilatu azpiko solairua barne. Hain zuzen ere, teilatu azpiko solairuan aztertu dute jatetxea jartzeko.

Terraza handi bat ere izango litzateke kiroldegiaren goialdean eta, solairu bakoitzean, aldagelak eta komunak.

Era berean, kiroldegiaren erabilera eta pilotalekuko kantxarena autonomoak izatea da helburua. Pilota partiduak eta beste-lako ikuskizunak antolatzen dituztenean, kiroldegiko erabil-tzaileek bestelako zerbitzuak erabili ahal izatea da helburua.

Berritze lanen aurrekontua 614.000 euro inguruko da eta Udalean baikor dira erakundeen aldetik proiektua egiteko diru laguntzak jasotzeko.

ALDARRIKAPENA > EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8a ospatzeko hainbat ekitaldi Itur-Zuri emakume elkartearen eskutik

Film eta antzerki emanaldiak, makilaje ikastaroa eta afaria iragarri dituzte, besteak beste

E.M. > ARAMAIO

Urtero moduan, Itur-Zuri emakume elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8a ospatzeko. Astelehenean, *Las chicas de la lencería* filmaren emanaldia izango dute kultura etxean, 18:30ean, eta aurretik pastak eta kafea hartuko dute bertaratuek. Ane Mondragonek makilaje ikastaroa emango du martitzenean, 18:30ean, eta zapatuko bigarren saioko ordutegia partaideen artean adostuko dute.

Eguenean, martxoaren 11n, Virginia Imaz klown ezagunak *Género y humor* izenburuko lana eskainiko du kultura etxean, 17:00etan, eta egubakoitzerako, hilaren 12rako, bingo-afaria iragarri dute Eskolako jangelan, 19:00etan hasita.

Azkenik, martxoaren 12an, antzerki emanaldia izango da kultura etxean, 22:00etan. *Wazemank* telebista saioko aktore ezagunak dira antzezlako protagonistak.



Xabinaitor antzezlana iritsiko da Aramaiora hurrengo zapatuan.

GOIENKARIA

BERTSO AFARIA ELOSUN BIHAR

Bestalde, Arabako Koadrilla arteko Bertso Txapelketaren barruan, Elosuko eta Aramaioko indarrak neurtuko dituzte zapatuan. Bertso afaria Elosuko

eliza ondoko aretoan izango da, 20:30ean. Izenematea 675 70 79 71 telefonoan (Asier Lafuente) egin daiteke. Bederatzi talde dira txapelketan lehian. Finala maiatzaren 8an Gasteizen jokatu da.

HEZKUNTZA

Hitzordu bikoitza Zuhaitz Egunerako

E.M. > ARAMAIO

Aramaioko ikasleek gaur eta hurrengo egubakoitzean, hilaren 12an, ospatuko dute Zuhaitz Eguna. Gaurko hitzordua haur hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa da eta hurrengo lehen hezkuntzako. Andra Mari baseliza inguruan egingo dute landaketa, Toki Alaiko hezitzaileen eta irakasleen laguntzaz. 3 eta 5 urte bitarteko 45 neska-mutikok zeukaten hitzordua gaur.

Lehen hezkuntzako ikasleek haginak, pagoak eta gorostiak landatuko dituzte Kurtzetan hurrengo egubakoitzean. Landaketaren ostean jolasak izango dituzte eta bazkaria egingo dute han.

> AZPIEGITURAK

Errepidearen itxieraren kontrako protesta bihar

AHTko lanek eragindako luitzi baten ondorioz Aramaio eta Arrasate arteko errepidea itxita dagoela eta, zapatuko elkarretaratzea deitu dute Gasteizen, Foru Aldundian, 18:00etan. Aramaioko hainbat elkarte egin dute deia. Konponbide azkarra eta segurua eskatu dute A-2620 errepidea berriro zabal dezaten.

> ERRETIRATUAK

Galiziar eta Portugalera bidaia apirillean

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, apirilaren 19tik 25era Galiziar eta Portugalera bidaia egingo dute. Autobusean irtego dira Aramaiotik. Besteak beste, Santiago, A Coruña, Finisterre, Braga eta Oportora bisitak. Izenematea, martxoaren 26ra arte zabalik.

> KONTSUMOA

Etxeko kontsumo arduratsua aztergai gaur kultura etxean

Aramaioko Udalak abian jarritako sentsibilizazio kanpainaren barruan, *Kontsumitu arduraz* helduentzako tailerra egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:00etan. Besteak beste, ura, gasa eta argindarra arduraz kontsumitzeko aholkuak emango dizkiete interesatuei.

ELGETA > AURREKONTUA

Udalak, aurten, iaz baino 800.000 euro gutxiago gastatu nahi ditu

Murrizketa handiena inbertsioen kapituluan aurreikusten du; iaz baino 600.000 euro gutxiago

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Onartu berria den aurrekontuan antzeman daiteke gastua murrizteko udal gobernuak duen premia. Murrizketa handiena inbertsioen kapituluan aurreikusten du Udalak. "Gobernu honek finantziarioa dagoenean egingo du inbertsioa", esan du Oxel Erosarbe alkateak.

Zentzu horretan estatu fondoko dirua baliatuko dute aurten eskolako fatxadako itoginak kon-

pontzeko, eta udaletzeko leiholak zein herriko hainbat baranda berritzeko.

Hiru proiektu idazteko dirulaguntza ere agindu du Diputazioak: patronatuaren eraikina berritzeko proiektua idazteko, San Roke kalean saneamendu lanak egiteko proiektua idazteko, eta Gudarien bidea oinezkoendako egiteko proiektua idazteko, hain zuzen ere. Aurten egingo dira, halaber, Ozkarbi

elkarteko zein sendagilearen kontsultako irisgarritasun lanak. Udalak, azkenik, lehentasunezkoztat jo du brigadako langileei ibilgailu berria erostea zein eskolan hainbat konponketa egitea.

OPOSIZIOAREN PROPOSAMENAK

Oposizioak babestutako aurrekontua da honakoa, nahiz eta udal gobernuak atzera bota dituen Patxi Basauriren taldeak egindako zenbait proposamen. Oposizioak aurrerapausoak nahi zituen, esaterako, Berraondokoa industriagunearekin eta Artekale amiantozko fatxadekin lotuta.

Inbertsio nagusiak (eurotan)

Ibilbide tematikoa	130.000
Eskolako fatxada	42.441
Baranda berriak	35.861
Lanak udaletxean	35.209
Lanak Ozkarbin	27.998
Lanak eskolan	25.000
Lanak kontsulatan	14.583
Bidegorria Asentziora	12.000

ELGETA

Domekan, korrika egiteko gonbitea

Emakumearen eguna ospatzeko lasterketa antolatu dute herrian

L.Z. > ELGETA

Bigarren mailako herritar izan nahi ez dugulako lelopean, domekan, lasterketa oso berezi batek zeharkatuko ditu Elgetako kaleak. Udal Ongizate sailak herritar talde batekin prestatutako ekimena da, Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko. Taldeka edo elkarteka antolatuta herritarrek izango dira lasterkariak. Lekuko bat eramango dute, eta eskuz esku ibiliko da lasterketaren ibilbide osoan.

Lasterketa 12:30ean abiatuko da Herriko plazatik eta, ordu erdiko ibilbidea egin ostean, leku berean amaituko da. Dantzan egiteko aukera egongo da orduan plazan, eta lekukoa zabalduko dute barruko aldarrikapena irakurtzeko. Erretiratuek ipinitako salda eta pintxoak ere egongo dira. Udalak herritarrek parte hartzea animatzen ditu, eta eskertu egin du antolakuntzan diharduten lana; bereziki gaztetxeok, erretiratuak, Alizia Gartzia eta Patxi Montero.

ELGETA > HEZKUNTZA

Birziklatutako gaiekin jolasak egin dituzte eskolan

L.Z. > ELGETA

Haur hezkuntzako umeek gonbidatuta guraso ugari hurbildu dira asteon eskolan egin dituzten jolasak ikustera. Puzzleak, bolo jokoak, dominoak, bikotearen bila eta hiru lerroan jokoak... erakutsi dute irudimenarekin eta zaborretara botatzen ditugun gaiekin jolas dibertigarriak egin daitezkeela.

JOLAS ERRALDOIAK

Tamaina handiko jolasak ere egin dituzte umeek; horien artean, futbolinak arrakasta handia izan du. "Guztiak birziklatutako gaiekin egin ditugu: arrautza kartoiak, plastikozko esne botilak, tapoiak, hostoak, intxaur azalak...", esan du irakasleetako batek. Gurasok ere ideia ugari hartu dituzte etxerako.



Umeak pozik eskolan egindako jolasak gurasoei erakusten.

L.Z.

elgetako oharra

BATZARRA

> **Ibilgailuen erabilera hausnartzeko azken foroa, eguaztenean**

Gauzak ondo bidean oinezkoen kaleetan ibilgailuen erabilera hausnartzeko foroak eguaztenean, hilaren 10ean, egingo du azken bilera. Bertan, orain arte adostutako arautegia aztertuko dute, eta beharrezko izanez gero aldaketak egin. Isunen sistema martxan ipintzeko dauden aukerak ere aztertuko dituzte.

ERRETIRATUAK

> **Karta joko txapelketan egin dute aurreko astean**

14 bikote elkartu dira aurten erretiratuen karta joko txapelketa egiteko. Briskan, Monika Garai eta Benedikta Bergaretxe nagusi dira, tutean Tomas Arizmendiarrak eta Jose Luis Irazabal, eta musean, berriz, Jose Luis Alkorta eta Zezilio Totorikagena. Briskak elkartu zituen bikote gehien; hamar hain zuzen ere.

elgetako frontenis txapelketa

Frontenisa zapatuan eta domekan

Elgetako II. frontenis txapelketa beste bost norgehiagoka jokatu dira aste bukaeran.

Hil amaierarako aurreikusten dute aurten finala antolakuntza lanetan dihardutenek.

AZKEN EMAITZAK

1. Eneko Maguregi-Andoni Elortza/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	20-25
2. Julen Barrutia-Mikel Mandaluniz/Asier Morales-Asier Untzetabarrenetxea	20-25
3. Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga	10-25
4. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Iban Retolaza-Xabier Ubera	22-25
5. Nagore Morales-Bertrix Zabala/Susana Jimenez-Olaia Jimenez	25-12

ZAPATUAKO PARTIDUAK, HILAK 6 (18:45)

1. Eneko Maguregi-Andoni Elortza/Adrian Gorostiza-Asier Osoro
2. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren
3. Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo/Julen Barrutia-Mikel Mandaluniz

DOMEKAKO PARTIDUAK, HILAK 7 (10:30)

1. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Iban Retolaza-Xabier Ubera
2. Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia/Susana Jimenez-Olaia Jimenez

LEINTZ GATZAGA > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

24 bat 'sorginek' bazkaria dute bihar

Gaur elikaduraren gaineko ikastaroa dago (18:30)

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko ikastaroa eta bazkaria antolatu du Sorginak Ema-

kume Elkartek. Elikaduraren gaineko ikastaroa gaur izango da (18:30) Garro jauregian eta ez dago izenik eman beharrik. Hor-

taz, herritarrek parte hartzea animatu gura dituzte antolatzaileek, "oso interesgarria" izango delako.

Amaitzeko Monasterioren Oñatiko dietista ezagunak jardungo du elikaduraren gaineko bi orduko saioan. Elikatzeko ohitura desegokiak eta gehiegikeriak aztertu eta beste aukera batzuk ezagutaraziko ditu; eguneroko jatorduek duten garrantzia jakinarazi eta elkartutako artean menu osasuntsu bat gertatuko dute.

ISUSKIAK ETA MUSIKA

Bihar, zapatua, ostera, bazkaltzera joango dira *sorginak* Gure Ametsa jatetxera. Hala egin izan dute elkarte sortu zenetik, 20 urtetik gora, eta aurten 24 bat emakume elkartuko dira, gazte, heldu eta nagusi.

Umore onean bazkaldu eta gero, hiru isuski zozketatuko dituzte elkartutako *sorginen* artean. Gero musika izango dute lagun bazkalostea girotzeko eta kantuan eginez eta dantzan pasatuko dute arratsaldea.

> LEINTZ GATZAGA

Mendekotasun legeak zer dioen azalduko dute astelehenean

Gizarte Zerbitzuek antolatuta mendekotasun legearen gaineko azalpenak emango dituzte astelehenean (18:00), kultur etxean. Laguntza ekonomikoa; mendekotasunaren balorazio prozesua; eskaerak zelan egin; zaintzaileen kotizazio eskubidea eta beste hainbat konturen gainean jardungo dute.

TXIRRINDULARITZA > AMATEUR MAILA

"Ziklista bati ezin zaio zenbat kilometro daramatzan galdetu!"

Ibarrean hiru ordezkari izango ditugu aurten amateur mailan lehian

Xabier Arantzeta, Asier Penabad eta Iban Caballero dira ziklistok

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ziklismo profesionala pauso batera dute erretratuko hiru lagunek, baina, euren onartu moduan, pauso galanta da hori. Debagoienean amateur mailan lehiatuko diren Xabier Arantzeta (Debabarrena), Asier Penabad (Bidelan Kiroldi) eta Iban Caballero (Debabarrena) ditugu erretratuko lagunak, eta orain momentuan eurak dira ibarrean kategoria zorrotz horretan jarraitzea animatzen diren bakarrak. Nekatuta, berriz, azken urteotan txirrindularitzaz beste modu batean gozatzeko –edo bizikleta berriro ez hartzeko– erabakia hartu dute Larreak, Varelak, Arantzabalek eta konpainiak.

Ondoko hiru lagunek barrutik bizi duten kirola da txirrindularitza; derrigor, adin horretan egin beharreko esfortzua itzela da-eta; ziklista izatea ez da zapatu gauetan etxean lasai gertatzea soilik, askoz ere haratago doa. Horretaz guztiaz egin du berba GOIENKARIAK ibarreko hiru ordezkariekin. Eta ziklistei egindako lehenengo galderaren aurrean [Zelan joan da negua? zenbat kilometroekin hasiko dituzue lasterketak?], hiruretan gazteenak –Arantzeta– berehala bota du umorez: "Horrelakorik ezin da galdetu, emakume nagusi bati ze adin duen galdetzea bezala da!". Barre egin dute hirurek. Caballerok proba egin nahi du aurten, kilometro-kontagailu barik ibiliko da. Penabadek, berriz, kilometro-kontagailua begiratzeko keinua egin du, baina isilik geratu da, artzainak artaldearen zenbatekoa isilpean gordetzen duen moduan.

ZALETASUNA BAINO GEHIAGO

Lokatza ziklismo eskolan egiten duten lan onaren hiru emaitza dira gaurko protagonistak, atzetik datozen gaztetxoendako erreferente. Baina hirurak ez daude egoera berean: "Baliteke aurten goa nire azken urtea izatea", adierazi du Caballerok. "Dagoeneko hiru urte daramatzat amateur mailan, eta kirol hau oso lotua da. Hemen gabiltzanok beste gauza asko utzi behar izaten ditugu alde batera, eta nekagarria ere bada. Udaberriean, Udaltzeko hasierako belardiak berde-berde ikusten ditudanean mendira joateko gogoa sartzen zait, baina ezin dut horrelakorik egin".

Azken urtea izan daitekeenaren aurrean Bergarakoak serio ibili nahi du: "Bizikleta gainean gustura ibili eta taldekideei konpromisoa erakutsi. Izan ere, helburu zorrotzgiak jartzeak ez du zentzu handiegirik, kategoria honetan aurrean dabilzanak ia profesionalen modura bizi direlako: entrenatu, lasterketara joan eta deskantsatu, ez dute besterik egiten. Guk, berriz, ikasketak ditugu tartean eta horrek eskatzen du egunerokoa ondo antolatzea. Baina bai, urteekin ikasi dut zelan entrenatu, eta elikadurarekin ere zorrotz nabil".

Xabier Arantzeta beste muturrean dago, kategoriara iritsi berria da-eta. Gazteena izanda, Antzuolakoak oso garbi dauka orain zerk duen lehenetasuna: "Debabarrena taldea ezin proposagoa da niretako. Lokatzen familiartean geunden, baina Debabarrenan ere berdin hartu naute. Emaitzak eskatzeko orduan ez da talde batera zortza, harrobi lana egitea da euren helburu nagusia eta lasai ibiltzeko esan didate, ikasketetan burubelarri egoteko".


Caballero eta Arantzeta Ingeniaritza ikasten dabilta, eta Penabad Irakasle ikasketak egiten dabil. Horrek ez du bizikleta gainean ibiltzeko nahi beste tarte uzten.

LASAITASUNAREKIN HARTZEA

Arantzeta kasuan, lehenengo urtea izanda pentsaezina da tropelean aurrealdean ibiltzea, ez du zentzurik emaitzak eskatzen ibiltzeak. Iaz, gazte mailan, tropeleko erreferenteetako bat zen, eta aurrealdean ibili eta podiumetara igotzetik lasterketak justu-justu amaitzera pasa beharko du. Garbi dauka hori: "Ezin naiz burujanean ibili. Frantzian hasi dut denboraldia, eta dagoeneko eman didate lehenengo lepoondokoa; jende oso ona zegoen proban, hainbat selekzio tartean, eta munduko txapelak izandakoak ondoan. Han garbi ikusi dut aurten non ibiliko naizen, nahiko lan tropela ez galtzen! Ihesaldietan sartzea eta horrelakoak beste baterako utzi beharko ditugu".

Eta hori da, hain zuzen, dagoeneko kategorian beterean den Penabadek eman dion gomendioa: "Lehenengo urtean, lasai, gozatzek ahalegin dadila. Eta lasterketak amaitu ezinka baldin badabil ez larritzeko, normala delako. Egia da kategoria honetara salto egiten den lehen urtea gogorra dela, baina hau da benetako txirrindularitza. Gazte mailakoak baino lasterketa askoz politagoak dira amateur mailakoak: kilometro gehiago, mendate handiagoak... gogorragoa da, baina neurri berean politagoa".

IBARREKO ZIKLISTA AMATEURRAK



Iban Caballero

Bergara, 1989.
Debabarrena taldea.
Hirugarren denboraldia.

Gorlako lasterketan egotea espero dut, bai. Etxetik, gainera, mendatearen lehenengo zatia ikusten dut, eta gaztetatik aitarekin jarraitu izan dudana lasterketa da hori. Ea lasterketa horretarako gorputzaldi onean nagoen.

Asier Penabad

Bergara, 1988.
Bidelan-Kiroldi taldea.
Laugarren denboraldia.

Etxean korritzeak beti ematen du motibazio berezia, ezagutzen duzun jendearen aurrean zabilzako. Baina urduriago ere egoten gara. Iaz gaixorik hasi nuen proba eta ez nuen lasterketa amaitu. Arantzeta hori atera nahi dut.

Xabier Arantzeta

Antzuola, 1991.
Debabarrena taldea.
Lehenengo denboraldia.

Espero dut Gorlako igoeran egotea. Ibanek komentatu duen moduan, etxe ondoan horrelako izen handiko lasterketa bat izanda denok parte hartu nahi izaten dugu. Proba amaitzea gauza handia izango litzateke.



Arantzeta, Penabad eta Caballero, martitzenean Bergarako Domingo Irala kalean. Elkarrizketa

PENABAD, KOSKA BAT GORAGO

Asier Penabadek Bidelan-Kiroldi taldean korrituko du aurten; tropeleko talde indartsuetako bat da, Euskal Herriko eta inguruko

ziklistekin osatutakoa eta hori bai eskatuko dizkiote emaitzak –dagoeneko Espainiako Kopan lehiatu da, Extremaduran–. Azken hiru denboraldiak Debabarrenan egin ditu, eta deba igartzen duela dio: "Debabarrena ziklistak formatzeko talderik proposena da. Entrenamenduak nork bere kabuz egiten ditu eta urteko egutegia ere murriztagoa da. Bidelan Kiroldin, berriz, entrenamenduak askoz ere espezifikagoak dira [hankak askatzeko egunetan ere serieak egin behar ditu], taldeko prestakizunak gidatzen du gutako bakoitzaren prestakuntza, eta taldean ere medikua dugu, analisiak egiteko. Horrekin batera biomekanikorenean ere egon gara... Koska bat gorago dagoen taldea da, eta emaitzak ere zorrotzago zaintzen dituzte. Hori guztia ikusita, norberak ere seriotasun handiagoarekin hartzen du txirrindularitza; azkenean, taldeak egiten duen lan hori guztia emaitzekin bueltatzea nahi izaten dugulako".

PROFESIONALETARAKO ILUSIOA?

Seguruenik, amateur maila txirrindulari baten ibilbidean kategoriarik gogorrena izango da;



egin aurretik, entrenatzeko aprobeztatu zuten arratsaldea.

XABIER URTZELAI

bai, behintzat, aurrealdean ibili nahi dutenendako. Profesionaltasunak ematen dituen *lan baldintzak* izan barik, egunerokoan ia euren parean egon behar dute bertara salto egin nahi dutenek.

Hala, Caballerok onartu du galduta duela maila gorenera salto egiteko ilusioa: "Hasierako urteotan denok izaten dugu ilusio hori, baina ni neu beste helburu batzuekin nabil. Gustuko dut bizikleta, zaletasuna da niretako eta horregatik jarraitzen dut bizikleta gainean". Penabad ere ados dago, gustuko duelako dabil bizikleta gainean: "Baina niretako zaletasuna baino gehiago ere bada. Zaletasuna bakarrik izango balitz izan seguru aurtengo neguan egin duen eguraldiarekin egun askotan etxean geratuko nintzatekeela. Batzuetan, beste aukerarik ez dagoelako eguraldi txarrarekin entrenatzen irten eta zikloturistak errepean ikusten ditudanean...", dio barre eginez.

Penabadek ere zail ikusten du profesional izatera iristea, kompetentzia itzela dagoelako, eta txirindularitza ez dagoelako unerik onenean. Mendian edo errepean, bizikleta gainean

ibiltzen da gustura, baina garbi adierazi ez badu ere, aurtengoa duen ahalegin bakoitzaren atzean –eta asko izango dira– gora igotzeko itzaropena gordeko du, seguru.

ORAINGO ASTEBURUAN LANERA

Joan den asteburuan Soraluzeko lasterketa bertan behera utzi zuten haizetea tarteko. Arantzetaren debuta izan behar zen Euskadiko zirkuituan, baina bihar Debabarrenakoak Ereñoko sari nagusian –Lehendakari txapelketa– ikusi ahal izango du katego-

ria berri mendateak zelaz igotzen dituzten: "Bai, ze Frantzian etapa guztiak platoa sartuta korritu genituen".

Penabad, berriz, domekan Espainiako kopan lehiatuko da, Aiztondoko klasikoan (Asteasu). Oraingoan, behintzat, etxe ondoran: "Gogorra da kanpora joatea. Extremaduran [Circuito del Guadiana] domekan izan genuen lasterketa. Proba amaitu eta furgonetara sartu ginen segituan, dutxatu barik, bueltan etortzeko". Eta noski, astelehenean klasera, hutsik egin barik.

KONTUAN HARTZEKO

Gazte mailako Soraluze E. Koop. sariak estreinatuko du gurean denboraldia

Lokatza ziklismo eskolakoek oraingo asteburuan bertan ekingo diote aurrean duten hitzorduz betetako denboraldiari. Zapaturako, 10:00etan hasita, gazte mailako lasterketa antolatu dute, Osintxun. Ziklistek 87 kilometroko proba izango dute aurrean.

Joan den asteburuan haizetea zela-eta hainbat kategoriatan egin beharreko lasterketak bertan behera utzi zituzten; hortaz, askok asteburuan hasiko dute denboraldia. Lasterkariak, tartean Lokatzako gazte mailako ziklistak, Osintxuko irteera puntuan egongo dira. Horrekin batera, Aloña Mendiko ziklismo sailekoek domekan egingo dute taldearen aurkezpena, 11:00etan, Etxe Aundin. Gainera, gazte mailako ziklista oñatiarrek Lokatzan korrituko dute aurtengoa.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

OTSAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA

ESAIT-eko termiko berdea eta bisera



IRABAZLEA

Urri
Urizar

Aretxabaleta

UMEENTZAKO PUZZLEAK

Ikastolen Elkarteko umeentzako puzzleak.



IRABAZLEA

Amaia
Ugarte
Bolivar

Aramaio

SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Lagun Aroren partidurako sarrerak.



IRABAZLEA

Miguel Angel
Elkoroberezibar

Donostia

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Euskal selekzioko zira



IRABAZLEA

Iñaki
Elortza
Garro

Arrasate

OREKA TX ENTZUTEKO SARRERAK

Espaloian Oreaka TX entzuteko sarrerak



IRABAZLEA

Maria Jesus
Ramirez
Telleria

Antzuola

SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Oinatz, Laudoren kontrako partiduan, domekan.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

UDaren hurrengo helburua: bi puntura dagoen Zalla

Ibarreko ordezkariak etxetik kanpora jokatu dute oraingo asteburuan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hirugarren mailan, Aretxabalek Zallaren etxean biribildu nahi du azken asteotan izan duen erre-akzioa (domeka, 17:00, Landaberrri). Orain kontrarioek egiten dituzte azarotik hona Aretxabalek behin eta berriro errepikatu dituen akatsak, eta, ikasgai

hori ikasita, Gordobilen mutilek urrea batu dute azken bi jardunaldietan.

GAINONTZEKOEK ERE KANPOAN

Ohorezko erregional mailan Mondrak, Aloñak eta Bergarak kanpoan jokatu dute. Oñatikoek izango dute kontrario gogorre- na, aurrealdeko postuengatik lehian dabilen Ondarroako Aurrera (zapatua, 16:30, Zaldupe). Bergarak jaitsiera postuetan murgilduta dagoen Euskalduna izango du bihar aurrean (16:30), eta Mondrak Ordizian jokatu du, bihar baita ere (16:00).

> SASKIBALOIA

MUK domeka arratsaldean hasiko du fase erabakigarria

Lehenengo mailan, Javi Zurbaren mutilek domekan hasiko dute jaitsiera fasea, sailkapen berrian bigarren dagoen Baskoniaren kontra (18:00, Iturripe).

Maila autonomikoan, berriz, lider dagoen Aloña Mendik seigarren dagoen La Salleren kantuan jokatu du bihar (20:00). Azkenik, Eskoriatzako neskek bigarren daude sailkapenean, eta zapatuan Zurt tabernakoak izango dituzte aurrean (18:00).

> ZIKLOTURISMOA

Ibarreko zikloturistek asteburuan hasiko dute denboraldia

Arrasateko Debagoiena zikloturista taldeak eta Bergarako Txirrindulari taldeak domekan hasiko dute denboraldia. Bi taldeek irteera bera egingo dute urteko lehenengo saioan, Dorletako Amarengana joango dira-eta lore eskaintza egitera. Bergarakoak 09:00etan irtengo dira San Martin plazatik; Arrasatekoak 09:30erako egin dute hitzordua, Inazio Zuloaga kalean duten lokalean.

asteburuko hitzordua

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Numantzia
Domeka. 17:00. Anoeta.

Hirugarren maila
Zalla-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Lemona.

Gazteen liga nazionala
Aretxabaleta-SD Leioa
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Gazteen euskal liga
Bergara-San Martzial
Domeka. 17:30. Ipintza.

Ohorezko erregionala maila
Aurrera Onda.-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
Ordizia-Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.
Euskalduna-Bergara
Zapatua. 16:30. Andoain.

Erregional preferentea
Antzuola-Lazkao
Zapatua. 16:30. Estala.
Orioko-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Mendibeltz.

Lehen erregionala, igoera
Allerru-Bergara
Zapatua. 17:30. Plazeta.
Oiarzun B-Mondra
Domeka. 18:30. Oiarzun.

Lehen erregionala, kopa
UDA Arizmendi-Segura
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Gazteen ohorezko maila
Beti Gazte-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Maistegi.
Billabona-Mondra
Zapatua. 16:30. Arratzain.

Gazteen lehen maila, igoera
Behobia-Aretxa-Arizmendi B
Zapatua. 17:30. Irun.

Gazteak, kopa
Bergara-Urki
Zapatua. 17:00. Bergara.

Kadeteen ohorezko maila
Kostkas-Bergara
Domeka. 11:00. Donostia.
Reala-Aretxabaleta-Arizmen.
Zapatua. 12:15. Zubieta.

Emakumezkoen igoera fa.
Allerru-Mondra
Zapatua. 15:30. Lezo.
Arizmendi-Intxaurdi
Domeka. 15:30. Almen.

Emakumezkoen kopa.
Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

Euskal liga
Eskoriatza-Irish Pub
Zapatua. 20:00. Intxaurtxue.

Gipuzkoako bigarren mai.
Errexil-UDA Orly
Zapatua. 16:00. Azkoitia.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila
MU-Fundacion Baskonia
Domeka. 18:00. Iturripe.

Maila autonomikoa
La Salle-Aloña Mendi
Zapatua. 20:15. Salle.

Gazteak, Euskal liga
Easo-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

Senior gizonetakoak
Astigarraga-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Astigarraga.
Aloña Mendi-Carnicas Erroi.
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

MU-Errotaundi
Gaur. 20:00. Musakola.
DKS-Soraluce BKE BS
Zapatua. 20:00. Benta B.

Senior emakumezkoak
Eskoriatza KE-Zurt tab.
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketa
Sucesores-Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

Euskadiko senior emak.
Askartza-Verkol Aloña Men.
Domeka. 12:30. Leioa.

Lehen territorial maila
Egia Relj.-Soraluce BKE
Zapatua. 17:30. Egia.
Elgoibar-Izarraitz Aloña
Gaur. 21:00. Elgoibar.

ZIKLISMOA

Gazte mailako Soraluce Koop. Sari nagusia
Zapatua. 10:00. Osintxun.

GIMNASIA ERRITMI.

Gipuzkoako eskola arteko erakustaldia
*Joan den astean Labegarietan bertan behera utzitakoa.
Zapatua. 16:45. Uarkape.

PIRAGUISMOA

Eskola Arteko piraguismo txapelketa
Zapatua. 15:00. Bergaran, Labegarietan.

Egin dugu salto

Orain digitalera salto egin dugu:

> **ARRASATEN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean: ARRASATEN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean: BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.



Ikustekoa!



Maidar Arregi, GOITBko kazetaria, Elgoibarko Mendatan zubisalto egin ondoren.



> **EMAKUMEEN EGUNA**
Bi antzezlan daude asteburuan gai horrekin lotuta > 32



> **ANARI**
Musikariak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Arrasaten > 33



> **ANTXON HERNANDEZ**
Bergarra da Antxon Hernandez eta 21 urte ditu; saskibaloian jokatzen du UPV Araba taldean, eta ikaslea ere bada > 35

Danbakaren uzta: The Wet Band eta Adi Holdenen diskoak

THE WET BAND

Epaimahaiaren sari nagusia eta ikusleena eskuratu zituzten; 'Waterproof' diskoa kaleratuko dute

ADI HOLDEN

Bergarrek giro lasaiak eta intentsitate handiko uneak tartekatzen dituzte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Danbaka musika lehiaketako iazko uztaren emaitza iritsiko zaigu hurrengo astean. Hain zuzen ere, lehiaketaren hirugarren ekitaldian epaimahaiaren sari nagusia eta ikusleena eskuratu zituen The Wet Band taldeak *Waterproof* izenburuko diskoa kaleratuko du. Era berean, Adi Holden bergarrek ere (Debagoienerako talde onena Danbakan) taldearen izena daraman diskoa aterako dute. Aurkezpena eguenean, hilaren 11n, egingo dute, Donostiako FNACen, 11:30ean.

The Wet Band 2007an sortu zuten, Mutrikun, eta esan bezala, Danbakako sorpresa nagusietako bat izan zen Elgetako Espaloia Kafe Antzokian emandako kontzertuetan. Adi Holden eta Normanekin batera sailkatu ziren finalerako, eta bi sari eraman zituzten etxera. Orain, sari gisa, lehen diskoa aterako dute. Joan den urrian ekin zioten grabatze-ari, Arrasateko Shot! estudioan. Endika Lekube taldeko gitarristaren hitzak dira: "Iñaki Bengoak eta Txema Linazisorok primeran hartu gintuzten, eta uste baino hobeto moldatu ginen. Kontzertuak alde batera utzi eta lokalean entseatzeari jo eta ke egin genion estudioan sartu aurretik". Hamabi kanta batu dituzte diskoan, estilo ezberdinekoak, Endikaren arabera; "egia da 1970eko hamarkadako hard-rockera jotzen dugula asko; baina, rocka oinarri hartuta, ukitu lati-



Ainara Etxearte, The Wet Band-eko abeslaria, Danbakako finalean. J. ARANTZABAL

noak, funkya edo stonerra ere badira diskoan". Diskoaren izenburuarekin The Wet Band izenari nolabaiteko jarraipena eman nahi izan diote: "Erdi txantxetan proposatu zigun lagun batek izena eta handik abiatuta *Water resis-*


tant kantua idatzi nuen, diskoko bosgarrena, hain zuzen ere. Bakardadea eta euriaren arteko partekatzea zelanbait egiten dugu kantu horretan, euria, gehienetan, gogaikarria gertatzen delako", dio mutrikuarren gitarrak. Danba-



Adi Holden, Danbakako kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL



The Wet Banden diskoa.



Adi Holdenen diskoaren azala.

Bitter Honey arrasatearrek ere diskoa aterako dute

Danbakan parte hartu zuen beste talde batek ere diskoa plazaratuko du datorren astean: Bitter Honey arrasatearrek. Urdulizko Tio Pepe estudioetan grabatutako auto-edizioa da eta *Songs of love & destruction* da diskoaren izenburua. Bederatzi kantuz osatutako lana da eta 5 eurotan jarriko dute salgai ohiko tokietan. Era berean, martxoaren 26an 3 aretoan joko dute, Cool Circus taldearekin batera.



Bitter Honey arrasatearrek, Danbakan emandako kontzertuan. J. ARANTZABAL

ka irabazi zutenetik bada aldaketa nabarmen bat: Endika Kerexeta saxo-jotzaile eta pianista gehitu zaio hasierako laukoteari. Zuzenekoekin egin bezala, zeresana emango dute euren lehen diskoarekin.

ADI HOLDEN, IBARREKO ONENAK

Adi Holden bergarrek ere Arrasaten egin zuten diskoaren grabaketa, azaroan, Danbakan Debagoienerako talde onenari zegokion saria irabazi ondoren. Giro lasaiak eta intentsitate handiko uneak tartekatzen dituzte diskoan: 11 kantu eta, horien artean, Hüsker Dü-ren *Dianne* kantuarien bertsioa. Urtarrilaren 30ean jo zituzten diskoko kantuak jendaurrean lehen aldiz, Bergarako gaztetxean, The Hot Dogs taldearekin emandako kontzertuan. Oraingo ez daukate beste hitzordurik datozen asteotarako.

The Wet Bandek, aldiz, aurkezpen birari ekingo dio gaur Bermeon eta martxoaren 19an Arrasateko 3 aretoan izango ditugu, Uek eta Kraussk taldeekin batera. Danbakan euren burua eza-gutarazi zutenetik, mutrikuarrek jarraitzaile asko dituzte gurean eta jotzeko irrikaz daude. Motorrak berotzen hasteko, datorren astetik haien diskoa izango duzue eskuragarri.

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat emanaldi izango dira

'Rosas rojas' tratu txarren gaineko antzezlaneko hiru saio egongo dira

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunerako: antzezlanak, erakusketak, ikastaroak eta zinema saioak izango ditugu bailaran Emakumeen Egunaren harira.

Hala, adibidez, La Papa antzerki taldearen *Rosas rojas* antzezlan ikusteko aukera izango dugu Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran.

Martxoaren 7an, domeka, Oñatin taularatuko du bere azken lana, 19:30ean, Santa Ana aretoan. Dagoeneko sarrerak salgai daude kultura etxean eta 10 eurotan eskura daitezke. Martxoaren 8an, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango dira, 19:30ean, eta sarrera dohainik da. Bergaran martxoaren 19an, egubakoitzean, ikusi ahalko da *Rosas rojas* antzezlan. Kasu horretan, 22:30ean izango da, Zabalotegi aretoan, eta sarrerak ordubete lehenago jarriko dituzte salgai, 5 eurotan, aretoko leihatilan.

MAITASUNA ETA TRATU TXARRAK

Rosas rojas antzezlan tratu txarren gaineko hausnarketa da. Lydia eta Raul protagonisten arteko maitasun harremanean



Rosas rojas antzezlaneko protagonistak, eszena batean.



Cruzadas cotidianas-eko eszena bat.

EMANALDIAK > MARTXOAK 8

Kultura ekitaldiak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

manipulazio emozionalaren seinaleak agertzen hasiko dira pixkanaka, azkenean tratu txar fisikoak agertu arte. Antzezlan

horrekin, maitasun istorioen sorreran antzeman daitezkeen hainbat jarreraren inguruan hausnarketa egiten du Ricardo

Combi zuzendari eta idazleak, jarrera horiek etorkizunean portaera agresibo bihurtu daitezke-eta.

IKASTAROAK, ZINEMA...

Emakumeen Eguna dela-eta, beste hainbat ekintza antolatu dituzte, eta emakumeek egindako bestelako emanaldiak ere badaude.

Besteak beste, Aretxabaletako Udalak autodefentsa ikastaroa antolatu du martxoko zapatu guztietarako. Ikastaroa doan izango da. Gainera, gai berarekin lotutako zinema-foruma egongo da eguenero. Hurrengo saioa martxoaren 11n izango da eta *Leonera* fil-

ma ikusi ahal izango dugu. Arratsan, *El club de las mujeres invisibles* antzezlan aurkeztuko du Vaiven taldeak martxoaren 14an, domeka. Bestalde, Antzuolan, Jone Larrañagaren lanaren erakusketa izango da Olanaren, eta Bergaran Nagore Igartzaren lana ikusgai da Aroztegi aretoan. Horrez gain, gaur, egubakoitza, *Cruzadas cotidianas* antzezlan egongo da Zabalotegi aretoan (22:30) eta hainbat aldarrikapen modu umoretsuan egingo ditu Cristina Castillo aktoreak. Sarre-
rak 5 eurotan jarriko dira salgai egun berean, aretoko leihatilan.

ANTZUOLAKO EMAKUMEA LANEAN

Antzuolarren argazkiak erakusketarako

Emakumeen Eguna dela-eta, *Antzuolako emakumea lanean* gaia oinarritzat hartu du Antzuolako Udalak erakusketa antolatuzko. Ekimen horrekin, herriko emakumeek urteetan zehar egin duten lana argazki bidez jaso nahi da. Horregatik, herritarren parte-hartzea eskatzen da, erakusketa euren argazkiekin osatuko da-eta. Argazkiak udaletxean bertan edo Torresoroan utzi daitezke martxoaren 24ra arte eta astebeterra bueltatuko zaizkie. Erakusketa data oraindik zehaztu gabe dago.

Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia > Bertsolariak

"Emakumearen eta gizonaren arteko zubia oraindik ez dago orekatua"

N.O. > ARRASATE

Eguaztenean Arrasaten izan ziren Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak berbaldua egiten, eta Goiena Telebistan elkarrizketa egin zieten Alberdiri eta Agirreazaldegiri.

Emakumeak eta bertsolaritza; gero eta lotura estuagoa dago bi horien artean?

Uxue Alberdi: Orain dela ez hainbestera arte bertsolaritza gizonetzkoen eremua zen, eta emakumeek bizi baldin bazuten, eremu pribatua eta gizartearekin elkarrekintzarik gabe bizi zuten.

Gero, autoreen aldetik ez zen gehiegi zabaldu, baina ikusleen aldean presentzia nabaritzen hasi zen. Egun, hirugarren fase batean gaudela esan daiteke: autoreen artean gero eta gehiago gara emakumeak eta entzuleen artean ere bai. Hala ere, zubia oraindik ez dago orekatua eta horregatik zubiaren bi aldeak orekatuzera egin beharko genuke.

Autore lanari dagokionez, zenbat emakumeek diharduzue gaur egun bertsolaritzan?

Ainhoa Agirreazaldegia: Hori da kontua, bertsolaritza ez dute autoreek bakarrik osatzen.



Alberdi eta Agirreazaldegia, GOITBko platoon.

GOIATZ ARANA

"Bertsolaritzako eremu guztietan emakumearen begiradaren presentzia kontatu behar genuke"

Ainhoa Agirreazaldegia

Kopuru eta ezaugarriak bezain inportantea da inguruko beste elementuen partaidetza. Entzuleak dira faktore garrantzitsu

bat, antolatzaileak, bertsolariak, kritikariak, eta horietan guztietan emakumeen eta emakumearen begiradaren presentzia kontatu beharko genuke. Berez, handitzen ari den eremua da eta horiek guztiak hartu beharko genituzke kontuan bertsolaritza ulertzeko.

Edozein kasutan ere, emakumea eta bertsolaria. Maialen Lujanbio, Euskal Herriko txa-

pelduna, Euskal Herriko txapelketako txapela jaso duen azkena eta lehen emakumezkoa. Eta hori garrantzitsua izan zen, ezta ?

A.A.: Bai, garrantzitsua izan da sinbolizatzen benetan emakumearen presentzia, eta denok dakigu gizarte honetan ereduak zein pisu duten eta zenbat erabili duten. Gainera, sinbolo horren barruan dagoen mamia ere pixka bat aztertzen hasteko garrantzitsua izan da.

U.A.: Horretaz gain, orain arteko kanonaren gailurra Andoni Egaña izan da urte askoan eta uste dut garrantzitsua dela Maialenen ekarpena teorizatzea eta transmititzea, Andoni Egañarena egin den besteko seriotasunez eta lanez.

Zer eman dizue bertsolaritzak?

A.A.: Gauza asko eman dizkit. Jende asko ezagutzeko aukera izan dut, ikasteko aukera, lagunak egiteko aukera eta nire buruaz ikasteko aukera.

U.A.: Gizartearen maketa izan daitezkeen aldetik, zure buruari maketa horren barruan begiratzeko aukera ematen dizu.

MUSIKA > KONTZERTUA

'Irla izan' aurkeztuko du bihar Anarik, Amaia antzokian egingo duen emanaldian

Disko berriaren aurkezpen kontzertua 20:00etan izango da; sarrera hamar euro ordaindu behar da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Martxoaren 8aren atarian zuzeneko ezin hobea da Anarirena. Arrasateko Udaleko Kultura Sailak aspalditik ekarri gura zuen artista azkoitiarra Amaia antzokira, gurean disko berria aurkez zezan. Hala ere, adierazi dutenez, Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan badator, "askoz hobeto". Izan ere, aldarrikapen eguneko egitarauaren barruan sartu dute Anariren kontzertua. Baina taldekideek jakinarazi dutenez, bihar-

ko kontzerturako ez dute Emakumeen Egunarekin lotutako ezer berezirik aurreikusi. Horrek, baina, ez dio emanaldiari interesgarritasunik kentzen.

SENTIMENDU ERAGILE

Anari ez da musikari oparoa. Diskoak ekoizteko orduan diskogintzan egon ohi den erritmoa ez du beste hainbat musikaririk moduan errespetatzen. Hau da, ez du ene zehatzetan diskoa ateratzen. Jarraikotasun horren faltak,

baina, ez du eragozten diskoa ateratzen duenean Anariren izena nonahi agertzea. Haren material berriak erakarri egiten du, finean, haren ahotsaren sakontasunak hamaika sentimendu sorrazten dituelako.

45 MINUTU INGURUKO BIDAIA

Hamar kantu ditu *Irla izan* diskoak; 45 minutu inguruko bidaia. Grabazioa eta nahasketa Karlos Osinagarekin egin dituzte, Garate estudioetan. 2009ko urrian kaleratu zuten eta hamaika lekutan aurkeztu dute diskoa. Eta oraindik ere aurkezpen bira luzea geratzen zaie...



"Beraiek gabe ez naiz ezer", esan ohi du Anarik taldekideen inguruan. Haiekin joko du bihar Arrasaten.

BIDEHUTS

MAGIA > IKASTAROA ETA MOSTRA

Magia zaletasuna bultzatzea helburu, bihar hasiko dira elgetarrak ikastaroarekin

Hilabeteko atzerapenarekin hasiko da ikastaroa; irakaslea Jose Angel Suarez ilusionista izango da

J.B. > ELGETA

Maiatzera arte itxaron beharko da Elgetako Espaloiko jaialdi bereizgarrietako bat den Magia Mostra hel dadin. Azken orduko aldaketarik ezean, maiatzeko bigarren aste bukaeran egingo da VI. Magia Mostra. Oraindik denbora luzea falta bada ere, ekimen horren barruan sartzen den

magia ikastaroa bihar hasiko da. Espaloiak hainbat mago eta ilusionista ditu lagun, eta, horri esker, horietako bat prest agertu da bere ezagutzak partekatzeko.

Jose Angel Suarez ilusionistaz ari gara, magiaren munduan 25 urte daroatzen adituari buruz, hain zuzen. Gainera, 11 urtez izan da magia irakasle. Esanda-

ko moduan, bihar hasiko da ikastaroa, eta, bi hilabetez, zapatu goizero ordu eta erdiko saioak emango ditu Suarezek (11:30-13:00). Irakasleak aditzera eman duenez, magia zaletasuna bultzatzea eta hastapeneko oinarrizko trikimailuak irakastea da ekimenaren helburua. Suarezek honako uste du-eta: "Magia ez da egun baterako zaletasuna, bizi osorako baizik".

15 LAGUN ASKO JOTA

Oraingoz, hamar lagunek eman dute izena. Suarezek 15 ikasle gura ditu asko jota, dioenez, eskolak "martxa onean" joan daitezten. Gogotsu dago elgetarrekin bere ezagutzak partekatzeko.

Azkenik, Suarezek ezin izan du Magia Mostraren gainean ezer aurreratu. Itxaron egin behar...



Ikus-entzunezko bikainaz gozatu ahalko da gaur Espaloian.

GOIENKARIA

IKUSKIZUNA > 'NOMADAK TX ZUZENEAN'

Mundukideri esker, Oreka TX izango da gaur Espaloian

Urteko lehen elurteak atzeratu ostean, gaur dator 'Nomadak TX Zuzenean' ikuskizuna, Mundukidek hamar urte bete dituelako

ZUZENEKO BIDAIA MUSIKATUA

Aski ezaguna da Oreka TX txalapartarien *Nomadak TX zuzenean* deritzon ikuskizuna: eserlekuaren erosotasunean gozatzeko zuzeneko bidaia musikatua. Oraingoan, talde berria ekarriko dute Espaloira.

Ikus-entzunezko emanaldi berezia da *Nomadak TX zuzenean*: agertoki atzealdeko pantaila leiho erraldoi bilakatzen da, eta, musikari gehiago agertzea ahalbidetuz gain, bertatik abiatzen dira herrialde eta pertsona ezberdinak ezagutzera. Gainera, taula gaineko instrumentazio bariatua eta horien sonoritate aberatsak txalapartaren garapena sustatzeko gune berri eta egoki bihurtzen dute ikuskizuna, eta urrutiko musikari eta kultura askoren topaleku bilakatu.

J.B. > ELGETA

Iaz hamar urte bete zituen Mundukide fundazioak, eta krisi garai honetan euren konpromisoa irmo mantentzeko asmoa erakutsi dute. Hamar urteotan lan handia egin da, eta, beraz, badago zer ospatu. Hala, ezin hobeto aukeratu dute talde gonbidatua: Oreka TX munduan bidaiari den taldea, hain justu.

Asmoa zen urteurrena urtarrilean ospatzea, baina urteko lehen elurteak ez zuen utzi.

> MUSIKA

Ruper Ordorikak jaso du iazko euskarazko kantu onenaren saria, 'Haizea garizumakoa' abestiagatik

Arteen eta Musika Zientzien Akademiak XIV. edizioan eman dituen musikaren sarietako bat Debagoienean geratu da. Ruper Ordorika musikari oñatiarrak jaso du, hain zuzen, euskarazko kantu onenaren saria, *Haizea garizumakoa* kantuarekin. Abesti horren izen bera daraman diskoa 2009ko udazkenean kaleratu zuen.

Saria atzo zen jasotzekoa, Madrilen. Sari banaketa Häagen-Dazs Calderon deritzon antzokian egin zen. Ordorikaz gain, euskarazko kantu onenaren saria jasotzeko beste bi ziren hautagaiak: Jabier Mugurutz eta haren *Problemak* kantua eta Mikel Urdangarinen *Karoline* abestia, hain justu. Azkenean, baina, epaimahaiak *Haizea garizumakoa* aukeratu zuen. Bejondaiola Ruperrri.

> MUSIKA

Bide Ertzean taldearen kontzerturako sarrerak salgai daude Inkernu tabernan, bost eurotan

Aitzorrotz kultura elkartearen ekimenez, Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du Eskoriatzan. Talde tolosarra *Leidor Sessions* bataiatu duen diskoa aurkezteko biran murgilduta dabil eta martxoaren 19an eskainiko duten kontzertua Huheziko fakultateko unibertsitateko aretoan izango da. Sarrerak salgai daude dagoneko; Inkernu tabernan jarri dituzte, bost eurotan. Kontzertura joan gura duena ibil dadila adi, aretoak sarrera mugatua du-eta.

Eskarmentu handiko taldea da Bide Ertzean. Popa eta rocka uztartzen dute, batez ere, eta emanaldi lasaiak bezain sakonak eskaini ohi dituzte. Hau da, eserlekuaren erosotasunean zuzeneko musika onaz gozatzeko aukera izango da Huhezin.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 90 me'ko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bi bainu-gela, bi balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30

Aretxabaleta. 72 metroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

Aretxabaleta. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 96 m², hiru logela, bi komun, terraza, trasteleku eta garajearekin. 276.000 euro. 649 25 23 51.

Arrasate. Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 m²ko garajearekin. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 943 77 13 91

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai plazatik 100 metro-ra. Sukaldea, egongela, lau logela eta komuna. 240.000 euro. 687 32 99 57 edo 636 32 62 97

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 €. 35 m²ko garaje eta trasteleku, aukerakoak. 66.000 €. 659 72 06 64

Oñati. 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otadiu 13an. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna, trasteleku eta 49 metro koadroko garajea. 659 05 11 57 edo 630 52 17 89.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Iparragirre kalean. Hiru logela. 550 euro. 653 74 31 02

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 636 73 54 94

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 651 70 79 96

Arrasate. Apartamentuak ematen ditut errentan. Jantzita. Galdetu Igonegatik. 677 21 87 81

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Oso ondo kokatua. 659 44 86 79

IRAGARKI SAILKATUAU

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com edo <http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta aparkaleku. 630 41 84 65.

Oñati Errekalden, etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 649 05 17 20

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Deitu 645 71 98 84 telefonora.

Oñati. Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, bainu-gela eta egongela. Garajea aukeran. 665 72 87 89

ARETXABAETA

**Baster-Alde
jatetxean
esperientziadun
sukaldaria behar da.
Ilgandean jai.
608 49 94 35**

402. ESKAERA

Bergara eta Arrasate. Emakume gaztea erizain laguntzaile bezala lan egiteko gertu. Deitu 943 76 52 34 edo 677 09 72 68 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. Deitu 689 88 97 66 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzaren zain bestela. Deitu 637 18 07 23 telefonora.

Debagoiena. Lantxoak egiteko eskaintzen naiz: elektrizitatea, margotu, iturgintza eta abar. Gorkagatik galdetu. Deitu 692 26 27 69 telefono zenbakira.

Debagoiena. Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 606 78 35 94 telefonora.

Debagoiena. Neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. 637 18 07 23.

Oñati Neska euskalduna etxebizitza eta atarteak garbitzeko gertu. Deitu 635 70 07 92 telefono zenbakira.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Deitu 610 31 02 61. 610 31 02 61.

Bergaran etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. Deitu 696 02 68 30 edo 670 40 74 53 telefono zenbakietara.

Oñati. Logela ematen da errentan. 688 61 57 79.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. 18 metro koadroko garaje itxia salgai. Deitu 685 73 58 55 telefonora.

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Deitu 645 71 98 84 zenbakira

MOVITEL 2000, S.A.

Movistar-en banatzaileak
DENDARIA
behar du Arrasaterako.

Baldintzak:

- Euskara menperatzea.
- Jarduera dinamikoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Poltsikoko telefonoekin eskarmentua izatea.

Harremanetan jartzeko:
Tel.: 943 33 09 09



INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmikorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Aranerrek 85 m². Berritua.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerrek 80 m². Terrazarekin.
- Zubiurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerrek 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Zubiurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatua salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

Antzuola:

- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.



**DEBA
GARAIA**
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerrek, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trasteleku.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealeku, 99 m² + ganbara, berrituko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzen.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerrek, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak ematen dira opari. Setter eta Border Collie arteko gurutzaketa. Hiru hilabete-koak. Txertoak ipinita dauzkate. Debagoienean. 619 28 32 06.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamera ia berria salgai. Panasonic Lumix FZ 18, bi bateria eta zorroa. Prezioa adosteko aukera. 615 70 77 10.

Kotxe kapota eta aukia. Silver Cross etxeko kotxe kapota bere poltsoarekin eta umea handia egiten denerako Bambino World aukia. Dena 400 euro negoziagarri. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93.

Kotxe kapota. Bebe Confort etxeko kotxe kapota salgai. 150 € negoziagarriak. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93.

an. Arratsalde edo gauetan deitu. 651 70 85 13.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Honda Varadero 1000 motorra salgai. 2006koak. 23.000km. Egoera oso onean. Errebisioak eguneratuta. Extrak: hiru maleta, eskumuturrak berotzekoak, defentsak, depositoa babesteko eta abar. 605 71 24 73.

Nissan Micra automatikoa salgai. Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000km. 649 19 64 04



DANOBATGROUP
RAILWAYS



Trenbideen sektorerazuzendutako ekipoak eta lineak eraikitzen mundu mailan lidergoa duen eta aurrerantzean gehiago hedatzeko proiektu garrantzitsua duen enpresa batek lanpostu hauek behar ditu:

AUTOMATISMOETAKO PROIEKTISTA (8/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Bezero eta hornitzaileentzat proiektu espezifikazioak ezartzea. Teknologia aurreratudun ekipamenduak dituzten automatismo proiektuak diseinatu eta martxan jartzeko ardura. Hornitzaileen ekipamenduen jarraipena, kontrola eta onartzea.
ESKATZEN DENA: Elektronikan edo informatikan espezializatutako Ingeniaritza titulazio akademikoa. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz. Bidaiazteko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

Mekanizazio prozesuetako CNC eta PLC programazioetan ezagutza izateari garrantzia emango zaio.

MUNTAIAREN ETA ABIARAZI TEKNIKARIA (9/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Makina-erreminten muntaiaren eta egiaztatzearen arduraduna. Salmenta ondorengo laguntza teknikoak. Arazo teknikoen konponketa, plantan bertan edo bezeroaren etxean.

ESKATZEN DENA: Ingeniaritza edo Goi mailako FP-II titulazio akademikoa. Ingelese harremanak izateko gaitasuna. Bidaiazteko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea. CNC ezagutzeari garrantzia emango zaio.

MEKANIZAZIOKO PROZESUETAKO INGENIARIA (10/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Mekanizazioko prozesuen programak eta simulazioak egin, eta estrategiak diseinatu. Mekanizazio prozesuak makinan martxan jartzen parte hartu. Erreminten ezagutza eguneratua izateko hornitzaileekin harremanak. Eskaintzak egiten lagundu.
ESKATZEN DENA: Mekanikan espezializatutako ingeniaria titulazio akademikoa. Simulazio programen ezagutza. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz. Bidaiazteko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

KOMERTZIALEKO ZUZENDARIA (11/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Zuzendari Nagusiaren gidaritzapean, Komertzial eta Marketin Politika zehaztea, eta ondorengo arloetan Merkatuaren Kudeaketaz arduratzea: Planifikazio komertziala, promozio komertziala, sare komertzialaren kudeaketa, bezeroen kudeaketa, eskaintzak eta eskaerak. Salmenten urteko helburuak ezartzea, eta hauen betetze mailaren arduradun izatea. Sare komertzialaren eraginkortasuna zuzendu, ebaluatu eta optimizatu etengabe.

ESKATZEN DENA: Unibertsitateko titulazioa. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz, eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da. Arlo komertzialean ezagutza izatea. Bidaiazteko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea. Bezeroekin harremanak izateko eta negoziatzeko gaitasuna.

PROIEKTU ARDURADUNA (12/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Bezeroaren eskaerak bideratzea eta fase guztien jarraipena egitea, kalitatea, kostuak eta epeak. Proiektuetan intzidentziak identifikatu eta konponbideak proposatzea. DRS-ren, bezeroen eta hornitzaileen arteko interlokuzioak egitea, kargen kuadernoak eta onartze-protokoloak eginez eta hauek betetzen direla kontrolatuz.

ESKATZEN DENA: Ingeniaritza titulazio akademikoa. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz. Ofimatikako erremintak erabilitzea aurreratua izatea. Bidaiazteko eta atzerrian egonaldiak egiteko prest egotea.

Proiektuen kudeaketan esperientziari garrantzia emango zaio (dinamika, informatikako erremintak...e.a).

PROIEKTISTA MEKANIKOA (13/10 Erref.)

FUNTZIOAK: Produktuen espezifikazioaren definizioan parte hartzea. Multzo mekanikoen diseinuan eta 2D-ko eta 3D-ko despiezean arduraduna. Produktuaren garapenean proiektuekin interlokuzioa.

ESKATZEN DENA: Mekanikan espezializatutako ingeniaria titulazio akademikoa. 2D eta 3D diseinu-erremintak erabiltzen esperientzia izatea. Ingelesa menderatzea ahoz eta idatziz, eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da. Bidaiazteko prest egotea. Fluxu eta automatismoetan ezagutza izateari garrantzia emango zaio. Konfidentzialtasun osoa bermatzen da.

LANPOSTU GUZTIETAN ONDORENGOA BALORATUKO DA: Esperientzia antzeko lanpostuetan. Ekitzailera eta taldean lan egiteko gaitasuna. Lidergoa. Euskararen ezagutza.

30 eguneko epean, aurrez aukeratutako bakarrik erantzungo zaie

Emandako datuak dagokien bezala islekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

Interesa izanez gero, bidali curriculum: seleccion@lks.es; edo 89 posta kutxa, 20240 Ordizia, Gipuzkoa, kasu bakoitzean dagokion erreferentzia zehaztuz.

LKS

www.lks.es

Antxon Hernandez > Saskibaloia jokalaria

"Saskibaloia jokalaria izateari uzten diodanean, entrenatzailea izango naiz"

Saskibaloia du gogoko Antxon Hernandez bergararrak. Duela bi urte Gasteizera joan zen Enpresa ikasketak egitera eta, orduetik eta ikasketak amaitu artean, bertan pasatzen du astea Hernandezek. Hori dela eta, Gasteizeko saskibaloia talde batean jokatzen du; UPV Araba taldean, alegia. Hala ere, asteburu gehienetan herrira itzultzen da.

NAROA ODRIUZOLA > BERGARA

Denean ezin gara onak izan eta Antxon Hernandezi ere berdina gertatzen zaio; futbolean etorkizunik ez eta saskibaloian hasi zen. Altuera bere alde izan du beti bergararrak eta horregatik bultzatu zioten saskibaloian jokatzea. Herrira itzultzen da asteburuetan eta geuretzat leku bat egin du bere agendan.

Betidanik aritu zara saskibaloian?

Nahiko berandu hasi nintzen saskibaloian; 13 urterekin. Lehenengo pilotan jokatzen nuen, futbolean nahiko txarra nintzen eta saskibaloian jokatzen hasi nintzen. Bergarako entrenatzaileek bultzatuta hasi nintzen saskibaloian. Jokatzeko altuera nuela esaten zidaten eta futbolean txarra nintzen, saskibaloian hasi nintzen. Baina kirol guztiak gustatzen zaizkit eta gehien-gehien pilota.

Bakarkakoak zein taldeko kirolak probatu dituzu; zeintzuk nahiago?

Taldeko kirolak bakarkako kirolak baino gehiago gustatzen zaizkit eta hori izan zen pilota lagatzeko arrazoi bat. Izan ere, pilotan denbora asko egoten zara zu bakarrik, ez dago taldeko girorik.

Hainbat taldeetan aritu zara eta orain Gasteizeko UPV Araba taldean jokatzen zabilta.

Hasiara batean Bergarako taldean hasi nintzen jokatzen. Gero, Arrasatera joan nintzen eta bertan lau urte pasatu nituen. Ondoren, Baskonian jokatze esan zidaten eta aurreko urtean bertan egon nintzen. Hala ere, aurreko talde aldaz nahi nuen eta UPV Araba taldera etorri naiz. Aste-lau aldiz entrenatzen dugu bi orduz eta oso gustura nago bertan.


Zer moduz zabilzate aurretiko denboraldian?

Ondo gabilzta aurtengo denboraldian. Bosgarrenak gaude eta orain beste liga batera igotzeko jokatzen behar dugu.

Zein egoeratan dago, zure ustez, Bergarako saskibaloia?

Orain nahiko ondo dagoela uste dut umeendako eskola bat sortu dutelako. Oso gaizki egon zen, baina orain hobeto doala uste dut.

Saskibaloia lotura bat da zuretzat?



NAROA ODRIUZOLA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Enpresa ikasketak egiten dihardut Gasteizeko EHUn. **Zale-tasunak:** Kirola egitea, zinema joatea, kontzertuak ikustea, lagunekin irtetea... **Gustuko film bat:** *Next Lee Tamahorirena*. **Irakurritako azken liburua:**

Eduardo Galeanoren *Patas arriba: la escuela del mundo al revés*. **Gustuko musika talde bat:** Delorean. **Amets bat:** Horrela jarraitzea eta Reala igotzea. **Bizitzeko leku bat:** Bergara. **Bisitatu behar duzun lekua:** Isla Reunion. **Bidaiatzeko leku bat:** Txina.

Nolabait lotura da. Egundak batzuetan ez daukazu gogoan entrenatzeko, baina joan egin behar zara. Baldintzatuta zaude entrenamendua edo partidua daukazulako. Udan, adibidez, abuztuan entrenatzen hasten zara eta ezin zara kanpora joan saskibaloia duzulako.

Talderik entrenatzen duzu?

Ez dut talderik entrenatzen denborarik ez dudalako, baina gustatuko litzaidake. Ume txiki-entrenatzea eskaini didate, baina ezin dut denborarik ez daukadalako. Uste dut jokalaria izateari uzten diodanean, entrenatzaile izango naizela.

Esfortzurik egin behar izan duzu saskibaloirengatik?

Noizean behin zapatu gauean etxean gelditu naiz irten barik. Bergarako jaietan ere tokatu zait partidua edukitzea eta etxean gelditu behar izan naiz. Baina merezi duela uste dut. Hala ere, orain esfortzu gutxiago egiten dut baina lehen zapatu eta domeketan ere entrenamenduak izaten nituen.

Anekdotarik?

Oso despistatua naiz eta partiduetara askotan prakak ahaztuta joan naiz, zapatilak, galtzetinak kolore desberdinarekin... Horrelako gauzak gertatu zaizkit noiz edo noiz.

Nola azalduko zenioke saskibaloia ume bati?


Uste dut ez dela kirol erraza. Hasteko, behintzat, nahiko konplikatu da. Pazientzia asko eduki behar da. Gauza txiki asko daude eta ikasteko zaila da.

Honez gain, Enpresa ikasketak egiten diharduzu.

Bai, Gasteizeko Euskal Herriko Unibertsitatean nago Enpresa ikasketak egiten. Ez nuen hasiera batetik argi izan hori egitea nahi nuela. Izan ere, batxilerretik irten eta Ingeniaritza egitera joan nintzen Arrasatera. Baina lehenengo urtean utzi egin nuen eta Enpresa ikasketak egitea erabaki nuen. Dagoeneko, bigarren urtea da.

Gasteizen pasatzen duzu astea. Noiztik bizi zara etxetik kanpo?

Bi urte daramatzat etxetik kanpo bizitzen; Enpresa ikasketak hasi nituenetik, alegia. Oso esperientzia ona da, etxe batean nago Arrasateko hiru lagunekin.




GOIENKARIA

Geure ziklista amateurkin solasean

Harmailatik kirol saioan, Debagoieneko amateur mailako txirrindulariak, denboraldi honetarako dituzten asmoak ezagutuko ditugu. Asier Penabad, Iban Caballero eta Xabier Arantzeta ziklistak dira gure ordezkariak.

GOITB, 'Harmailatik'
> Astelehena, 22:15



GOIENKARIA

Ramon Etxezarreta 'Magazinea'-n

Martitzenean, Ramon Etxezarreta, Hizkuntza Politikarako sailburua elkarrizketatuko dute *Goiena Magazinea*-n. Bestalde, txerri boda sasoia izanik, astelehenekoan, Iñaki Labaka matarifearen lana erakutsiko digute.

GOITB, 'Goiena Magazinea'
> Egutero, 19:45/21:15/23:30

astea GOITBn

Egubakoitza, 5	Zapatua, 6	Domeka, 7	Astelehena, 8	Martitzena, 9	Eguaztena, 10	Eguena, 11
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Euskaldunak hizketan.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Onein.	13:45 Ur eta lur.	13:45 Ikusmira.	13:45 Ikusten.
14:15 On ein.	11:30 On ein	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Goiena Magazinea.	12:00 Itsasoari begira.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta Lur.	13:00 Eltze beroa.	12:30 Erreportajea	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Itsasoari begira.	13:30 Erloklip	13:00 Ur eta lur.	15:45 Ikusmira.	15:50 Ikusten.	15:50 Kiroleroak.	15:45 Erloklip.
16:15 Ikusten.	14:00 28 Klip	13:30 On ein.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	14:30 Barrebusa.	14:15 Goiena Magazinea.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	18:00 Erreportajea	15:45 Marrazki bizidunak.	17:45 Kalekantoio.	17:35 Kurtulzulo.	17:35 Harmailatik.	18:00 Kalekantoio.
18:45 Berriak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Barrebusa.	18:15 Sakonduz.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Kalekantoio.	19:15 Ikusten.	18:45 Ilunpean.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Itsasoari begira.	19:45 Euskaldunak hizketan.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Gipuzkoa kultura.	20:30 Kulturzulo.	20:15 Kiroleroak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Euskaldunak hizketan.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ilunpean.	21:00 Goiena Magazinea.	20:45 Kiroleroak.	20:45 Harmailatik.	20:45 Ilunpean.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Sakonduz.	21:45 sakonduz.	22:00 Erreportajea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Erreportajea.
22:45 Kiroleroak.	22:15 Ikusten.	22:45 Gipuzkoakultura.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 Erreportajea.	22:45 Kulturzulo.
23:15 Kalekantoio.	22:30 Euskaldunak hizketan.	23:15 Kulturzulo.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 28 Klip.	23:00 Kalekantoio	23:20 Itsasoari begira
23:45 Magazinea	00:00 Harmailatik.	23:45 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.	00:30 28 klip.	00:15 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.
	01:00 Erloklip.					
	01:30 Emisio amaiera.					

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearren erreposoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05, irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
Albistegi laburra.

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 6	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Domeka, 7	Fernandez	Maisu Aranberri	943 79 22 26
Astelehena, 8	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Martitzena, 9	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 10	Español	Araba Etorbidea 14	943 79 18 65
Eguena, 11	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 12	Etxeberria	Zarrugalde 42	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 6	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 7	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 8	Mozos	Iparagirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 9	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 10	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguena, 11	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 12	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 6	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 7	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 8	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 9	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 10	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 11	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 12	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABALETAKO-ESKORIATZA

Zapatua, 6	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 7	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 8	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Martitzena, 9	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Eguaztena, 10	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Eguena, 11	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 12	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETA

Bergarako herritar batek mezu bat bidali digu posta bidez honakoa galdetzen: "Urtertero Bergaran egiten den Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak entregatzeko epea noiz bukatzen da?"

Udaleko Euskara batzordeak antolatzen duen Koldo Eleizalde literatura lehiaketako baldintzak kaleratu dituzte dagoeneko. Bergarako Udalaren webgunean ikus daitezke. Lanak udaletxeko Euskara Zerbitzuan entregatu behar dira eta apirilaren 15era arte dago epea zabalik.

'ROSAS ROJAS' ANTZEZLANERAKO SARRERAK
Irakurle batek deitu digu honakoa galdetzeko: "Non eros ditzaket Rosas rojas antzezlanerako sarrerak?"


Martxoaren 7an Oñatin izango da La Papa taldea *Rosas rojas* antzezlan aurkezteko, Santa Ana aretoan. Sarrerak kultura etxean daude salgai 10 eurotan. Aretxabaletan martxoaren 8an izango da ikuskizuna, Arkupe kultura etxean, eta sarrerak doan izango dira. Azkenik, martxoaren 19an Bergaran egongo dira La Papa taldekoak. Zabalotegi aretoan egongo dute antzezlan. Sarrerak egun berean jarriko dituzte salgai 5 eurotan.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

- Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
- Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 6

Zerua hodeitsu izango dugu, baina arratsaldean, pixkanaka, argitzen joango da. Gainera, tenperaturan ez da gorabehera handirik izango.



Domeka, 7

Zapatuan izandako eguraldia errepikatuko da domekan. Zerua hodeitsu izaten jarraituko dugu. Tenperaturei dagokienez, behera egingo du termometroak.

EUSKAL HERRIAN

Bihar, zapatua, hodeitsu egongo da eta tenperatura mantendu egingo da. Domekan ere, zerua hodeiez estalia egongo da. Tenperaturari dagokienez, behera egingo du.



MEZA

Luis Arizmendi Azpiazu

Jesuita

Venezuelan hil zen 2010eko otsailaren 15an, 89 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, martxoaren 6an, 19:00etan, Bergarako Trinitate elizan, Klarisatan.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko martxoaren 5ean.



Oñatiko **Miren Barrena** eta **Roberto Hernandez** bihar, martxoak 6, ezkonduko dira. Zeremonia Oñatiko udaletxean egingo dute. Familiaren partetik, patxo handi bana eta ondo-ondo pasatu eguna!



Domingo Guirao eta **Ana Maria Guirao** otsailaren 29an ezkondu ziren, Eskoriatzan, orain dela 50 urte. Hori dela eta, martxoaren 6an urrezko ezteiak ospatuko dituzte familiaren konpainiarekin. Familiakoen partetik, zorionak!

URTEURRENA

Maria Ortueta Irasuegi

Leon Kortabariaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Bixente Urkia Ugarte

Gasteizen hil zen 2010eko otsailaren 28an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2010eko martxoaren 5ean.

OROIGARRIA

Joseba Iglesias Gonzalez

Dorletako Ama Txirindulari Eskolako kidea.

Gauero, zerura begiratzean, zure distira somatuko dugu Udalatx puntan.



Dorletako Ama Tx. E.



Dorletako Ama Txirindulari Eskola, Lizarralde kirolak, J.M.A., Sein taldea eta C.D.R. Leintz bailaran, 2010eko martxoaren 5ean.

URTEURRENA

Francisca Ibabe Ibabe

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 1ean, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 6an, 19:00etan, Aramaioko Barajuen auzoko Andra Mari elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jesusa Etxezarraga Goikoetxea

Antonio Kortabariaren alarguna

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 27an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

Beti gure bihotzean egongo zara.



Bergaran, 2010eko martxoaren 5ean.

OROIGARRIA

Joseba Iglesias Gonzalez

Besaide Espeleologia Taldeetako kidea.

Kobazuloetan zure argia lagun izango dugu.



Aloña Mendi eta Besaide Espeleologia Taldeak. Arrasaten, 2010eko martxoaren 5ean.

URTEURRENA

Jose Kortabarría Gabilondo

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 11:00etan, Antzuolako Antiguako ermitan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angel Garmendia Eguren

Beneranda Kortabariaren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko otsailaren 25an, 89 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren 7an, 11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan ospatuko da.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko martxoaren 5ean.

OROIGARRIA

Joseba Iglesias Gonzalez

Besaide Mendizale Elkarteko kidea.

Zure indarra eta kemena beti izango ditugu gogoan.



Besaide Mendizale Elkarteko lagunak. Arrasaten, 2010eko martxoaren 5ean.

URTEURRENA

Jesus Kalboetxeaga Zabaleta

Bigarren urteurreneko meza domekan, martxoaren 7an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuzenetik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jabier Bikuña Urriategi

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 27an, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko martxoaren 5ean.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Martxoak 5-11

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



BERGARA

> 'Cruzadas cotidianas' antzezlan, emakumearen gainekoa

Cristina Castillok *Cruzadas cotidianas* antzezlan egingo du gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:30ean. Komedia giroan, hainbat emakumeren rola egiten du, euren aldarrikapenak eta eguneroko kezak plazaratuta. Sarrera 5 euro da.

Ekitaldia



ELGETA

> 'Nomadak' ikus-entzunezkoa ikusteko aukera, Mundukideren eskutik

Mundukide GGKEk 10 urte dituela ospatzeko, Espaloia antzokian elkartuko dira gaur, egubakoitza, 19:30ean, urtemugako ekitaldia egiteko; eta 22:30ean, Oreka TX taldearen *Nomadak* ikus-entzunezkoa emango dute.

Musika



ARRASATE

> Anarik 'Irla izan' diskoko abestiak joko ditu bihar, zapatua, Amaian

Anari musikariak *Irla izan* delako diskoa plazaratu zuen 2009an, eta horko abestiak eskainiko ditu bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan, otsailean Heletan hasi zuen birarekin jarraituz. Sarrera 10 euro da.

BERGARA

> Nagore Igartza antzuolarraren argazki erakusketa

Nagore Igartza argazkilari antzuolar gazteak *Barneko lurralde* izeneko argazki erakusketa dauka. Martxoaren 21era arte dago zabalik.

Aroztegin, astelehenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domekak: 12:00-14:00.

ARRASATE

> Jabego publikoko bideen inbentarioaren gainekoak

Arrasateko jabego publikoko bideen inbentarioaren gaineko erakusketa egongo da Kulturaten. Garai bateko bide asko dagoeneko ez dira erabiltzen, eta erakusketarekin nahi da Udalak egindako inbentario lana eta herritarrek ekarri dutena ezagutaraztea.

Kulturaten, martxoaren 8tik 28era arte.

OÑATI

> 'Argizaiola' argazki erakusketa dago hil osoan kultura etxean

Ilunpetan argazki taldearen eskutik, *Argizaiola* argazki erakusketa izango da kultura etxeko erakusketa aretoan.

Martxoaren 28ra arte, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

ANTZUOLA

> Jone Larrañagaren margo erakusketa, asteburuan

Jone Larrañaga Gorritxok bere margoak erakutsiko ditu. Akuarelak eta olioak dira.

Zapatuan eta domekan, Orlaran etxean, 12:30-14:00 eta 18:30-20:00.

Antzerkia

ARRASATE

> Angelito 'El Largo' aktorearen umorezko bakarriketa lamain

Iamai kafetegian 10 urte dituela-eta emanaldi bereziak antolatatu ditu. Hala, gaur, egubakoitza, Angelito *El Largo*-k umorezko bakarriketa egingo du. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko lamai kafetegian, gauerdian hasita.

ARETXABALETAKA

> 6 urtetik gorako umeendako ikuskizuna Arkupen

Baziren behin... neska abenturazaleak eta mutil abeslariak 6 urte eta gorako neska-mutikoendako ikuskizuna egongo da Arkupen, Kontu Kantoi taldearen eskutik.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 11:30ean.

BERGARA

> 'Alfonbra majikoa', umei zuzendutako antzezlan

Alfonbra majikoa umeendako antzezlan egingo du Oihulari Klown taldeak. Sarrera 3 euro da.

Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 17:00etan.

Musika

ARRASATE

> Arrasate Musikaleko txistulariek kontzertua egingo dute

Arrasate Musikaleko txistularien kontzertuak bi zati izango ditu; lehenengoan, ikasleek talde txikietan edo bakarka joko dute, eta bigarrenean, txistulari bandak joko du, Juan Karlos Larreategik zuzenduta. Errepertorioaren zati handi bat Euskal Herriko musika izango da. Sarrera doan da.

Bihar, zapatua, Kulturaten, 12:00etan.

BERGARA

> Denial, Instinct eta Dark Code taldeen metal kontzertua

Metal estiloko honako taldeek kontzertua egingo dute: Denial (Aretxabaleta), Instinct (Bermeo) eta Dark Code (Bergara). Sarrera 3 euro da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA

> Mursego biolontxelo-jotzaileak 'Bat' diskoa aurkeztuko du

Mursegek, Maite Arroita-jaregi eibartarrak, *Bat* diskoko piezak joko ditu.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan.

ANTZUOLA

> Txistulariek kontzertua egingo dute etzi, domeka

Herriko txistulariek kontzertua egingo dute, abesbatzarekin eta Bergarako metal boskotearekin.

Etzi, domeka, Torresoroan, 12:00etan.

Erakusketak

ARETXABALETAKA

> Gerrako hilobien gaineko erakusketa ikusteko aukera

Hilotzak hobitik ateratzen, *duintasunak berreskuratzen*

delako erakusketa ipini du Aranzadi Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren eta Intxorta 1937 kultura elkartearen laguntzarekin. Aranzadiko kideek joandako 10 urteetan egindako hobitik ateratze lanak ikus daitezke, argazkitan. Horrekin batera, Intxorta 1937 kultura elkarteko kideek beste bi panel prestatu dituzte, *Gerra eta errepresioa Aretxabaletan: Izen guztiak, aurpegi guztiak* izenburuarekin.

Kultura etxean, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00, lanegunetan, eta 11:00-13:00, zapatuetan.

PROPOSAMENA



OÑATI, ARETXABALETAKA

> 'Rosas rojas' emakumearenganako tratu txarren gaineko antzezlan ikusteko aukera

Martxoaren 8a aintzat hartuta, emakumeen aurkako tratu txarren inguruko *Rosas rojas* antzezlanaren emanaldiak antolatatu dituzte zenbait udalek. La Papa antzerki taldearen lan horrek Lydiak eta Raulek osatutako bikotea aurkezten digu: apurka-apurka, Lydiari tratu txar psikologikoak ematen hasi da Raul...

Oñatin, etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean; Aretxabaletan, astelehenetan, hilak 8, Zاراia aretoan, 19:30; Bergaran, hilaren 19an.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

GAIA ERAKUSKETA IRAUNKOR BERRIA

Energia eta Natura dira erakusketa honetako ardatz nagusiak. Bisita gidatuak asteburuan: 13:15 eusk. eta 17:45 gazt.

PLANETARIUM DIGITALA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta

Martxoak 6:

12tan eusk.: **Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

13tan gazt.: **Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa

15:30tan fran.: **Itsua izar begiekin:** Itsua bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat

17tan eusk.: **Kartoizko suziaren sekretua:**

Haurrei zuzendutako saioa. Eguzki sistemako planetak.

18tan gazt.: **Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

Martxoak 7:

12tan eusk.: **Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa, gaur ikus dezakegun zerua ezagutzeko

13tan gazt.: **Itsua izar begiekin:** Itsua bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat

15:30tan fran.: **Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

17tan eusk.: **Biziaren jatorria:** Lurraren eta

Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa

18tan gazt.: **Kartoizko suziaren**

sekretua: Haurrei zuzendutako saioa.

Eguzki sistemako planetak

ERRUSIAR MENDIA SIMULAGAILUA

- Asteburuan, 11:30-14:30
eta 15:30-19:00



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramont.org

Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Astebetetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

Ospakizunak

BERGARA

> Santu Martirien jaiak ospatu-ko dituzte Osintxun

Santu Martirien jaiak izango dituzte Osintxun aste bukaeran. Zapatuan izango dira ospakizun nagusiak: Osintxu-Osintxu jubenilendako bizikleta proba (10:00), txokolate-jana eta umeendako jolasak (16:30) eta Jon Maia eta Aitor Sarriegirekin bertso afaria (21:00).

Ekitaldi nagusiak bihar, zapatua.

Hitzaldiak

ELGETA

> Iruña-Veleiaren gainean hitz egingo du Elexpuruk

Iruña-Veleiako grafitoak, benetakoak? hitzaldia egingo du Juan Martin Elexpuruk.

Eguenean, hilak 11, Espaloia antzokian, 19:00etan.

ESKORIATZA

> Emakumearen gaineko kafe-tertulia antolatu dute

Emakumearen Egunaren harira, kafe-tertulia saioa antolatu dute Udalak eta Bizikasik. *Función conciliadora de la mujer* du izenburua. Nagore Iturriotz izango da hizlaria.

Martitzenean, hilak 9, Ibarraundi museoa, 18:00etan.

ANTZUOLA

> Antzuolako armariaren gaineko berbaldea

Antzuolako armariaren eta horren kanoien gaineko hitzaldia egingo du Nabarralde elkarteak.

Martitzenean, hilak 9, Torresoroan, 18:30ean.

BERGARA

> 'Nafarroa Garaia konkista' hitzaldia Mikel Lizasorekin

1512-2012 ekimenarekin elkarlanean, hitzaldi sorta bat antolatu du Udalak. Horren barruan, Mikel Lizasok egingo du hurrengoa: *Nafarroa Garaia konkista. Aitzindariak eta ondorioak. 1512* da izenburua.

Eguaztenean, martxoak 10, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Bestelakoak

ARAMAIO

> Zuhaiak landatuko dituzte ikasleek gaur, Zuhaitz Eguna

Zuhaitz Eguna 2010 ospatu-ko dute herriko Haur Hezkuntzako ikasleek. Andra Marin zuhaiak landatuko dituzte. 09:15ean hasiko da ospakizuna.

OÑATI

> Poesia errezitaldia egingo du Andoni Salamerok

Hitz bidean ttakunka delako poesia musikatu errezitatuko du Andoni Salamerok idazle eta olerkariak. Ingurumen Astearen barruan antolatutako ekintza da.

Gaur, egubakoitz, kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

La carretera
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
Domeka: 17:00.

Let's get lost (I.B.A.)
Eguena: 20:30.

ARETXABAETA

ARKUPE

El erizo
Egubakoitz eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.

Vicky, el vikingo
Domeka: 17:00.

Leonera
Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Nine
Egubakoitz: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Rompiedientes
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

La boda de Tuja
Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

Primera plana
Domeka: 18:00.

ELGETA

ESPALOIA
Lejos de la tierra quemada
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Totoro, nire bizilaguna
Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Invictus
Egubakoitz: 20:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 22:30.

COLISEO 1

Up in the air
Egubakoitz: 20:30.
Zapatua: 19:45.

Shutter Island
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

COLISEO 2

Shutter Island
Egubakoitz: 20:30.

Invictus
Zapatua: 19:45, 22:30.

Up in the air
Domeka: 20:00.
Astelehena: 22:30.

GASTEIZ

GURIDI

The lovely bones
19:45, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 19:45 (domeka).

Los hombres que miraban fijamente a las cabras
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Al límite
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Percy Jackson y el ladrón del rayo
17:30, 20:00 (egubakoitz eta zapatua); 17:30 (domeka).

Up in the air
22:30 (egubakoitz eta zapatua); 20:00 (domeka).

Corazón rebelde
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

El corredor nocturno
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Tiana y el sapo

17:00 (egubakoitzetik domekara).

Shutter Island

17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

The lovely bones

19:45, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 19:45 (domeka).

FLORIDA-GURIDI

Millennium 3

17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

Un profeta

17:00, 20:00 (egubakoitzetik domekara).

La cinta blanca

17:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:00 (domeka).

Un hombre soltero

17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Precious

17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Invictus

19:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 19:00 (domeka).

An education

17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitz eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

En tierra hostil

19:45 (egubakoitzetik domekara).

Arthur y la venganza de Maltazard
17:00 (egubakoitzetik domekara).

YELMO CINEPLEX

Avatar (3D emanaldia)

15:30 (zapatuan eta domekan); 18:45, 22:00.

Daybreakers

16:35 (zapatua eta domeka); 18:35, 20:35.

Nine

15:30 (zapatua eta domeka); 17:40.

Sherlock Holmes

19:50, 22:10, 00:30.

Up in the air

20:15, 22:15, 00:15.

Tiana y el sapo

16:15 (zapatua eta domeka); 18:15.

Millennium 3

16:15 (egubakoitz eta zapatua); 19:00, 21:45, 00:30.

Invictus

17:30, 20:00, 22:30.

Percy Jackson y el ladrón del rayo

15:45 (zapatua eta domeka); 18:00, 20:15.

La carretera

22:35, 00:35.

Shutter Island

Egubakoitz eta zapatua: 16:30, 19:05, 21:40, 00:20.
Gainerako egunak: 17:30, 20:05, 22:40.

The lovely bones

Egubakoitz eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:10, 00:45.
Gainerako egunak: 17:25, 20:00, 22:35.

Historias de San Valentín

15:50 (zapatua eta domeka); 17:55.

Celda 211

18:10, 20:20, 22:30, 00:40 (zapatua eta domeka); 20:20, 22:30, 00:40.

Un hombre soltero

22:35, 00:35.

En tierra hostil

15:30 (zapatua eta domeka); 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

Al límite

15:40 (zapatua eta domeka); 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

Arthur y la venganza de Maltazard

16:00 (zapatua eta domeka); 18:00.

El hombre lobo

19:50, 21:50, 23:50.

Los hombres que miraban fijamente a las cabras

16:25 (zapatua eta domeka); 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Martxoaren 5etik 11ra.
Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Millennium 3

15:45, 18:45, 21:45, 00:45.

Sherlock Holmes

22:10.

Historias de San Valentín

16:30.

Invictus

16:30, 19:15, 22:10.

The lovely bones

19:00, 22:00, 00:45.

Al límite

15:50, 18:05, 20:20, 22:40, 01:00.

Tiana y el sapo

16:00, 18:00, 20:00.

Daybreakers

16:00, 18:10, 20:20, 22:20.

La carretera

22:15, 00:30.

Los hombres que miraban fijamente a las cabras
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

El hombre lobo

20:15, 22:25, 00:30.

Arthur y la venganza de Maltazard

16:05, 18:10.

Shutter Island

16:15, 19:15, 22:00, 00:45.

Percy Jackson y el ladrón del rayo

15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

Cazadores de dragones

16:10, 18:00, 20:20.

Martxoaren 5etik 11ra.
Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

UN PROFETA ****

Kartzela-thriller bizia

> Zuzendaria: Jacques Audiard.

> Aktoreak: Tahar Rahim, Niels Arestrup, Adel Bencherif.

> Frantzia, 2008.

> 154 min.

Frantziatik etorritako *Un profeta* film beltza espetxe baten kokatzen da eta 6 urteko kartzela zigorra bete behar duen gazte baten ibilbidea jarraituko dugu. Hasieran gazteak ez du inor ezagutzen, barruan daudenek ez diote bizitza errazten, besteen menpean bizi da. Baina gaztea nahiko azkarra da eta poliki-poliki bere tokia lortzen joango da.

Protagonistaren bilakaeraren lekuko izango gara. Gaztea eszena guztietan agertzen da, zuzendariak oso gertutik filmatzen du, pertsonaien gertuko plano asko daude, kamerak pertsonaien mugimendua jarraitzen du, kameraren ekorketak pertsonaiak erlazioatzen ditu, eta horrek guztiak kartzelaren giro itxia ondo islatzen du. Film guztian filmatzeko modu antzekoa ematen bada ere, pertsonaia nagusia aldatzen doan neurrian badira aldaketa batzuk. Istoriaoren hasierak oso tratamendu errealista du, ez du ia musikarik, ezta apaindurarik. Pertsonaiaren via crucisa jarraitzen du: jasaten dituen tratua eta presioak, sufritzen duen shock emozionala (persona bat hil behar du edo bestela bera hilko dute). Dena zehatztasunez erakusten da eta horrela ikusleak erraz uler ditzake pertsonaiaren sentimenduak. Hilketaren eszena benetan zoragarria da. Kartzela-kronikak trhillerra joko du, gaztea Korsikakoekin eta arabiarrekin tratuetan hasiko da eta hortik aurrera gauzek hoberantz egingo dute. Ondo moldatuko da bi taldeekin, harreman mafiosoak izango dira eta horrela istorioan thriller giroa indartzen joango da. Ez da errealismoa galtzen, baina zuzendariak bere eskua zerbait zabaltzen du eta mamuak, tiroketa ikusgarriak eta musika gehiago sartuko ditu. Horrela *Un profeta*-k oso ondo erabiltzen ditu errealismoa, lehertasuna, tentsioa eta gangsterren zinemaren osagaiak oso film gomendagarria osatzeko.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

bono fotoa



Argazkiko langilea Arrasateko jantzi denda bateko erakusleihoa ari da garbitzen. Nola du izena denda horrek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Aretxabaletako Angel Loidi.

Erantzun zuzena: Usondo parkea. Bergara



ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintza: botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Fedearen truke, garaipenak

ARANTZAZURA OINEZ UDAk irabazten duenean Amabirjinarengana joaten da Bixente Etxeandia

AZKEN 12 ASTEAK Aurreko denboraldian, hamabi astez jarraian santutegira joan zen

J.I./A.BARRUSO > ARETXABALETA
Aspaldian Arantzazura joateke zegoen Bixente Etxeandia aretxabaletarra, baina, zorionez, azken bi asteetan jarraian Amabirjinari bisita egitea tokatu zaio; UDAk azken bi partiduak irabazi ditu.

UDAre jarraitze amorratua izan da beti Etxeandia; jokari moduan hasi zen gaztetan eta UDAko presidentea ere izan da urte batzuetan. Gaur egun ere partidu guztiak jarraitzen ditu; etxeak eta kanpokoak.

Aretxabaletarrak tratua dauka eginda Arantzazuko Amabirjinarekin: UDAk partidua iraba-

ziz gero bisitan joango zaiola oinez. Pasa den egunean Arantzazuko basilikara sartzen aurkitu genuen: "hamar urte inguru daramatzat Arantzazura etortzen. Behin esan nion Amabirjinari gure taldeak irabaziz gero etorriko nintzela; elurra, euria edo beroa egin... beti etortzen naiz ni".

PASA DEN URTEA GOGORRA

Zorionez edo zoritxarrez aurtengo urtea lasaiago izaten ari da: "Pasa den urtea oso gogorra izan zen" esaten digu barre eginez, azken hamabi partiduak jarraian irabazi genituen eta konturatu



BIXENTE ETXEANDIA Arantzazun topatu genuen UDAk Santurtziri irabazi ostean.

JULEN IRIONDO

orduko iristen zen eguaztena edo eguna; baina pozik etortzen nintzen ni e!"

Arantzazuko Sindika tabernan ere ondo ezagutzen dute; bazkari pasada egiten du beti bertan.

LAU BISITA GERATZEN ZAIZKIO

Pasa den urtean hirugarren mailara igo zen Aretxabaletako taldea; horixe eskatzen zion Etxeandiak Amabirjinari eta eskakizuna bete egin zen. Aurten gauzak dauden

moduan, maila berean mantentzea da aretxabaletarraren nahia; horretarako, lau bisita geratzen zaizkio: "lau aldiz gehiagotan Arantzazura etortzeak esan nahiko du salbatu garel".

ahobero

"Diputatu guztiek alkoholemia proba egin behar balute... badakigu nola gainditzen diren proba horiek"

M^a Dolores de Cospedal
> PPko idazkari nagusia

Nacho Uriarte PPko diputatuak positibo eman zuen alkoholemia proban. Aznarrek bere garaian esan zuen inork ez diola esan behar zenbat kopa edan behar dituen; Cospedalek orain hau. Zenbat arazo ematen dizkion alkoholak PPri.

iturri onetik

Markel Irizarrek talde berrian egingo duen denboraldia jarraitu ahal izango da sarean

Oñatikoak denboraldi berria hasi du Cerdeñan, Radio Shack taldearekin, eta laister iparreko klasikoak etorriko dira. Etxetik urrun egongo den arren, bere nondik norakoak jarraitzeko aukera izango dugu; Markelen txokoa izeneko bloga ipini du martxan: markelirizar.blogspot.com. Twitter eta Facebooken ere baditu kontuak, eta webgunea ere laster izango da martxan: www.markelirizar.com.

piperrautsa


Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Pinuak eta haizetea

D eskalabro dezente eragin du haizeteak aste bukaera honetan Gazetan, gure auzoko pinudietan. Batzuk zuztarretik atera, besteak enbor erdi parean apurtu, ale mordoxxa ikusten da lurlean barreiatuta. Eta, zer nahi duzue, gaitz erdi zuhaitzak soilik izan balira.

Ze pinu horiek nonahi zeuden, bide ertzean eta auzo erdialdeko guneeetan, argindar eta telefono kableak inguratuz. Eta noski, erori direnean bidea moztu dute edo argindar kablea eta hornidura eten. Hainbat bider libratu behar izan da bidea eta bi egun oso egon gara argindarrik gabe. Eta oraintxe botatzen ari diren pinudien orde ez oraindik irizpide berdinekin landatzen dira pinu berriak, pixka bat hazten direnean berririo oztopo edo arazo izateko moduan. Noiz arte pinuzaleen diktadura?

ai, ene!



Ikusgarria benetan naturak egin dezakeena

Errealitateak fikzioa gainditzen duela esaten da askotan; kasu honetan naturak errealitatea gainditu ez, baina berdindu du.

www.taringa.net

<p>Babes eta erosotasun handiagoa</p> <p>Kanporako saretak</p>	<p>Dekorazio aukera guztiak</p> <p>Estoreak, errezelak eta saretak</p>	<p>Eguzki babesa</p> <p>Toldoak</p>	<p>Zubillaga auzoa 1 OÑATI Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15 51</p>
--	--	---	--